

ARRAZOIAREN HITZA

Argudio-bideen arrastoan

Jose Inazio Basterretxea Polo

Udako Euskal Unibertsitatea

ARRAZOIAREN HITZAK

Argudio-bideen arrastoan

Jose Inazio Basterretxea Polo

Udako **Euskal Unibertsitatea**
Bilbo, 2007

© Udako Euskal Unibertsitatea
© Jose Inazio Basterretxea Polo

ISBN: 978-84-8438-096-2
Lege-gordailua: BI-2459-07

Inprimategia: CUATROAS, Bilbo
Azalaren diseinua: Iñigo Ordozgoiti
Hizkuntza-zuzenketen arduraduna: Gidor Bilbao Telletxea

Banatzaileak: UEU. Erribera 14, 1. D BILBO telf. 946790546 Faxa. 944793039
Helbide elektronikoa: argitalpenak@ueu.org
www.ueu.org

Elkar Banaketa: Igerabide, 88 DONOSTIA

Galarazita dago liburu honen kopia egitea, osoa nahiz zatikakoa, edozein modutara delarik ere, edizio honen Copyright-jabeen baimenik gabe.

—Errota-harriak zerutik behera
zenbat denbora behar du?

—Jauna, ez noski bi ordu.

"Pernando Amezketarrarena",
Jose Manuel Lujanbio *Txirritak* abestua[1].

1. Lete, X., (2001): *Berrehun urtez bertsotan*, Elkarlanean, Donostia.

Aurkibidea

Aurkezpena 9

LEHEN ATALA: ARGUDIO-TEORIAREN ESTATUTUA 11

Sarrera: Argudiatzen ikasi behar du kazetariak 13

1. Argudio-teoria bere historian 17
   1.1. Argudioaren oihana 17
   1.2. Definizioa eta oinarriak 20
   1.3. Argudioa eta erretorika 23
   1.4. Argudioaren indarra autore klasikoetan 25

2. Pentsamendua, artearen gurpilean 33
   2.1. Artearen estatutu orokorra 33
   2.2. Arrazoiaren giltzak eta borroka-lekuak 36
   2.3. Diskurtso argumentatuaren paradigma klasikoa 40
   2.4. Diskurtsoaren ereduak 49

3. Argudio-lana, hitzarmenari begira 53
   3.1. Abiapuntuko baldintza argudio-lanetan 53
   3.2. Mintzakidearekiko hitzarmena eraikitzeko tresneria 54

4. Argudioa eta dialektika 63
   4.1. Errefusaren anatomia 63
   4.2. Errefusaren practicum-a 66
   4.3. Norberarenari eustea 69

BIGARREN ATALA: ARGUDIOA, ETIKA ETA SORMEN-LANA 73

Sarrera: Argudioaren etika 75

5. Argudio kuasilogikoak 79
   5.1. Definizioaren indarra 79
   5.2. Justiziaren araua 84
   5.3. Argudio iragankorra 85

5.4. Zatia eta osoaren arteko harremana 86
5.5. Dilema 87
5.6. Erkaketa-argudioa 88
5.7. Litekeenaren argudioa 89
5.8. Kontraesana eta bateraezintasuna. 91

6. Kausak eta ondorengotza-loturak 95
6.1. Kausa bidezko argudioa 95
6.2. Ondorengotza-loturak. 100

7. Aldiberekotasun-loturak argudioan 105
7.1. Pertsona eta ekintzaren arteko lotura 105
7.2. Autoritate-argudioa 106
7.3. Ekintza/Subjektua ardatza 107
7.4. Taldea eta kideak 108
7.5. Lotura sinbolikoa 109

8. Kasua, analogia eta metafora. 111
8.1. Kasuaren bidezko argudioa 111
8.2. Analogiaren bidezko arrazoia. 114
8.3. Metafora eta arrazoiketa. 116

9. Logika eta silogismoaren egitura. 123
9.1. Argudio logikoaren estatutua 124
9.2. Silogismo kategorikoa 125
9.3. Falazia, hutsa argudioan. 133

Bibliografia. 137

Aurkezpena

Kazetarigai eta kazetari lagunentzat idatzitako testua da eskuartean hartu duzuna, kazetari batek idatzia. Txosten moduko bat da, kontsultarako liburua, noizean behin errepasatu beharreko bilduma; beharrezkoa denean, hau eta hura berrirakurtzeko.

Munduaren ulermenerako eta haren kontakizunerako, kazetariak lan-tresna asko behar ditu. Konplexutasun handiko uretan murgiltzen baita bere jardun profesionalean komunikatzailea. Lan-tresna horietako batzuk azaltzera datoz orrialde hauek.

Irizpide orokor batzuk dira ikasliburu honetan azaltzen direnak. Testuak ahalik eta modurik egokienean egiteko, beti ere, argudiatzea helburu hartuta. Hemen ez da azaltzen nola egin albiste bat, erreportaje bat edo elkarrizketa bat. Ez da hori helburua. Arrazoiak eta iritziak zelan egituratu azaltzen da hemen.

Bi zatitan partitua den liburuxka honen xedea da kazetaria hurbiltzea arrazoiaren bideetara, argumentazioaren itsasora, zioen basora. Ez da munduaren narrazio laua hemen planteatzen dena. Munduaren interpretazioa azalpen-diskurtsoetara eramateko modu batzuk azaltzen dira hemen.

Arrastoa iradokiko da orrialde hauetan, arrastoa. Norberak egin beharko du aurrera bide horretatik. Norberak onartu beharko ditu bidaiaren arriskuak. Eta, nola ez, norberak jasoko du fruitua, uzta beroan.

Hona hemen liburuaren eduki nagusiak, azaletik kontatuak.

LEHEN ATALA

Argudio-teoriara hurbiltzen gaitu lehen urrats batek. Argudioaren teoria klasikoa azaltzen da hor. Beste batzuen artean, Aristoteles, Zizeron, Marko Aurelio eta Kintiliano autoreak dituzu beharrezko, lehen atal horretan.

Argudio-teoriaren genesi historikoa azaltzen da lehen azpiatalean. Bigarrenean, pentsamendua azaltzeko artearen paradigma klasikoak deskribatzen dira (*inventio*, *dispositio* eta *elocutio*). Hirugarrenean, helburu jakin bat ezartzen zaio argudiatzeari: kontsentsuaren kudeaketan sakontzea. Laugarren azpiatalean,

dialektikaz egiten da hitz, besteren argudioak nola errefusatu eta norberarenak nola indartu.

Azpiatal bakoitzean dituzu adibideak, batzuk klasikoak, beste batzuk modernoagoak.

BIGARREN ATALA

Etika eta somen-lana hartzen ditu kontuan bigarren atal nagusiak, abiapuntu gisa. Ezin da edozelan eta edozertarako argudiatu publikoan. Etikoa, duina izan behar du kazetariaren lanak. Hori hartzen du kontuan bigarren atalak, lehen urrats batean. Irizpide etikotik at, gure profesioa ezer ez da, iruzurra besterik ez.

Munduaren interpretaziorako, azalpen-diskurtsoak eraikitzeko tresna jakin batzuk azaltzen dira urratsez urrats bigarren atalean, etikaren aldeko aldarriaren ostean. Autore modernoen artean, besteak beste, Perelman eta Lausberg irakasleek egin dituzte bilduma-lanik interesgarrienak. Horien aipu ugari aurkituko dituzu azalpen-testuetan.

Argudio kuasilogikoak hartu dira gogoan lehen azpi-atalean. Kausa- eta ondorengotza-loturak bigarrenean. Aldiberekotasun-uztardurak hirugarrenean. Laugarrenean, kausa, analogia eta metafora. Azkenean, argudio logikoaren silogismo kategorikoa azaltzen da.

ARRAZOIAREN HITZAK

Esku-liburuxka bat aurkezten zaizu hemen. Gaian sakontzeko *aperitif* moduko bat.

Bide tekniko batzuk azaldu gura dira orrialde hauetan, testuak eta diskurtsoak arrazoitzeko.

Batzuetan iruditu zaizu testua dentsoa dela, oso betea edo beteegia. Ez presarik eduki atalak irensteko.

Ea lagungarria zaigun denei, euskarazko kazetaritza sendoagoa eta mailaz jasoagoa erdiets dezagun.

LEHEN ATALA:
argudio-teoriaren estatutua

Sarrera.
Argudiatzen ikasi behar du kazetariak

ERREDAKTORE-BURUAK ESAN DIO BEKADUNARI: *hogeita bost lerro behar dizkinat, agian editorialerako, agian iruzkin baterako*. Eta, joan egin da bere kristalezko burbuilara.

Kazetari gaztea mutu gelditu da, ez daki oso ondo zer eskatzen zaion. Izerdia nabaritu du eskuetan, baina, ezertan hasi aurretik, konturatu da ezen eskuetako izerdia icebergaren gailurra besterik ez dela, zeren, izerditan, gorputz osoa baitauka, eta hats nabaria du. Lanetik itzultzen ari den ikazkina ematen du.

— *Halakoa izango ote da nire hatsa besteentzat ere?*, lotsaturik.

Hogeita bost lerro horiek atzera eta aurrera darabiltza bere buruan. Izan ere, erredaktore-buruak agindu zehatza emana dio: hogeita bost. Agian editorial baterako. Agian iruzkin baterako.

— *Asko ala gutxi da?,* ardura handia ala txikia den galdetu ordez.

Alboetara begiratu du. Arduraz begiratu ere. Egarria nabaritu du. Itzelezko lana begitandu zaio erredaktore-buruaren agindua. Baina ez dauka norekin komentatu. Behar denean, ez dago inor. Erredakzioan inork ez daki zer ari den sufritzen, inork ez daki edozeinen aholkua hartuko lukeela gustura, ataka horretatik onik ateratzeko.

— *Eman, lan hori egiteko beste inor ez zuelako eman al dit niri?*

Ezinean ari da. Bero-bero dauka burua. Han dago bekaduna zur eta lur: beste baten ordenadore inpertsonalaren aurrean, orain sabaiari so, orain nagusiaren bulegoko ate gardenari. "Hogeita bost lerro" horiek idatzi zain dago. Nondik hasi? Ze egitura eman idatzi beharrekoari?

— *Eman, beste edozeinek bezain ongi egin dezakedalako eman al dit?*

Mahaitik jaikitzekoa egin du, baina, ezertan hasi aurretik, gona luzatu du eskuekin: erredakzio-gela oso-osoa zeharkatu behar du, eta ez du inoren begiraturik bereganatu gura. Nahikoa urduri dago jada. Komunerako bidea hartu du: urbotilatxoa bete behar du.

Ez gaitezen luzatu aurkezpenetan. Hauxe da koadroa: hogeita bost lerro, ez dakizu nondik hasi eta ez duzu inor laguntzeko.

HURRENGO URRATSA TOKATZEN DA ORAIN. Argi dago zein den zure egoera, eta, hitz batez laburtzearren, utzidazu ezaugarritzen ez dela *erraza* esanda; eta, bigarren adjektibo baterako tartea utziz gero, utzidazu esaten *latza* ere badela. Baina, bizitza ez da hor amaitzen, ezta kazetari berri batena ere. Jakizu: zuk duzun arazo hori bera beste batzuena ere izan dela lehenago, baita orain idazten dizunarena ere, jakina. Bizirik atera gara, eta bizirik aterako zara zu zeu ere.

Bai. Bete ezazu botila. Segi dezagun.

Arduratzen gaituzten hogeita bost lerro horiek guztiek badute arazo pertsonal bat, ikusi dugu: zeurea, hots, hasiera-punturik eza eta laguntza barik egotea. Eman lezake hori dela kontu honetan giltza nagusia. Ez da horrela baina.

Zure hogeita bost lerro horiek badute arazo sozial bat berekin, zeren ardura publiko bat utzi baita zure eskuetan: gizarteari dagokion patata bero bat utzi dizu eskuen artean erredaktore-buruak, eta (bizirik ateratzeaz gain) zeuk zuritu behar duzu hori.

Une honetan, arduratu, arduratzen nau azaldu ahal izateak ideiak nola gorpuzten ditugun paperean. Ideia horiek zelan antzematen ditugun ideia benetan on legez, eta zer beharko genukeen gure egia horietaz inor konbentzitzeko.

Alegia: argudiatzen erakutsi behar dizut, eta buruko min ederra ematen dit horrek.

Kontuz gonarekin.

Argudiatzen ikastea ez da ardura berria. Erraz imajina dezakezu hori. Arazo bera zuten Aristotelesek eta Averroesek, hamasei mendek banatzen zituzten arren. Arazo bera zuten Spinozak eta Deskartesek. Berbera dute Xabier Letek, Josanton Artzek eta Joxe Azurmendik.

Nondik hasi behar dut? –idatzi duzu zure koadernoan. Ez dudala ikusi uste duzu, baina ikusi dizut. Ez ikusia egingo dut. Hor segitzen duzu zeureari ekin eta ekin. Lehen *n*-a luzatzen hasi zara, barraskilo bat egin duzu lehen hankarekin, eta azken *t*-arekin gurutze bat egin duzu lehenengoz; gero, segituan, lotsatuta, igitaia egin duzu, eta azkenean dena ezabatu duzu. Edozein banintz, ez nizukeen ikusiko, baina ikusi egin dizut.

Berriz idatzi duzu: ‘Nondik hasi behar dut?’, oraingoan letra neutroaz, ia-ia *times* estilokoan.

HASTEKO, IDATZ EZAZU adituak bat datozen horretaz. Oro har, hasteko, adituek zalantzazkoa bihurtu ez duten horretaz izan litezke zure lehen hitzak. Aholku atzerakoia dela esango didazu. Agian hala da. Hobeagorik ba al duzu?

Eta, ondoren? –diostazu larri-larri. Hiru kontsiderazio egin ditzakezu: bat, adituen hitza zeure egin eta hortik aurrera jo, hartu horiena zure trenaren errail modura eta aurrera segitu; bi, kritika itzazu adituen hitz horiek bortizki, begetarianoak odolostea bezainbat; eta, hiru, zeure iritzi propioa azaldu. Beraz: musu eman, zalapartan hasi, *edo-eta-ala* bide berriei ekin. Horra bidea.

Aholku bat, laguna. Argi eduki ezazu gauza bat: ezer izatekotan, tradizioa dela iritzia, batetik; eta, bestetik, ikuspuntu berria eta hitzarmena. Idatzi behar dituzun hogeita bost lerro horietan lekua egin beharko diezu horiei hiruei.

Tradizioa. Ez zara martetarra. Zureek zer diote horretaz? Zer idatzi izan dute zureek lehenago horretaz? Izan hori gogoan. Zureentzat idazten duzu; besteek ere irakurriko dizute, jakina.

Ikuspuntu berria. Non dago egia arazo horretan? Zer da argi ikusteko modukoa? Zer da espekulatiboa? Zer da ametsa? Zer iraultza? Pentsa ezazu. Pentsatu.

Hitzarmena. Zure indarrak ez dira nahiko, zure proposamena aurrera ateratzeko; hartara, besteenak ere beharko dituzu. Zertarako idazten duzu, adostasun berriak pizteko ez bada?

Tradizioa, ikuspuntu berria eta hitzarmena. Horra argudioaren ardatzak.

AHOLKUEKIN SEGITUTA, beste gauza bat: *orokorra eta partikularra uztartzen* ikasi beharko duzu zure hogeita bost lerro horietan. Edo, bestela esanda, partikularra eta orokorra. Barkatu; txiste txarra izan da, erraza. Ez nukeen egin behar. Baina egin, egin dut, eta barkatu.

Argudio orotan jauzi bat dago, jauzi kualitatibo bat; eta, ez dagoenean, ez zara ezer egiten ari. Jakina, jauzirako, nonbait hartu beharko duzu arnas aurrera egiteko; batzuetan, orokorra arnastuko duzu partikularra marrazteko, besteetan kontrara egingo duzu, eta partikularretik egingo duzu salto unibertsalera. Baina juizio batek, iritzi batek horixe eskatzen dizu: jauzi egitea, arrisku bat zeure egitea, aurrera jotzeko. Bestela, zertarako idazten duzu?

Deskribapen bat ez da argudio bat. Narrazio bat ez da argudio bat. Ezta albiste bat ere. Batez ere, arrisku bat zureganatzea eta berori azaltzea da argudio bat.

— *Eta, kasualitatez, besteak ez baletoz nirekin bat?* –galdetzen didazu.

Eta, zu zeu? Ez da nahikoa izango hori, baina hasteko moduan gaude, baldin eta idatzi duzunarekin bat bazatoz. Hartara, isiltzekotan, isildu zaitez arrazoirik ez duzunean, ez besteek arrazoia ematen ez dizutenean.

Zure hogeita bost lerro horiek idazteko, transferentzia bat egin beharko duzu. Egin behar duzuna da zentzu-transferentzia bat. Hitz baten zentzu-transferentzia

bat egin beharko duzu. Hitz baten berezko esanguratik bestelako esangura zehaztura, matizatura, zehatzera egingo duzu ihes. Edo amets baten zentzu-transferentzia bat egingo duzu. Edo pentsamendu batena. Edo ikerketa batena.

Bitartean, ahal baldin baduzu, eman historiaren baten aipua, anekdotaren bat, zure irakurleen interesa zureganatzeko. Gai serioa eman dizute, baina irakurleak ez du errurik. Ilustrazio batek asko lagun dezake. Adibide batek asko justifika lezake. Eutsi, ahal duzun bezainbeste, mundu errealarekiko harremana; ez da beti beharrezko, baina ez dago gaizki, hasteko.

ORAIN ARTE ESANDAKOAK betez gero, pozik utziko duzu erredaktore-burua.

Gehiago ikasi nahi baldin baduzu, erdu aurrera. Zeren itsaso zabalean sarea botatzea baita argudioekin janztea kazetarion lana. Ez da prentsaurreko batera joan eta han kontatu dena azaltzea hartzaileari. Kazetaritza-lan duin askoa da hori, ondo egiten denean. Baina harago doan sormen-lan bat egitea da hemen proposatzen zaizuna.

Arrazoiak bilatzea, arrazoiak sortzea da ikasliburu honetan planteatzen zaizuna. Argudiatzea sortzea baita. Argudiatzea asmatzea baita. Tentuz egin behar da hori. Edozein asmakeriak ez du balio. Ez da istorio faltsuak eraikitzea hemen eskatzen zaizuna, gauzen, kausen muina atzematen saiatzea baizik. Hartara, asmatzea zentzu bitan: sortzea eta igartzea.

Erromatar-garaiko erretorika-eskuliburu ospetsuenean idatzi zenez (*Rethorica ad Herennium*, I, II), «Kausa bat gertaerraz edo gertagarria bihurtu dezaketen egiazko nahiz egiantzeko diren argudioak aurkitzea da asmatzea». Ongi asmatzea da kausa bat gertaerraz edo gertagarri egin dezaketen arrazoiak irudimenez sortzea eta lantzea.

Horixe da zure eginbeharra. Handia duzu erronka.

1. Argudio-teoria bere historian

Giza eta gizarte-zientzia gehienetan legez, Argudioaren Teoriak berak ere badauzka bere oinarri-mitoak. Genesi-mito horiek kuriosoak izaten dira zientzia guztietan, eta geurean ez da salbuespenik gertatu. Mitoak mito dira, eta ez hainbeste Historia; nahiz eta zenbait kasutan bata eta bestea identifikatu egiten diren; identifikatu, gainera, halako moldez identifikatzen dira, non mitoak historia hartzen baitu bere baitan, edo, kontrara, historiak bere egiten baitu mitoa. Historiak eta ametsak bat egiten dute orduan; eta hori ere bada ederra, badenez.

Atal honen helburua honako hauxe da: argudioaren mundura hurbiltzea ikuspuntu historikoaz baliatuta; hori, batetik; eta, bestetik, argudioaren funtsa eta oinarri nagusiak zure esku uztea.

Atal honetan, argudioa eta erretorika uztartuko dira; halako moldez uztartu ere, non bata bestearen makulu dela pentsatuko baituzu; eta hala dira, izan. Argudioak erretorikari lagundu diola ikusiko duzu, bai eta alderantzizkoa ere, alegia, erretorika dela argudioaren lagun hurkoa.

Liburuaren beste pasarte askotan legez, atal honetan ere autore klasikoek emango digute aurrera egiteko abiapuntu nagusia.

1.1. ARGUDIOAREN OIHANA

Behin baino gehiagotan esan izan denez, Kristo aurreko bosgarren mendean koka litezke lehen argudio-ariketak gure mendebaldean, Mediterraneo inguru epelean. Edozer azaltzeko unean, joera nabarmena da gure artean eurozentrismoaren gaitza. Baina hain barneratuta daukagunez gaixoa, alferrekoa litzateke horri itzularazi nahi izatea orain; beraz, onar dezagun gure mito eurozentrikoa, eta esan dezagun argudiatzeak duela hogeita bost mende ikusi zuela argia, gure artean.

Mito edo historia zahar horrek dioenez (Plantin, 2002), Siziliak ba omen zeuzkan garai haietan bi tirano. Bertako lurrik onenez jabetu ziren eta beren soldaduen artean banatu zituzten, lurren berezko jabeen interesei eta borondateari muzin eginez. Matxinada batek bukarazi ei zuen tirania hura; lurren jabetza galdua zuten ugazabek erreklamatu zituzten lur horiek, eta epaiketa-prozesu luzeak eta ugariak eragin zituzten. Garai ilun eta zail horietan garatu zuten Korax eta Tisias

lagunek lehen metodo arrazoitua, epaimahai baten aurrean hitz egiteko; horra hor Argudioaren Teoriaren lehen tratatutzat jo izan dena.

Bestalde, Perikles eta Sofoklesen lagun Herodoto historialari grekoak *Historiak* izeneko lanean azaldu izan duenez, Nilok ureztatutako lurraldeetan aurki liteke Argudioaren Teoriaren mito genesikoa. Hark dioenez, argudiatzeak eta geometriak esku beretan ikusi zuten argia, Niloren uholdeen kalteak azaltzeko eta konpontzeko ahalegin erraldoien ildotik.

Batzuetan, argudioen genesi-mito horren bila, oinarrizko mito horren bila, Aristotelesengana itzuli izan dira begiak. Kritiko bezain zalea agertu da maiz Aristoteles argudio- nahiz erretorika-munduekin. Filosofiaren, eztabaidaren, erretorikaren, politikaren eta literaturaren munduak aztertu zituen Traziako filosofoak sarritan. Askorentzat, Argudioaren Teoria ezer ez litzateke Estagirakoaren ekarpena barik.

> Dialektikaren saihets-irudia da erretorika… (zeren biak ala biak) saiatzen baitira, modu batera nahiz bestera, baieztapen bat auzitan jartzen edo horri eusten (Aristoteles, *Erretorika*, 1354a).

Hara, konturatu barik, gure ardurako ezagutzaren lehen definizio moduko batekin egin dugu topo. Aristoteles irakurtzen baduzu, ikusiko duzu harentzat *erretorikak* ematen duela kasu, ardura eta arazo bakoitzean konbentzigarria zer izan daitekeen erabakitzeko ahala. Aldiz, *dialektika* da arazo ororen aurrean arrazonatzea, oinarri onargarrietatik abiatuta beti ere. Arrazoiaren belardian, alderdi bietara ebakiko lukeen *berdingiloaren* aurrean gaude: batera konbentzimendua, eta bestera eztabaida.

Genesia azaltzeko ahalegin hauetan, arduratzen gaituen ezagutzaren definizio landuago moduan, honako esaldi hauek ere gerta dakizkiguke oso interesgarri:

> Erretorikak erabaki batera heltzea igurikatzen duenez (zeren deliberazioetan erabakiak hartzen baitira eta erabaki bat baita epaiketa), beharrezkoa da ez bakarrik arreta jartzea argumentua konbentzigarri eta sinesgarri izan ahal izatean, ezpada norbera nahiz epaile izan litekeena disposizio jakin batean jarri ahal izateko modukoa izatean argudioa bera (Aristoteles, *Erretorika*, 1377b-1378a).

Horrela idatzita, Aristotelesek oinarri sendoa ezarri zuen argudio- eta erretorika-teorien muinak azaltzean. Alegia, Aristotelesek dioena da argudio batek bi bihotz izan behar dituela: batetik, egia; bestetik, begikotasuna, kidetasuna eta sinpatia. Arazoa azaldu behar du egiaren bihotzak, hura interpretatu. Erabakiak hartzen lagundu behar du sinpatiaren bihotzak.

Horrekin batera, genesi hau azaltzean, sarritan, sofistak eurak ere hartu izan dira ahotan; bai eta sofistek eurek ekarritako *antifonia* deitutakoaren giltza diskurtsiboa ere, hots, inoren diskurtsoa *antidiskurtso* bilaka litekeela erakusten duen

bihurrikeria paregabea. Sofistek maisuki erakutsi dutenez, inoren diskurtsoa izan daiteke norberaren diskurtsoari atea irekitzeko bide aproposa. Maisuen antzera landu zuten hori sofistek: Urliak salaketa egin du, hari Sendiak erantzun dio, eta ondoren Urliak berak irauli egiten du Sendiaren erantzuna; horra hor antifoniaren paradigma.

Kritika eta ardura

Dena ez da hostoa, arantza ere izan ohi da-eta arrosetan. Argudioaren historia luzeari erreparatuz gero, sarritan aurkitu izan ditugu erretorika hutsaren aurkako manifestuak. Horretan, handia izan da sofisten zama, altxa-ezina mendetan eta mendetan. Haiei egindako kritikak zipriztindu du behin baino gehiagotan argudioaren mundua, erretorikarena. Argudioak eta erretorikak estigma ezkorra eduki dute Europan denbora luzean. Kritikatua izan da, gogorki sarritan, baina ez da sekula erabat baztertua izan; ezinezkoa baita ekintza humanoa argudio barik, limurketa barik, erretorika barik: horiek gabe, ez legoke ez filosofiarik, ez erlijiorik, ezta politikarik ere.

Kritika asko eta asko arrazoizkoak izan dira. Beste batzuk ez hainbeste, baina kritika, ezer baldin bada, argudioaren beraren berezko aktibitate bat da; beraz, kritikatu duenak argudiatu egin du. Hara ze kontraesan ederra: erretorika eta argudioa salatu, beren bidez horiek berak praktikatuta.

Zentzu eta talentu handiz, argudioa gogorki salatua izan da hitz-hutsen deskripzioan galdu izan denean: arrazonamendu bihurtu nahi izan duelako semantika hutsa dena.

> Mintzatzailearen eta entzulearen artean hitzek ordezkatzen duten ideiei buruz adostasunik ez badago, argudioa gauzei buruz barik hitzei buruz da (Locke, *Giza adimenari buruzko entseiua*, 135).

Baina semantika bera ere bada pentsamendua, ez forma hutsa; hain estu hartu beharrik ez dago. Definizioaren eskutik, argudiatzen lagun lezake semantikak berak ere.

Kritikak kritika eta alabantzak alabantza, argudioak badu zerbait hilezkorretik eta unibertsaletik. Batetik, argudioak denbora transgreditu nahi izaten du, gaurko pentsamendua bihar ere baliagarri izan dadin; hilezkorra izan gura du. Eta, bestetik, jardun mintzatu edo idatzi orotan legez, argudioaz baliatzen den hizlaria beti saiatzen da bere diskurtsoa, batetik, eragingarri eta baliagarri izan dadin, eta, bestetik, arrakastatsua izan dadin han eta hemen. Horra bere helburu unibertsala.

> Misiolariak herri basatiekin mintzatu eta horiek konbentzitu ahal izan dituzte; hori ezin da gertatu arrazoimen eta argudiorik gabe (Gottfried Herder, *Hizkuntzaren jatorriari buruzko tratatua*, 102).

Pentsamendu-ekintza handia da argudiatzea. Horrela onartu beharko genuke. Argudioak mendiak eta basoak mugi ditzake. Ezpatak beste, mundua bera aldatzen lagundu izan du argudioak. Hala ere, bizi dugun abagunean, badirudi hitza baztertua izan dela eta nahiago dela altzairua konfliktoak garbitzeko. Ezberdintasunaren kudeaketan motz eta labur agertzen ari da mundu hiper-modernoa. Agian, hori aldatzen ahalegindu beharko genuke.

Arazoa ez da berria, klasiko erromatarrek eurek ere gogor salatu zituzten hitzaren bazterketa eta ezpataren adorazioa:

> Itolarria iruditzen zait Estatuak ez behar izatea ez arrazoiaren armarik, ez jeinurik, ezta sona pertsonalik ere (Zizeron, *Bruto*, II, 7).

Orduko inperioek eta modernoagoek joera nabarmena dute ezpataren alde, eta ez hainbeste hitzaren alde. Lehen eta orain, txakurrak ortozik. Erraz egiaztatzeko moduko egia da zenbat eta handiago izan inor eta ezer, are joera *naturalagoa* duela hitza ahazteko. Ahaztura hori ez da lotzen bakarrik erakunde eta erkidego handiei, gaixotasun hori uste baino unibertsalagoa da, pandemia bihurtzen ari baita, zoritxarrez. Alda dezagun hori.

1.2. ARGUDIOA: DEFINIZIOA ETA OINARRIAK

Hizketaren ekintza jakin eta espezifiko moduan ulertzen dugu argudiatzea; bertan, norberaren buruaren aurrean nahiz besteren aurrean justifikatu gura izaten da iritzi bat, sinesmen bat edo ekintza bat. Argudioak enuntziatu edo premisa zenbait aurkezten ditu, ondorio baten arrazoiak azaltzeko (Miranda, 2002). Horra definizio baterako zenbait oinarri.

Argudiatzen duen pertsona batek ez du soil-soilik pentsatzen duena esaten; argudiatzen duenak besterengan sortu nahi du berak postulatzen duen enuntziatuaren aldeko konbentzimendua.

Ondorio bat oinarritzeko, laguntzeko eta indartzeko zenbait arrazoi edo froga ematea da argudio bat eskaintzea (Weston, 2004). Beraz, iritziak arrazoiekin indartzeko ahalegina da argudiatzea.

Argudioak bide ematen du iritziak azaltzeko, bai eta iritziak sortzeko ere, zeren argudioaren bideak modua eskaintzen baitu gaiak sakon aztertzeko, posizio desberdinak ikusteko, norberaren arrazoiak indartzeko nahiz aldatzeko, eta posizio horiek guztiak berrikusteko. Tradizionalki, erretorikaren sistemaren baitan aztertu izan da argudiatzea; horren baitan, lan-tresna bikoitza izan da argudioa: pentsatzeko eta azaltzeko (Plantin, 2002).

Argudio-diskurtsoak hiru ardatz edo faktore hartu ohi ditu gogoan, jada autore klasikoek argi utzi izan duten moduan eta kazetariontzat ezaguna zaigun gisan:

> Diskurtsoan hiru faktorek egiten dute bat: nork hitz egiten duen, zertaz egiten duen eta norentzat ari den; eta azken hori, alegia entzulea, horixe da helburua determinatzen duena (Aristoteles, *Erretorika*, 1358b).

Esan dezagun ezen argudiatzeak baduela *aurpegi kognitibo* garrantzitsu bat. Zerbait azaltzeko, zerbait argitzeko, arazoaren muina ezagutu behar da lehenago, hura ikertu eta ikasi. Hortik dator argudiatzearen *aurpegi ezagutzailea* edo kognitiboa.

Argudiatzeak badu *aurpegi intuitibo* bat ere. Oro har, logika ezarri nahi izaten du diskurtsoan argudiatzen duenak, bere pentsamendua gidatu nahi izateaz gain, besterena ere zuzendu nahi izaten baitu argudiatzen duenak. Baina, askotan, zein mundutan barneratzen garen ondo ez dakigunez, indizioekin eta intuizioekin jokatzen hasi behar izaten dugu, argitasun erabatekoa gutxitan izaten baita diskurtsoak argudioa behar izaten duenean, dilemetan eta abarretan, esate baterako. Era berean, gaia eta tesia azaltzean, balizko erakargarritasunaren izenean, sedukzioari segitu nahi izaten dio hizlariak argudiatzean, eta hori ere, sarritan, intuitiboa da oso.

Jakina, bere aurpegien artean, argudiatzeak badu *aurpegi dinamiko* bat. Argudioa ez da ezer irmoa, lehorra eta zimela. Bere burua moldatzen eta egokitzen daki argudioak. Argumentatu, alternatiben aukera ikusten denean argumentatzen da. Hautua egin behar izaten denean argumentatzen da. Irteera bakarra dagoenean, argudioaren indarra bigarren mailakoa da: ebidentziak jaten baitio arnasa argudioari.

Bestalde, *aurpegi tolerante* bat ere erantsi behar zaio argudiatzeari. Argumentatze-lanetan, ohikoa izan beharko litzateke pentsatzea iritzi guztiak ez direla bat etorriko, arazoak irteera asko dituelako, hain zuzen ere. Ikuspuntuen aniztasunak tolerantzia indartzen du, nahiz eta printzipioz inork ez lukeen zertan etsi behar bere sinesmenetan. Argudio-lanetan, ohikoa da aurkaria konbentzitu gura izatea; baina konbentzitu, eta ez hainbeste limurtu edo derrigortu.

Ildo horretatik, *kontsentsu-aurpegia* errebindikatzen du argudiatze-ekintzak, iritzi-desberdintasunak gainditu ahal izatea bilatzen duen heinean.

Hala ere, *disentsu-aurpegia* ere gara lezake argudiatzeak, argudioak iritzi salatzailea sortzea bila bailezake, beste barik; eta hori ere ona da, badenez.

Tamalez, ezin da ahaztu ezen, zenbait kasutan, argudiatzeak baduela *indarrezko aurpegi* ezkutu bat. Argudioak indar-harreman bat gorde dezake bere baitan, indar-harreman hura itxuraldatu egin dezake. Indar hertsatzailea gorde dezake argudioak bere jantzi erretorikoen azpian. Ez ahaztu hori.

Laburbilduz, guretzat, hemen eta orain, pentsamendu- eta inferentzia-ariketa da argudio bat eraikitzea. Argudioaren txanponak aurpegi bi dauzka; *leon-kastillo* moduko baten aurrean gaude, beraz. Batetik, oro har ongi babestutako oinarri argi

bat du argudioak: enuntziatua. Enuntziatu hori ondo ezarria izan ohi da, entzuleek arazo barik onartutakoa izaten baita, eta, abiapuntu moduan, balio izaten digu. Bestetik, dudazkoa izaterainoko erantzun bat du argudioak: ondorioa. Hara, bada, aurpegi biak.

Argudioaren osagaiak

Gure iritziak nahiz ekintzak justifikatzeko, bai eta horiei buruzko adostasunak lortzeko ere eraikitzen eta aurkezten ditugun diskurtsoak dira argudioak. Argudiatzeak bere erregelak dauzka, bere arauak, eta horiek determinatzen dute argudioaren egitura logikoa. Abiapuntu moduan esan daiteke ezen argudio batek lau oinarrizko zutabe dauzkala. Hona:

Tesia

Horixe da giltza, pentsamenduaren muina. Zer da benetan eztabaidatzen ari garena? Zein da dena delako gaiaren abiapuntua? Eta horren aurrean zein da gure jarrera? Modu praktikoan, tesia zehazten eta aurkezten lagunduko digute galdera horien erantzunek.

Arrazoiak

Tesia zein den argitu ostean, kontsideratu beharko da zein den horren azpian dagoen oinarrizko zioa. Arrazoiaren atal honetan, informazioa da giltza. Arrazoi horiek dira tesiari eusten dioten apalategiak.

Sinesgarritasuna

Argudio zuzenak eraikitzeko unean, ez dago adarretatik ibili beharrik, ezta adarra jotzerik ere. Eskaintzen ditugun arrazoiek *benetakoak* izan behar dute, ez dute zertan arinak ezta azalekoak ere izan. Sinesgarritasunak zabaltzen du konbentzimenduaren lehen leihoa.

Bermea

Segurua al da proposatzen dena? Balizko helbururantz abiatzeko modurik egokiena al da diskurtsoak proposatutakoa? Ba al dago proposatzen diren iritzi eta jarduera horiek blindatzeko arrazoirik, informaziorik edo bestelako berme eztabaidaezinik? Argudioa biribiltzeko beharrezkoa dugun urratsa da bermeak eskaintzea. Inor konbentzitzeko, bermea behar du argudio-lanak.

1.3. ARGUDIOA ETA ERRETORIKA

Esan dezagun ezen erretorika eta argudioa enbor bereko ezpalak direla eta *egia*rekin gorde ohi duten harremanaren arabera izan direla hobetsiak ala gaitzetsiak gure artean, denbora luzez gainera. Alegia, zer diren begiratu ordez, zer eragin izan dezaketen begiratu izan da normalean, eta horren arabera onetsi izan dira, eta, inoiz, baita kondenatu ere (Perelman & Olbrechts-Tyteca, 1989). Baina bada garaia horiek biak, argudioa eta erretorika, zientzia gisa aztertzen hasteko; saia gaitezen horretan, bada.

Egiak berak bere oinarrietako bat eztabaidan har dezakeela uste dutenentzat argi dago ezen erretorika, espresiobide izateaz gain, beste zerbait ere badela. Ildo horretatik, estilistika hutsak azal dezakeena baino zerbait gehiago ere izan liteke erretorika: arrazoia eraikitzeko erreminta egokia, zeren, azalaz gain, mamia ere aurkitzen baitugu erretorikaren muinetan.

Zenbait autorek salatu dutenez, sarritan identifikatu izan da erretorika tropoak ikastearekin, alegia, hitz egiteko estilo handiustekoarekin, esanez hizkuntzaren erabilpen hutsa baino ez dela. Hori dela eta, urtetan, erretorikak zentzu ezkorra irabazi izan du; batez ere filosofiatik apartatua izan den heinean, zeren pentsamendua garatzeko ezintasuna egozten baitzitzaion. Baina bere barrenean, bere izatemuinetan, erretorika zerbait baldin bada, filosofiari laguntzeko, pentsamenduari laguntzeko tresna da; kontraesanak kontraesan, aspektu horretatik interesatzen zaigu erretorika guri, kazetarioi, zeren erretorikaz baliatuko baikara argudioak lantzeko.

Ziria sartu gabe, konbentzitzeko artea; horixe behar du izan erretorikaren muinak. Argudioaren eta erretorikaren mundu honetan, gure mundu partikular honetan, *konbentzitu* adiera erabiltzen dugu azpimarratzeko norbaitek gure postulaturen baten egia bere egin duela. Aldiz, *limurtu* adiera erabiltzen dugu norbait ekintza bat egitera animatzen denean. Konbentzimenduaren aldeko apustua egiten da testu honetan. Lan dezagun konbentzimendua, deontologia profesionala zainduz.

Mendetan sarritan baztertuak eta mespretxatuak izan ondoren, erretorikaren eta argumentazioaren eskola modernoagoek artifizio literarioa izatetik erreskatatu nahi dituzte diziplina horiek biak, eta pentsamenduaren mundura hurbildu berriro ere.

Gu geu, eskola moderno horiekin batera, frogapen logikoaren eta balizkotasun dialogikoaren arteko zubira abiatzen gara, argumentazioaren aldeko hautua eginez. Filosofiaren esparruetara hurbildu nahi dugu erretorika, argumentatzeko gura dugu erretorika. Eta argumentua landu nahi dugu gure testuak hobetzeko, indartzeko eta blindatzeko.

Jakina da: ez da argumentatzen ebidentziaren aurka, ez du konturik. Dena, ordea, ez da *zientifikoki* frogagarria. Ezagutzaren objektua ebidentea ez den kasu horietan, eztabaida behar dugu, eta frogapen analitikoei froga dialektikoak gehitu beharko zaizkie, ezagutzaren munduan aurrera egin ahal izateko. Hor kokatu behar dugu gure lan argumentatzailea.

Ez. Ez zaio inori eskatu behar egun argitan gaua dela frogatzea. Denboragaltze batean erortzeko arriskua besterik ez da hor. Ebidentziaren aurka borrokatzeak ez du zentzurik. Baina, egun izanik ere eguna, ordu orotan ez du argitasun bera. Egunsentia ez da goiza. Goiza ez da eguerdia. Ezta eguerdia arratsa ere. Edo arratsa ilunabarra.

Guretzat, kazetariontzat, komunikatzaileontzat, diskurtsoa eraikitzeko eta antolatzeko modu bat da argumentazioa; ikuspuntu horretatik begiratuta, lan-tresna diskurtsibo bat da, beste batzuen arteko bat. Helburu eta jomuga argia du diskurtso-eredu argumentatuak: geurea bezala, besteen iritzia.

Eztabaida-gune eta gatazka-guneetan da batez ere baliagarria argumentazioa. Bizitza publikoan nahiz pribatuan, bai ezarpena, bai jazarpena eta bai bortxa baztertzeko ere lan-tresna egokia izan daiteke argumentazioa; batez ere, adostasunik ez dagoenean, adostasunik eza salatzeko, gabezia horren irtenbideak lantzeko, edo, egonik ere irtenbide modukoren bat, hori justua ez baldin bada, ustezko adostasun hori edo adostasun faltsu hori bera zalantzan jartzeko.

Nola bizitza pribatuan hala publikoan, bizi ohi ditugun jardun argumentatuak ugariak dira:

– esparru hurbileko giza harremanetan (eguneroko eztabaidetan, lan-elkarrizketetan…) aurrez pentsatutako eta egituratutako diskurtsoa eta hizkuntza-maila erabiltzen ditugu, konturatuta nahiz konturatu barik;

– talde- eta gizarte-mailako egoerak (iritzi-artikuluak, iragarkiak, manifestuak, mahai-inguruak…) aurretik pentsatuak diren diskurtsoak sozializatzeko aukera onak dira;

– egoera espezifiko eta teknikoek (txosten juridikoak, zientifikoak, ikerketa-artikuluak…) hizkera berezia eskatzen dute beti, eta argudio-bilgune izaten dira;

– akademian bertan ere (azterketa-garaian, eskola-txostenetan…) gai baten inguruko tesiak jostea eskatzen da.

Bizitza modernoan, edozein gairen aurrean, argumentatzea ezinbestekoa da. Giza pentsaeraren oinarria izanik, argumentazioa ikasi eta praktikatu beharreko teknika-multzoa da kazetarientzat.

Argudioa eta erretorika kazetaritzan

Ez da sekretu bat esatea Argudioaren Teoriak diskurtsoaren baliabideak aztertzea bilatzen duela, mezuak eraginkorragoak izan daitezen.

Erretorika eta testu argudiatua modu indartsuan sartu dira produktu mediatu modernoenetan, batez ere XX. mendearen bigarren erdialdetik aurrera. Publizitatea eta iritzi-testuak dira erretorikaren eta argumentazioaren xurgatzailerik handienak. Giltza erabakigarriak dira erretorika eta argudioa gure lanean.

Komunikazio-arte bat da erretorika: aurkaria diskurtsoaren bidez konbentzitzea bilatzen duen artea, hain zuzen ere. Diskurtso bati beste diskurtso baten bidez aurre egitea eskatzen du argumentazio logikoak; hala ere, inoiz ekintza bati erantzun beharko zaio diskurtso batekin, inoiz paradoxa bati, zeren kasuistika zabala baita. Argudioak lantzea eta erretorikan trebatzea ardatz handiak dira gure profesioan.

Gaur egun, bizitza publikoa era guztietako diskurtsoek gidatua da, testuak ezpata baztertzen duenean behinik behin. Diskurtsoa arma publiko eta politiko indartsua da. Argudio batek (inoiz ekintza batek edo paradoxa batek) eraiki duen mundua beste argudio baten bidez desegitea eskatzen du argumentazioaren logikak, nahiz eta jakin badakigun ezen ekintza bati beste ekintza batekin erantzun dakiokeela; baina hori ez da kazetaritza-diskurtsoaren esparrukoa, jakina.

Arrazoiak, zioak, tesiak eta iritziak ematen ditu erretorika argumentatuak, helburu argi batekin eman ere: ikusten ez duen zerbait azaltzea hartzaileari edo ekintzaren bat nahiz ekintza batzuk burutzera gonbidatzea, azkenean zerbait sinetsarazteko (iritzia edo fedea, berria zein zaharra). Erretorika argumentatuaren azken helburua hartzailearen iritzian eragitea da, eragitea hartzailearen iritziak aldatzeko, nahiz indartzeko, edo hartzailearen ekinbideak gidatzeko.

Indarraren arrazoia guztien gainetik jarria diguten honetan, gizarte-komunikazioaren esparruan, inoiz baino garrantzitsuagoa da *arrazoiaren indarrarekin* bat egitea. Nola informazioak hala desinformazioak osatzen dutenean gizarte-komunikazioaren paradigma, ez dago ebidentzia hutsez ibiltzerik. Usurpatzen den informazioaren aurrean, justiziaren izenean eta ongizatearen kausaz, arrazoiaren gainean eraikitako kazetaritza inoiz baino beharrezkoagoa da. Itxuraren unibertsoan, inoiz baino beharrezkoagoa dugu arrazoia.

1.4. ARGUDIOAREN INDARRA AUTORE KLASIKOETAN

Nonbaitetik hasi behar da. Genesi-mitoek lagundu beharko digute. Kontatu ditugu horietako batzuk lehenago. Argumentu modernoak argudio klasikoetan du oinarria. Argudio modernoak argumentu klasikoaren barne-sukarra egin ohi du bere.

Grezia klasikoko autoreek eurek salatu izan ohi zuten modu berean, gaur egungo testu mediatuetan ere erretorika-eredu desberdinak erabiltzen direla ohartu beharko litzateke, eta, bide batez, salatu testu horien arteko asjkok ez dutela, eduki, ez giza ezta gizarte-baliorik ere.

Behinolako terminologia gure egunetara egokituz, hedabideetako testuei gagozkielarik, batetik, *erretorika argumentatiboaz* hitz egin liteke (alegia, bere jarduna bai ezagutzan, bai zientzian eta bai justizian oinarritzen duen erretorika-eredua); eta, bestetik, *erretorika hutsa* dei geniezaiokeenaz (hots, aieruzko sinesmenetan oinarritutako erretorika-eredu bihurria).

Erretorikak alderdi onak nahiz txarrak ditu. Autore askoren ahotan aurki litezke nola argudio funtsatuak hala hutsalak direnak ere.

Erretorikaren aldekoak nola, haren aurkakoak aurki litezke produktu mediatuei so, eta hori horrela izan da letren historia luzean. Eta katea ez da eten. Hona hemen historiara igaro den adibide klasiko bat, erretorikaren eredu bien arteko eztabaida hori ilustra lezakeena.

Platonek idatzitakoaren arabera, Sokratesek gogor kritikatu ohi zuen erretorika bihurria (hutsa, aieruzko sinesmenen gainean eraikitakoa), honetara hitz eginez (Platon, *Gorgias*, 454e, 455a):

> Sokrate-k: Nai aal duzu sinistarazpen bi era ezar ditzagun, batak iakiterik gabeko sinestea eta besteak iakitea dakarkitena?
>
> Gorgia-k: Erabat.
>
> Sokrate-k: Auzitegi ta beste erri-batzarretan zuzenbideaz eta zuzengabeaz sinistarazpenik eragiten ote du erretorikak? Bertatik iakiterik gabeko sinestea, ala, iakitea gertatzen aal da?
>
> Gorgia-k: Ezagun da, nonbait, Sokrate, bertatik sinestea gertatzen dena.
>
> Sokrate-k: Beraz, erretorika, dirudienez, ustezko sinistarazpenaren eragile da, ez baina irakastezko sinistarazpearen eragile, zuzenari eta zuzengabeari buruz.
>
> Gorgia-k: Bai.

Sokratesek oso modu kritikoan hitz egiten du elkarrizketa horretan erretorikaz: haren ustez, erretorikak aieruzko sinesmen hutsetan du oinarria, eta alde batera uzten ditu bai benetako ezagutza, bai onaren nahiz txarraren arteko eztabaida etikoa bera ere. Platonen idatzietan, Sokratesek erretorika bihurria kritikatzen du, haren hutsalkeria dela eta.

Jakina denez, Sokratesek bere buruaz beste egin zuen astaperrexil pozoia edanda, 399ko martxoan. Heriotzara kondenatua izan aurretik, epaileen aurrean bere buruaren defentsan zihardueneen, gogor kritikatu zituen gezurra eta hitzak

erdizka erabiltzea, erretorika hutsalak eta gaiztoak bere bizitza bera jokoan jarri baitzuten:

> Nire salatarien eraginez zuek zer sentitu duzuen, jaun atenastarrak, ez dakit; ni neu ordea ia neure buruaz ahaztu naiz haien eraginez, hain konbentzigarri hitz egiten zuten eta. Hala ere, horrela esateko, ezer egiazkorik behintzat ez dute esan (Platon, *Sokratesen defentsa*, st. I, p. 17, a).

Oro har, aipu horien arabera, Sokrates oso kritikoa izan da erretorikarekin, artifizioa besterik ez den heinean. Erretorika bihurri horretara baino, Sokratesek gehiago jo zuen ironiara. Sokratesek behin eta berriro esan ei zuen berak *ezer ez zekiela*. Baina, jakintsu batena da ezjakintasun hori, badakigu. Bere aurkari bat baino gehiago sumindu omen zuen jarrera horrek. Zakar eta mingotsa izan zen sarritan Sokrates erretorika hutsalaren aurka, etsai amorratuak harri azpietatik pizteraino.

Aristotelesen irakurketan, Azurmendik (1999) dioenez, Sokrates etikaz arduratu zen, luze arduratu ere; eta bere lanetan unibertsala bilatu zuen: definizioa; zehaztasuna, zehaztasun erabilgarria. Ez artifizioa eta hitz hutsa. Argudio garbiaren aldeko apustua da Sokratesena.

Sokratesek galdera zuhurra eta erantzun laburra landu zituen bere filosofiaren eraikuntza-lanetan. Hasi, hasten zen iritzi batetik, premisa legez (behin behineko definizio batetik); eta, hori kasuz kasu edo hipotesiz hipotesi erabakitzen joan ondoren, konklusio bat erdiestea maite zuen, honela gutxi gora behera: *hori horrela baldin bada, orduan hau honela da, eta beraz...* Konkretutik eta singularretik *unibertsalera* iristeko bidea da indukzioa, Sokratesen eskuetan. Sokrates, bestalde, gauzak nolakoak diren jakitearekin barik, horrela zergatik eta zertarako diren aztertzearekin egon zen arduraturik. Arrazoiak nahi omen zituen, ez hitz hutsak. Badugu, beraz, nondik ikasia kazetariok.

Bere testuetan, nahiz Sokratesen ahotan jarritakoetan, Platon bera ere oso da kritikoa erretorika hutsarekin, eta baditu bere arrazoiak. Atenasen ezagutu zuen erretorika, eta mingarria zitzaion Platoni, zeren haren garaiko erretorikak populuaren baiespen hutsa baino ez baitzuen bilatzen gai baten edo bestearen inguruan. Platon filosofoak ezin zuen onartu egiatik aparta zitezkeen argudioek jendea txunditzea. Era berean, erretorikaren zaleek ezin zuten eraman Platonen kritika, erretorika *demagogia* besterik ez zela zioen eta.

Nolanahi ere, ezin da esan autore klasikoetan erretorikaren kritika erabatekorik izan denik. Ñabarduretarako bidea beti izan da, Aristotelesek berak behin idatzi zuenez:

> Erretorika ona da, erabilgarria, zeren izatez egia eta justizia beren aurkariak baino indartsuagoak baitira (Aristoteles, *Erretorika*, 1355a-1355b).

Edonola ere, ez dezagun ahaztu Aristoteles bera ere kritiko azaldu dela behin baino gehiagotan erretorikarekin, limurtzea besterik ez duela bilatzen salatzerakoan; ezina, ezinezko:

> Izan ere, agerian dago limurtzeaz baliatzen den matematikoa ontzat hartzea eta erretoriko bati frogapenak eskatzea antzekoak izan litezkeela (Aristoteles, *Nikomakorentzako etika*, 1094b = I, 3).

Batez ere, eszeptiko agertzen da hor goian Aristoteles, balizko ezinezko bat eskatzen baitio testuan erretorikari. Ildo horretatik, liburu horretan bertan, beste pasarte batean, honela dihardu erretorikaz:

> Agerikoa da politikan jarduten duten sofistak ahalmen politikoa irakastetik urrun daudela, orokorrean ez baitakite nolakoa eta zeri buruzkoa den; izan ere, jakingo balute, ez lukete esango politika eta erretorika gauza bera direnik, ezta politika erretorika baino gutxiago denik ere, eta ez lukete pentsatuko legeak egitea erraza denik (Aristoteles, *Nikomakorentzako etika*, 1181a = X, 9).

Egiatik eta justiziatik apartatzen den testu erretorikoa baztergarria da Aristotelesentzat. Autore horrentzat, metafisika eta zientziak omen daude ezagutzaren gailurrean, haren morroi da dialektika (iritzien trukaketa eta argumentazioa), eta beheragoko maila batean legoke erretorika, entzuleak pertsuaditzeko ahaleginean.

Platonen tesi gordinetatik harago, Aristotelesek zioen publikoaren adostasuna lortzen dela, oro har, jendea ikusten hasten denean hizlaria azaltzen ari dena eta frogatzen ari dena gauza bera direla. Ikuspuntu horretatik, filosofo horrentzat bai erretorika, bai konbentzimendua eta bai frogapena ehun bereko hariak dira. Horrenbestez, erretorikoa ez da gezurretan ari den inor, ezpada proposamen batzuen ontasunaz publikoa konbentzi lezakeen pertsona. Zenbat eta argiago izan hizlaria, orduan eta gardenagoak izango dira bere tesiak publikoarentzat.

Hartara, argi dago badagoela Aristotelesen filosofia-esparru zabalaren baitan tarte duin eta interesgarri bat erretorikarentzat eta argudioarentzat: kausa baten aurrean, aukera egokienaz, zuhurrenaz edo onenaz konbentzi bailezake publikoa hizlariak, frogapena eta argumentazioa bultzatzen dituen heinean.

Ezin zaio erretorikari leporatu erretorikaren bizioaren mina; erretorika ez da txarra, haren erabilera txarra egin litekeelako edo egin izan delako. Botika bat ez da baztertu behar haren erabilera desegokia izan daitekeelako.

Aristotelesen *Erretorika*

Traziako Estagira-n jaio zen Aristoteles, 384. urtean Kristo aurretik; eta, 322ean hil, Eubeako Kaltzide-n. Filosofo handi horren lan idatzia hiru multzo nagusitan banatu ohi da: dibulgazio-lanak (elkarrizketa moduan idatziak, gehienbat), eskuliburu tankerakoak (Lizeoko bere ikasleentzako materiala), eta bere tratatu filosofiko eta zientifiko nagusiak.

Erretorika lana, gure eskuetara heldu den moduan, ez ei da une bakar batean, dena segituan, hasi eta amaitu, idatzitako lana (Bernabé, 2002). Antza denez, bost bat urtetan zehar sortutako materialak biltzen dira lan horretan, eta bertara ekarriak izan dira filosofoaren pentsamenduak argudioei, dialektikari eta erretorikari buruz.

Erretorika bera, hiru liburukitan dago banaturik. Lehen liburukian, erretorikaren definizioa eta haren aplikazio-eremua eskaintzen ditu Aristotelesek. Hiru diskurtso mota ezaugarritzen ditu: deliberazio-diskurtsoa (erkidegoarentzat onuragarriak izan litezkeen erabaki publikoei buruzkoak), salaketa- nahiz defentsa-diskurtsoak (iraganeko gauzei buruz, batez ere epaitegietakoak), eta diskurtso epidiktikoak (azalpen-diskurtsoak dira horiek, ez da eskatzen entzuleen erabakirik). Lehen liburukian, era berean, Aristotelesek argitzen du zertan delibera daitekeen eta zelan egin behar den hori.

Bigarren liburukia hasten da hizlariari buruzko irizpideak ematen: batez ere, nola lortu behar duen sinesgarri izatea auditorioaren aurrean. Aristotelesen hitzetan, hizlariaren sinesgarritasuna honako honetan oinarritzen da: hizlaria zuhur eta neurritsu izatean; era berean, zintzoa, zuzena eta borondate onekoa izatea eskatzen zaio. Liburuki honetan, filosofo greziarrak entzuleen balizko sentipenak sailkatzen eta ezaugarritzen ditu; besteak beste hira, naretasuna, maitasuna, gorrotoa, beldurra, kemena eta lotsa. Horrekin batera, balizkoa eta ezinezkoa aztertzen ditu, bai eta arrazoiak, entimemak, sententziak eta topikoak ere. Bete-betea da liburukia.

Hirugarren liburukian, argudioen forma aztertzen du. Ildo horretatik, Aristotelesek aztertzen ditu eszenaren antolaketa, espresio-bideak eta hizkuntzaren erabilera. Diskurtso batek izan litzakeen atalez arduratzen da, eta izendatzen ditu aitzinsolasa, analisia, demostrazioa eta ondorioa. Hirugarren liburuki horretan, metaforaz, hiperboleaz, hitz-jokoez eta emozioez dihardu; hitz batez, azalpen-baliabideez.

Aristoteles: *ethos, pathos* eta *logos*

Konbentzimenduaren eta pertsuasioaren diskurtsoaz ari garela, Aristotelesek hiru ardatz nagusitan ezarri zuen bere ardura, eta oso dira kontuan hartzekoak hirurak. *Ethos*, *pathos* eta *logos* hirukiak biltzen ditu hiru ardatz horiek. *Ethos*, edo komunikatzailearen ezaugarrietan oinarritutako pertsuasio-eredua; *pathos*, edo mezuaren alderdi emozionalaren lanketa berezitua; *logos*, edo mezuaren argumentazio logikoa edo arrazionala.

Aristotelesen lanetan irakur daitekeenez, komunikatzaile batek lituzkeen lantresna pertsuasibo garrantzitsuenetatik berebizikoena da izaera, eta hori oinarrioinarrizkoa da, oso kontuan hartzeko modukoa. Diskurtsoaren arrakasta pertsuasiboan, arrazoiaren indarra bezain erabakigarri gertatu ohi dira bestelako tresna ezlogikoak: nola iturriaren beraren ezaugarri berezkoak azpimarratzen dituztenak, hala komunikazio-prozesuetan gara litezkeen lokarri sentimentalak berak ere. Horretan, bere distiraz dihardu hizlariak.

Iturriaren sinesgarritasunaren eta edertasunaren eskutik letozkeenak ditugu *ethos*-en eta *pathos*-en egungo irakurketaren baitan koka litezkeen estrategia nagusiak. Ikuspuntu horretatik, komunikatzaileak berak atzemandako esperientzia oso da interesekoa. Oso erabakigarria da komunikatzaileak bere inguruan sor lezakeen konfiantza-giroa (horren adibidetzat har litezke korrespontsalak, euren sinadurarekin bermatzen baitute hedabideak aireratzen duena). Era berean, iturriaren gizarte-estatusak edo prestigioak sinesgarritasuna lantzen laguntzen du. Eta, jakina, kanpaina luzeek eurek ere aparteko sinesgarritasuna aitortzen diote komunikatzaileari berari: zenbat eta denbora gehiago iraun telebista-pantailetan, orduan eta sinesgarritasun handiagoa aitortzen dio publiko zabalak esatariari.

Esan ohi da iturri erakargarriak mezu erakargarria sortzen duela. Beraz, iturriaren ezaugarri giltzarrien artean, itxura bera ere bada kontuan hartzeko elementu bat. Giltzarria da iturria etxekoa izatea, ezaguna, herrikoa; bai eta bere jarduera hartzailearekiko familiarra izatea ere. Eta, iturri horren erakargarritasun fisikoa eta ospea ez dira baztertu beharreko ezaugarriak, pertsuasioaren munduan. Emozioaren argumentazioaren oinarria dira *ethos* eta *pathos*, bai erretorika klasikoan, bai eta gaur ere.

Argumentazioa, logika eta arrazoia dira mezu arrakastatsuaren beste oinarri garrantzitsu bat, erretorika klasikoan nahiz egungo diskurtso publikoetan.

Emozioaren indarraz hitz egiterakoan, lilura da erakargarritasunaren giltza. Ez da asko pentsatu behar. Lilurak berehala harrapatzen zaitu. Erakargarritasunaren paradigma da lilura. Itsututa gelditzen da hartzailea hainbesteko distiraren aurrean. Ilusioaren indarra da emozioaren oinarrian dagoena.

Mezu arrazoitua bestelakoa izan daiteke. Egungo testuinguru politikoan, arlo emozionalekoak izan litezke banderak, kantuak, ikurrak, haserrea eta gorespena. Arlo arrazionalekoak dira azalpena, ekuanimitatea eta lasaitasun argumentatiboa. Horra *logos*-a.

Edozelan ere, gutxi dira lan-tresna diskurtsibo bakarra erabiltzen duten mezuak. Ohikoa da mezu berean apelazio emozionalak eta arrazionalak aurkitzea, diskurtso-arlo edo atal ahulik ez uzteko. Eta ohikoa da, halaber, mezua antzezterakoan igorle nagusiaren karakterizazioa oso kontuan hartzea.

Ethos, *pathos* eta *logos* elkarren osagarri direla esan liteke, elkarrekin lantzen diren tresna diskurtsiboak, elkarren beharra dutenak, hain zuzen ere. Arrazoian oinarritutako mezurik onena ere ez da arrakastatsua izango komunikatzaile desegoki baten eskuetan. Diskurtsoan, arrazoiaren indarra bezain ezinbestekoak dira bai protagonistaren karakterizazioa, bai eta agertokiaren *atrezzoa* ere.

Erretorika eta eztabaida politikoa

Jakina denez, *erretorika* izan da Grezia klasikoaren ezaugarri aipatuenetako bat: ez dago mundu klasikoa ulertzerik eztabaidarik gabe, diskurtsorik gabe eta argudiorik gabe.

Balizko gizaki libreen hirian, ekintza politikorako lan-tresna baliotsua da berba.

Beti pentsatu da eztabaida klasikoa zela, Grezia klasikoan, balizko demokrazia ulertzeko irizpideen azpiko oinarrizkoenetako bat. Gizakiaren hitz egiteko gaitasunak, *polis* delakoaren baitan sortutako gatazkak bideratzeko modu bat eskaini zien greziarrei. Alderdi horretatik begiratuta, eztabaidak eta argumentazioak badute jarduera diktatorialak eta tiranikoak ez duten zerbait: konbentzimendurako ateak irekitzearen ahala. Ohi denez, egoera diktatorialek erretorikaren eta argumentazioaren gainbehera ekarri ohi dute. Demokrazia ezinbesteko bat da argumentazioaren garapenerako; tiranoak ez du elokuentziaren beharrik.

Aristotelesen hitzak erabilita, esan dezakegu ezen gizartea eta erkidegoa, ezer izatekotan, direla desberdinen arteko hitzarmena. Horien interesak biltzeko eta antolatzeko, hitza derrigorrezko abiapuntua da demokrazia-egoeretan. Argudioa erreminta aproposa da polis-hiriaren eztabaida bideratzeko.

Jakina, erretorika klasikoak, demokraziaren eskakizuna bere egiten duen arren, badu barne-kontraesan bat: euren biziraupen ekonomikoa bermaturik dutenentzako luxu esklusibo bat dela erretorika Grezia klasikoan. Grezia klasiko horretan, argudiatu, klase bakar batzuek baino ez dute argudiatu. Historiara horixe besterik ez da igaro behintzat.

Gutxitan hurbilduko da gehiago erretorika bizitza errealera, eztabaida politikoan baino. Demokrazia modernoaren atributu sozialik garrantzitsuenetakoak dira konbentzimendua eta mobilizazioa. Arlo horretan, kazetarien esku-hartzea ezinbestekoa da. Diskurtso politikoan, nahiz eztabaida politiko mediatuan, hiru polemika motari buruz hitz egin ohi da: diskusioa, disputa eta kontrobertsia. Hirurak interesatzen zaizkigu, argudioak lantzeko.

Diskusioak *egia* bilatzen ei du. Eta, horretarako, froga eskatzen du. Zientzia fisikoetan edo matematikoetan, puntu beretik abiatuta, erabat kontrajarriak diren emaitzetara heltzen diren zientifikoek frogak aurkeztu beharko dituzte arrazoia nork duen, egia nork aurkitu duen erakusteko. Diskusioak egia bilatzen du. Batek demostratzeak besteak ezin demostratzea ohi dakar.

Disputak *garaipena* bilatzen ei du. Helburua ez da aurkariaren edo gizartearen konbentzimendu arrazionala bultzatzea, ezpada nork bere argudioak ondo lantzea, halako moldez non aurkaria irtenbiderik gabe geldituko baita. Gerra-itxura du disputak.

Kontrobertsiak *konbentzimendua* bilatzen ei du. Mundua konbentzitu nahi dugu, justuago izan dadin.

2. Pentsamendua, artearen gurpilean

Aldarrikatzen dugun diskurtso argumentatuak ba al du berezko egiturarik? Zertan desberdintzen da diskurtso argumentatua besteetatik? Kazetaritza-ikasketa hauetan, berri-emailearen zereginetarako, behar-beharrezkoa da buruz behera jarritako piramidearen figurak irudikatzen duena argi izatea; hots, albistea taxutzean, garrantzitsuenetik hasi behar dela, eta ñabardurak amaierarako utzi behar direla.

Baina testu argumentatua beste *zer* bat da.

Argudioa lantzeak bere urrats propioak eskatzen ditu. Edozein genero literariok bezala, argudiozko testuak bere beharrizan propioak dauzka. Atal honen helburu nagusia da argudiozko testuaren egitura propioa lantzea, tradizio klasikoaren irizpideei jarraituta.

Argudiozko testu egokia eraikitzea arte-lan bat da.

2.1. ARTEAREN ESTATUTU OROKORRA

Beste ezer baino lehenago, konbentzio bat da artea. Izan ere, oinarri-oinarrian, artetzat hartzen duguna esperientziatik eratorritako arauen bilduma da, eta artea, oinarrizko esperientzia naturalaz harago, hausnartutako arauen bilduma ere bada, zenbait kasutan etorkizuna begi-begietan duena.

Batez ere esperientzia eta hausnarketa da artea.

Artearen inguruan marraztu ditugun konbentzio horiek, arau horiek guztiek, bai esperientziari esker ikasitakoek eta bai hausnarketaren arabera eraikitakoek ere, helburu bat dute, helburu argia: ekintza bat burutzea ahalik eta modurik perfektuenean, nahi beste alditan errepika litekeena, beti perfekzioari begira (Lausberg, 1996).

Diogun ekintza hori, artearen bidez modu perfektuan egina eta nahi adina alditan errepika litekeena, guk geuk eragina da, ez naturak sortua, ez patuak gidatua. Guk geuk gidatua eta geuk kontrolatua da artea.

Hori dela eta, arteak, oro har, ikasi egin daitezke. Eta ikasi badaitezke, erakutsi ere egin daitezke. Besteren esperientziatik asko ikasi ohi du egile berriak, zeren artera hurbiltzeko moduetako bat da imitazioa, artearen araudiarekin harreman zuzenetan jartzen gaituen heinean.

Zapatagina izan, edo musikaria, edo pilotagilea, batek bere zeregina perfekzioan egiten duenean, zeregin horretan, arte horretan, *bertutea* duela esan ohi da. Egileak duen ezaugarri bat da bertutea, bai eta haren lanak —haren obrak— duena ere. Arte batean, bertuterik ez izateak *bizioa* izatea ekarri ohi du. Eta *bizioa* baztergarria dela iruditzen zaigu, lanaren atributu eskasak uzten dituelako agerian.

Kultura klasikoetan, guretzat kapitulu honetan argi eta izar izan litezkeen horietan, arteari buruz hitz egitean, lau bat arte motari buruz hitz egin ohi da:

Arte arruntak

Eskulanak dira horiek, diru-irabazpidea bilatzen dutenak. Zapatagintza arte arrunta litzateke sailkapen klasikoaren arabera, bai eta merkataritza bera ere.

Arte erakusgarriak

Erakustea eta nabarmentzea bilatzen duten arteak dira horiek. Prestidigitazioa eta esku-jokoak dira tankera horretakoak, beste batzuen artean.

Ume-arteak

Arau argi eta jakinak oinarritzat dituzten jolasak dira horiek.

Arte liberalak

Herritar askeak lantzen dituen arteak dira liberalak, irabazi-asmorik gabeko omen direnak. Sailkapen klasikoetan, aparteko bi zerrendatara bildu ohi dira horiek: batetik, erretorika, dialektika eta musika; eta, bestetik, gramatika, aritmetika, geometria eta astronomia. Gaurko begiekin ikusita, gaitz da sinistea ezen irabazi-asmorik gabekoak daitezkeenik horiek arte guztiok.

Guri, hemen, azken kupela bete eta arte liberaltzat jo izan diren horietakoak interesatzen zaizkigu. Ez besteen gainetik daudelako, edo diru-irabazpiderik bilatzen ez omen dutelako, edo denbora-pasa ez direlako, ezpada ezagutza eta ongia zabaltzen lagun dezaketelako.

Arestiko sailkapen klasiko horri jarraituz, gure intereseko arte liberalek eurek ere euren barne-sailkapena dute. Latindar tradizioan, esate baterako, *trivium* delakoaz hitz egitea arrunta zen: gramatika, erretorika eta dialektika biltzen zituen ikaskuntza mota da *hiruko* hori; espirituaren zientzien mundua da *trivium* hori.

Baina *quadrivium* delakoaz ere hitz egiten zen ikasketa klasikoetan, naturaren zientziei buruz jarduteko: aritmetika, musika, geometria eta astronomia biltzen zituen *lauko* ikasketak.

Erretorikaz, pentsamenduaren arteaz

Hirukoa delakoaren baitan, espirituaren zientzien artean ikusi berri ditugu gramatika eta erretorika. Biak ditugu beharrezko pentsamendua egosteko eta azaltzeko. Biek ala biek dute zerikusia hizkuntzarekin; hala ere, biak dira arte desberdinak. Batak ez du bestea ordezkatzen, are gutxiago gure lanbidean. Bien beharra dugu hemen, aurrera egiteko.

Gramatika

Letren irakaskuntza da gramatika, irakurtzearen eta idaztearen artea. Oinarrizko arte bat da gramatika, gizakia gizaki egiten laguntzen duena, animalietatik apartatzen laguntzen duena hain zuzen; modu egokian hitz egiten, idazten eta irakurtzen erakusten dio-eta. Gure lanbidean, oinarrizkoa da gramatika: modu egokian idatzi eta hitz egin behar du gizakiak, eta are modu zuzenagoan komunikatzaile profesionalak. Gramatikaren bertutea zuzentasuna da; ez dago kazetari onik bertute hori barik. Kazetariaren testua zuzena eta egokia da, edo ulergaitza da.

Erretorika

Beste arte bat da erretorika; hizkuntzarekin bat dator, baina beste bat da. Ongiak ezaugarritzen du erretorika; zuzentasunaz harago doa arte hau. Obraren perfekzioa dakar gogora erretorikak, egilearen perfekzioa, bai eta helburu moral jaso bat.

Ars bene dicendi; horrela ezaugarritu zuten Erroma klasikoan erretorika. Zerk ezaugarritzen du, bada, *ars bene dicendi* delako hori? Zeintzuk dira *ongi adieraztearen artea* delakoak dauzkan oinarri estrukturalak?

Horri erantzuteko, batetik, ohitura eta aztura aztertu behar dira; alegia, besteek nola erabili izan duten erretorika deitu zaion artea. Eta, bestetik, iraganaren proiekzioa egin behar da; esperientziaren konbentzioak hausnartu egin behar dira, horietatik zer ikas litekeen erabakitzeko.

Hasteko, hitz egin dezagun arte honen gai-eremuaz. Erretorikaren gai-eremua, agenda, langai-zerrenda, interes orokorreko gaitegira hurbiltzen gaituen horixe da. Bizitza publikoak eskaintzen ditu materia horiek. Gizarte-gaiek eta gizarte-eragileek eskaintzen dute gaitegi eta agenda hori. Giza taldeen jarduera politikoek eta moralek eskaintzen dute erretorikaren gai-eremua. Ikusten denez, zabala da izan, baina zehatza: edozer ez, baizik interes orokorra.

Bestalde, erretorikaren ezaugarritze-aurrelan honetan, helburuak eskaintzen du bigarren zutabea. Oro har, konbentzitzea bilatzen du erretorikaren laguntzaz baliatzen den diskurtsoak. Tesiak eta ideiak josten eta argudiatzen lagun dezake erretorikak, pentsamendurako eta azalpenetarako lan-tresnak eskaintzen dituen heinean.

Eta, ezin ahaztuzkoa da hirugarren parametroa: etika. Etikoak izan behar dute lan erretorikoek; justizia orokorra bilatu behar dute, ezin baita ahaztu ezen erretorika ezagutza eta ongia zabaltzeko erreminta dela. Beraz, gai-eremuarekin eta helburuarekin batera, erretorikaren oinarrizko ezaugarrien arteko bat —beste bat, baina beste biak bezain beharrezkoa— da etika. Pentsamendua azaltzeko arteak etikaren zuzentasuna eskatzen du, beraz.

Horiek horrela, laburrean esanda, hona zer den erretorikaren artea: *interes orokorraren gaineko konbentzimendu publikoa bilatzen duen diskurtso etikoa*.

Lan erretorikoak bere egin nahi izaten du publikoa. Batzuetan, irakaspena (*docere*) bilatzen du, eta, horretarako, narrazioaz eta argudioaz baliatzen da. Beste batzuetan, erretorikak gaiaren alderako aldekotasun atsegina (*delectare*) bilatzen du, eta, horretarako, zubi afektiboak eraikitzen ditu publikoaren eta hizlariaren artean, nahiz publikoaren eta tesiaren artean. Inoiz, erretorikak eragina (*movere*) bilatzen du, eta, horretarako, hizlariak konbentzitu egin nahi du publikoa, tesiaren alde jar dadin. Zizeronen hitzetan jarrita, hona:

> Hiru dira bilatu behar diren efektuak publikoaren aurrean hitz egiten denean: auditorioa informatzea, atsegintzea eta modu sakonean konmobitzea (Zizeron, *Bruto*, XLIX, 185).

Horra hor, bada, oinarri-oinarrian, pentsamendu publikoa sortzearen artea zertan datzan.

2.2. ARRAZOIAREN EGITURAZKO GILTZAK ETA BORROKA-LEKUAK

Ekin diezaiogun araubide praktikoari. Nola eraiki behar da diskurtsoa, testu arrazoitua? Testu argumentatua osatzeko, oro har, hiru lan-urrats nagusi egiten dira: azterketa, antolaketa eta idazketa bera. Eta, langintza horretan, testu argumentatuan bi argi gorri saihestu eta baztertu behar dira nahitaez: inprobisazioa batetik eta falazia bestetik, hots, pentsatu barik aritzea eta hanka sartzea. Ardura eta kautela horrek gidatu behar du autorearen jardunbidea, une oro.

Egituraren giltza

a) Gaia aztertu

Ikerketa da lan-prozeduraren lehen urratsa, testua idazten hasi aurretik egin beharrekoa, jakina. Azterketan, gaia analizatu behar du autoreak, horren aurrean egon litezkeen jarrera desberdinak atzemateko, informazioa eta iritziak biltzeko.

Alde guztietatik arakatu behar da gaia, iritzi bat plazaratu aurretik. Informazioaren jabe izan behar da, jendearekin hitz egin behar da; besteen jarrerak eta asmoak ezagutu, norberarena eraikitzen hasteko.

Azterketak gidatzen duen urrats honetan, argudioaren ingurumarian izan litezkeen premisak zalantzan jarri behar dira banan-banan, zeintzuk defendatu eta zeintzuk kritikatuko diren erabakitzen joateko. Edozein baieztapenek behar du arrazoizko babesa. Testu argumentatua ez da deskribapen soila, beste *zer* bat bilatzen du, eta, horretarako, beharrezkoa du dena arrazoiez jantzita izatea.

Gai batek ez du ondorio edo amaiera bakarra, ez behintzat nahitaez. Bukaera posibleak aurrez ikusi behar dira; nahiz eta baten aldeko apustua egingo dugun, seguruenik. Argudioaren beharra dago han, non ebidentziarik ez dagoen, non ebidentzia ez den konpartitzen. Iluna argitu behar du argudioak.

Aurrerago ere itzuliko gara gai honetara. Edozelan ere, gogora bedi une honetatik bertotik, ezen, diskurtsoa eraikitzeko nahiz testu arrazonatua idazteko, lehenbiziko urrats estrategikoa dela gaiaren alderdi guztiak ikustea, gai hori ikustea halako moldez non aldekotasun nahiz kontrakotasun guztiak begien aurrean izan behar baititu iritzi-emaileak. Gaia modu sakonean aztertu ez duenak ez du hitzaldi onik egiterik, artikulu ederrik idazterik, ezta kontuan hartua izango den arrazoia eraikitzerik. Gaian sakonduko ez duena bigarren mailako eragiletzat hartua izango da beti, eta ez du historiarik idatziko.

> Beste inork erabiltzen ez zuen prozedura zeukan hark[2]: erabili behar zituen gaiak zatikatu egiten zituen (…). Zorrozki estutzen zuen bere memorian erabiliko zuen materia eta (analisi horretan) ez zuen ahazten, inola ere ez, baliagarriak izan zitezkeen argudioetarik bat bera ere ez, horietarik bakoitza baieztatzeko nahiz errefusatzeko (Zizeron, *Bruto*, LXXXVIII).

b) Argudioak antolatu

Eskema bat egokitu behar da, eta hara bildu defendatuko denaren ardatzaren nondik norakoa. Orain hitzetik hortzera darabilgun kontzeptu-mapa bat garatzea izan daiteke baliagarria lan hori egiteko. Horretarako, bide honi ekin dakioke:

b.1. Arazoa azaldu

Hasteko, erantzun nahi den itauna harilkatu; eta, ondoren, itauna eta horren erantzuna zergatik diren garrantzitsuak azpimarratu. Ez ahaztu zein den entzulea. Hasi esaten: *problema bat dugu*. Ondoren, azaldu zergatik interesatu zaren gaiarekin. Behar izanez gero, balio unibertsal batzuk aipa litezke, balio sozial orokor batzuk azalera ekarrita.

2. Testu honetan, Zizeronek Hortentsio du gogoan, Erromako tribunaletan hizlaririk zorrotzenaren fama izan zuena, Zizeronek berak horietan esku hartzen hasi arte.

b.2. Proposamena azaldu

Baieztapen erabakigarria formulatu behar da; era berean, helburua zein den argitu ezazu. Arazoa zelan konponduko zenukeen adierazi. *Nire proposamena honako hauxe da* estiloko zerbait esan daiteke.

b.3. Argudioak azaldu

Argudioak osorik azalduko dira; hobe da argudio gutxi baina ondo garatu eta azalduak izatea, garapen ulertezina duten argudio andanak izatea baino. Lanak bere mugak dauzka; beraz, ez hesitu landuko duzuna baino arlo handiagorik. Argudio egoki bat garatzeak mesede handiagoa egingo du, erdizka azalduko diren hiruk baino.

b.4. Alternatibak azaldu

Ez da nahikoa adieraztea norberaren tesia dela onena; horretaz gain, beste inorena baino egokiagoa dela frogatu behar da. Era berean, aurrea hartu behar zaie galdera eszeptikoei. Gainera, norberaren proposamenak izan ditzakeen ahuleziak aldez aurretik analizatu behar dira. Edozein kasutan, proposamena indartzeko eta blindatzeko, beti argudiatu behar da ezen norberaren proposamen horretan abantailak gehiago direla desabantailak baino.

c) Testua idatzi

Gaia aztertu eta eskema garatu ostean, testua idazteko unea dator. Sei bat betekizun dauzka araudi klasikoak.

Hauek, hain zuzen ere:

c.1. Eskemari jarraitu

Aldez aurretik pentsatu den egiturari segituko zaio; puntuz puntu garatuko da testua, ezer aurreratu eta ezer atzeratu barik.

c.2. Sarrera idatzi

Laburra, zehatza; baztertu sarrera luzeak eta orokorregiak.

c.3. Argudioak eskaini

Banan-banan, argudio bat paragrafo bakoitzean; argudio desberdinak paragrafo berean kateatzeak ulermen-arazoak dakartza, normalean.

c.4. Argi adierazi

Gai bakoitza argi azaldu, bai eta gaien artean ikusten diren loturak eta mendekotasunak ere.

c.5. Zalantzak uxatu

Norberaren tesiak argitzeaz gain, testu argumentatuak besteen iritziak baztertu behar ditu, bai eta zalantzak desbideratu ere. Ez da nahikoa erakustea arazoaren irteera bat proposatzen ari zarela, ezpada irteera horixe bera dela onena. Egia da arazo batek irteera desberdinak izan ditzakeela, baina guk defendatzen dugunak izan behar du onena, beste guztien gainetik.

c.6. Frogatutakoa baieztatu

Frogatu dena bakarrik baieztatu; baina ez utzi baieztatu gabe frogatutakoa. Konplexurik gabe amaitu, baina ez esan frogatu eta argudiatu gabe utziko duzun ezer. Amaierak argia behar du izan: gogora ekarri behar du abiapuntuko itauna, bai eta eman zaion erantzuna ere.

Diskurtso argudiatuaren borroka-lekuak: *a simili, a contrario* eta *a fortiori* ereduak

Argudiatzeko teknika jakinak eta zehatzak ondoko ataletan ikasiko dira, baina hona ekarri dira horien guztien oinarri paradigmatikoa eskaintzen duten hiru borroka-leku: antzekotasuna, desberdintasuna eta areagotzeko gaitasuna lantzen dutenak, hain zuzen ere. Argudio-eredu horiek dira *a simili*, *a contrario* eta *a fortiori*.

A simili

Esan nahi baita, argudioak eraikitzean erabiltzen diren premisen artean zelanbaiteko antzekotasuna lantzen dela. Antzekoak diren kasuetan, antzera ezartzen dute juristek legeak agindutakoa.

Gure kasuan, informazioaren eta iritziaren munduan, antzeko kasuen oihartzuna gogora ekartzea eskatzen du *a simili* argudio-ereduak. Antzera hobesten edo gutxiesten dira antzekoak diren kasuak.

Hau izan liteke adibidea:

> Herri guztiak berdinak baldin badira beren desberdintasunean, esan nahi baita desberdinak direlako direla berdinak, eta giza nahiz gizarte-askatasunak denentzat desiragarriak eta onuragarriak baldin badira, bada, Herri guztiei dagokie aske izatea.

A contrario

> Gerra baldin bada egungo minen kausa, beharrezkoa da bakearekin zuzentzea horiek guztiak (Aristoteles, *Erretorika*, 1397a).

Argumentuaren kontrakotasuna da argudio-lanari balioa ematen diona. Oro har, esan daiteke ezen, argudio-eredu honetan, egoera edo ezaugarri baten gradu positiboak negatibo bihurtzen direla, eta kontrara, negatiboak positibo.

Legeen mundua adibidetzat hartuta, xedapen batzuk modu desberdinean ezartzen zaizkie kolektibo batzuei eta besteei; adibidez, emakumeei eta gizonezkoei. Horrelako kasuetan, ezaugarri-desberdintasuna kontuan hartzeko modukoa dela deliberatu da. Abiapuntu gisa, baliagarria dakiguke hori *a contrario* moduan argumentatzeko.

Hona ariketa-proposamen bat: jakina da monarkia batzuetan lege salikoak ezarrita duela ondorengotza modu desberdinean aplikatzea monarkaren semeari eta alabari; kasu horietan, gizonak *monarka* izan litezke, emakumeak ez. Nola argudiatzen eta justifikatzen dute hori?

A fortiori

Mailaketa eta hierarkia moduko bat dago kasu honen oinarrian: *Jainkoek berek ez dakite oro, are gutxiago gizakiek* (Aristoteles, *Erretorika*, 1397b). Hierarkia moduko bat planteatzen du argudioak: jainkoek ez badakite, gizakiek ezin dute jakin.

Argudio-eredu honetan, ez du zertan zehatza izan hierarkiak. Baina mailaketaren irudia landu behar da, derrigor.

> Ez da zilegia erromatar zaldun bat preso hartu eta espetxean sartzea; krimen bat da zigorra hartzea eta hura kolpatzea; ia parrizidioa hura hiltzea. Nola deitu behar diot hura gurutzean iltzatzeari? (Kintiliano, *Hizlariaren prestakuntza*, VIII, IV, 19).

2.3. DISKURTSO ARGUMENTATUAREN PARADIGMA KLASIKOA

Eredu klasikoari kasu eginez, testu nahiz diskurtso argumentatuak honako ardatz nagusi hauek ditu:

> Autorerik gehien eta onentsuenek azaldu dutenaren arabera, oratoriaren doktrina osoak bost atal ditu: asmatzea (*inventio*), antolatzea (*dispositio*), adieraztea (*elocutio*), buruz ikastea (*memoria*) eta esatea edo gauzatzea (*pronuntiatio* edo *actio*), bietara esaten baita (Kintiliano, *Hizlariaren prestakuntza*, III, III, 1).

Erromatarrek asko zor diete greziarrei, baita arlo honetan ere. Erromatarren eredua garatuko dugu hemen.

2.3.1. Inventio

Ideien bilketa-lana da *inventio* deitzen dioguna. Ekintza sortzailea da *inventio*. *Inventio* delakoak norberaren kausa babes lezakeen argudio multzoa ekartzen du agerira.

> Garrantzitsua da aurkitzea eta erabakitzea esan behar dena (Zizeron, *Hizlaria*, III, 44).

Ideien bilduma garatzeko, zenbat buru hainbat aburu; alegia, autoreak, klasikoak eurak ere, ez datoz guztiz-guztiz bat diskurtso batek izan behar lukeen barneeredua zein den ezartzean, edo diskurtsoak zenbat zati eta zein izan behar lituzkeen adieraztean. Nolanahi ere, jakina denez, badagoke nolabaiteko adostasuna esatean ezen diskurtso batek, gutxienez, lau zati izan beharko lituzkeela, honetara ordenaturik eta zerrendaturik garapen eraginkorra izateko: *exordium*, *narratio*, *argumentatio* eta *peroratio*.

A. Exordium

Diskurtsoaren abiapuntua da, hasiera modukoa, hitzaurrea, nahi baldin bada. Hizlariak bere diskurtsoan defendatzen duen tesiaren aldeko sinpatia irabaztea da, batetik, *exordium* delakoaren helburua; eta, bestetik, mintzagairako lehen hurbilketa eskaintzea. Garrantzitsua bezain zaila izan ohi da lan hori.

Baldin eta hizlariaren diskurtsoak gai arin bat, intraszendentea, garatuko badu, eta baldin eta haren entzuleek publiko orokor eta heterogeneo bat osatzen badute, hizlariak *kolpe efektista* bat beharko du entzuleen arreta bereganatzeko, hasiera moduko honetan. Ez da modu bakarra, baina izan litezkeenen arteko bat bai.

Sinpatia lortze aldera, hitzaurre delako honetan, hizlariak arreta bereganatzeko izan lezakeen beste aterabideetako bat da esatea garatuko duen gaia *oso interesgarria* dela, batez ere entzuten ari direnentzat.

Arreta eskuratzeko, abiapuntuko lehen hitz horietan, inoiz esan behar izaten du hizlariak ezen eskuartean darabilen gaia *berria* dela, eta, alderdi horretatik, kontuan hartzeko modukoa.

Ez da erraza publikoaren sinpatia lehen konpasetan irabaztea. Hizlari batzuek darabilten bidea da esatea garatuko duten gaiak zer-nolako *harridura* sortu zuen haiengan berengan, amestuz horrek berak publikoaren interesa piztuko duela.

Hizlariaren eta publikoaren arteko lehen harreman horretarako, modu labur eta errazak ere badaude, hala nola, *arreta eskatzea* zuzen-zuzenean, edo gai interesgarri bati buruz *labur* mintzatuko garela esatea.

Modu literarioagoak ere baditu eskura hizlariak: *metafora* berri bat planteatzea, edo *ironiaz* baliatzea, bai eta objektu (udaberria, natura…) eder baten *azalpen epidiktikoa* eskaintzea ere.

Sarrera moduko hau egiteko erabili ohi den beste era bat da *zehatz-mehatz zerrendatzea* diskurtsoan zehar garatuko diren gai guztiak, banan-banan, aurkibide moduko zerbait aurreratuta.

Inoiz, hizlariak, mintzagaira hurbiltzeko, mintzagaiarekin zerikusi zuzena duen autore bat ekar lezake gogora, eta haren *izen ona eta obra* goretsi, bide batez bere kausa eta tesi propioak goresten dituela; edo, beste mutur batera joanda, gogora ekarri duen pertsonaia *juzgupean jar* dezake, eta handik abiatu bere hizketaldia.

Intsinuazioa ere bada erabiltzen diren hasiera-baliabideen arteko bat; alegia, gaia zein den esatea, tesiaren garapenaz argitasun handirik eman barik. Elkarrizketa dramatizatua izan daiteke intsinuazioa plazaratzeko modua.

Gainera, hasiera-lan hauetan, arreta eskatu eta gaiaren aurrerapena eskaintzeaz gain, publikoari nolabaiteko atsegin bat eman behar zaio. *Delektatu* egin behar izaten da, hurrengo minutuetan hizlariarekin bat egin dezan. Autore klasiko eta paradigmatiko baten hitzetan esateko:

> (Exordioan) auditorioaren aldekotasuna, sinpatia lortu behar da, bere arreta esnatu behar da, irakatsia izan dadin onar dezan (Zizeron, *Hizlaria*, IV, 122).

Atea ireki behar dio abiapuntuko sarrera gisako atal honen amaierak *narratio* delakoari.

B. Narratio

Gaiaren benetako azalpena da *narratio* delakoa. Proposizio nagusiaren inguruko narrazioan oinarritzen da atal hau, eta azalpen zehatza eskatzen du. Diskurtso osoaren baitan, *narratio* delako hauxe da ondoko *argumentatio* sail giltzarriaren oinarria. Azalpena ahalik eta ondoen egiteko asmoz, atalez atal eskaintzen da diskurtsoaren materia *narratio* delako honetan. Diskurtsoaren zati honetan, Kintilianok, *Hizlariaren prestakuntza* liburuan, *propositio*, proposamena delakoa egiteko eskatzen du, hots, ondoren frogatuko dena aurreratzea.

Zelan egin eta burutu behar da atal hau? Bada, tesiaren edukiari gagozkiola, gaiaren azalpena den *narratio* honen zenbait ereduri buruz hitz egiten da testu klasikoetan, hauetaz hain zuzen ere:

- *Kausaren egoeraren deskribapen* partziala, non azaltzen baita gaiaren beraren egoera diskurtsoa eskaintzen den unean.
- *Disgresio* gisako *narrazioa*, alegia, adibideen bitartezko narrazio mota bat.
- *Narrazio literarioa*, arte poetikoaren munduko diskurtsoa. Mota honetako narrazioak bai pertsonekin bai gauzekin erabili izan dira. Eredu honen baitan modu bat baino gehiago daude: *fabulak*, non narrazioa ez den egiazkoa; *historiak*, horiek egiazkoak dira; eta *argudioak*, ez dira egiazkoak baina bai sinesgarriak.

Diskurtsoaren bigarren atal honek bere bertute propioak eskatzen ditu. *Narratio* atalak hiru bertuteren jabe behar du izan arrakastatsu izatekotan:

- Batetik, *egiantzekotasuna* gorde behar du; hau da, narratzen dena sinesgarria izateko, *litekeena* izan behar du proposatutakoak, *problablea* gutxienez. Eskuan darabiltzagun autoreak baino modernoagoengan ere ardura handia izan da egiantzekotasuna eta sinesgarritasuna; filosofian ardura handia sortu du, erretorikan ardura sortu du, semiotikan ardura sortu du. Narrazioa ez baldin bada sinesteko modukoa, ez da deus izango: «Egiantzekotasunaren problema da zentzuarena berarena: izan ere, zentzuzkoa izatea, sinesgarria izatea baita» (Kristeva, 1981: II, 13). Beraz, azalpen- eta narrazio-atal honetan, soberakoa da tesia ulertzen eta sinesten laguntzen ez duena.
- Narrazio-azalpenak *laburra* izan behar du, publikoa ez nekatzeko. Hartara, atal honen helburua ez da dena kontatzea, ezpada beharrezkoa den huraxe esatea, narrazioa bera sinesgarria izan dadin.
- Azkenik, azalpenak *argia* behar du izan, *narratio* delakoa osatzen duten elementuek helburu jakina baitute: ulertzea ahalbidetzea. Nolanahi ere, ezin da gauza garrantzitsurik esan gabe utzi, baldin eta gaiaren arrakasta baldintzatzen bada horrela.

  > [Bada, *narratio*an] azaldu egin behar dira gertakariak, modu laburrean azaldu ere, modu sinesgarrian, modu argian, gaia zein den eta zertara datorren ulertu ahal izateko (Zizeron, *Hizlaria*, IV, 122).

Azalpen atal honetan, oso dira eskertzekoak ondokoak:

- *Argitasun kontzeptuala*, zeina lor bailiteke diskurtso-osagaiak modu egokian ordenatuz (batez ere orden kronologikoa zainduz), eta ideien erabakigarritasunari esker.
- *Ebidentziak eskaintzea*, alegia froga-behar luzerik gabe begien aurrean ikuserraza dena eskaintzea. Narrazioari sinesgarritasuna ematen laguntzen du. Baina, batzuetan, tesian defendatzen den ideia nagusia ez dagokio mundu errealari, eta ez da posible ebidentziak eskaintzea. Kasu horietan, hizlariak azaldu behar du paradoxikoa den zerbaiten lekuko izango direla entzuleak, eta saiatu sinesgarri egiten defendatu behar duena.
- *Irakastea*, ezaguna ez den zerbaiten testigantza ematea, bizitza arrunterako ere baliagarri gerta litekeena, behar bada. Kasu horretan, narrazioak eguneroko bizitza ekartzen du gogora, eta bat dator entzuleen sinesmen arruntekin.
- *Atsegintzea*, entzuleak gozatzea. Bide horri esker, entzuleengan izan litekeen asperdura saihestu ohi da. Horretarako, kasu batzuetan, sententziak aipatzen dira (interesgarriak izan litezkeenak, edo paradoxikoak). Nolanahi ere, atsegintze-lanek ez dute betegarri suertatu behar.

Narratio atalaren amaieran, *trantsizio* delakoa egin behar izaten da. Trantsizio hori bigarren atalaren eta hurrengoaren arteko zubia da. Garrantzitsua da, tarte argia behar du izan. Agian, arrakastatsuen suertatu ohi dena da proposizio bat egitea: laburra, baina argia, probokatzailea. Zubi diskurtsibo honen helburua honako hauxe da: publikoa prestatzea *argumentatio* atalerako.

C. Argumentatio

Argudioen lanketa sakona da diskurtsoaren gune nagusia. Argudioen atal honetan, tesi nagusian babesten dugun ideiaren edo iritziaren sinesgarritasuna landu behar da. Argudioen atala izan ohi da diskurtsoaren zatirik luzeena, han biltzen baitira babesten dugun tesiaren aldeko era guztietako arrazoiak eta frogapenak.

Azpi-atal bi proposatzen ditu Kintilianok *argumentatio* deitu diogun honen baitan: *probatio,* alegia norberaren tesia frogatze-ariketa, eta *refutatio* edo besterena errefusatzeko ariketa.

Argudioen bilketa-lanetan, eskaini behar da *froga* bat, gutxienez. Frogatze-ariketetan, eskain daitezke *froga etikoak*, zeintzuk onargarriak izan bailitezke hizlariaren beraren sinesgarritasunagatik. Eskaini, eskain litezke *froga patetikoak*, hots, entzuleen pasioak piztuko edo entzuleen pasioak atseginduko dituztenak. Bai eta *froga errealak*, gaiaren beraren garapen logikoaren baitatik azalera litezkeenak.

Era berean, eskertzekoak dira lekukoen *testigantzak*. Lekukotasunak beti lagundu ohi dio sinesgarritasunari; badirudi bestek beren begiekin ikusitakoa izan litekeela nork bereekin ikusitakoa, eta horren aurrean mundu erreala ukatzea zail egin ohi zaio jende orori.

Ildo beretik, *erreflexioen emaitzak* ongi hartu ohi dira argudioen atalean. Erreflexio-lan hauetan, aparteko lekua izan ohi dute *seinaleek* (alegia, gertakari baten alboko den zerbait, baina oinarrizko gertakarira garamatzakeena: kea eta sua, adibidez); bai eta gauzen izaeraz mintzo litezkeen era guztietako *zeinuek* (segurtasun-maila egokian, gauzen nondik norakoak deduzitzen laguntzen dutenak).

Arrazoiketa atal honetan, helburu nagusia da norberaren arrazoia frogatzea, edo kontrakoarena gezurtatzea.

> [Beraz,] baieztatu egin behar da norberaren tesia, aurkariarena errefusatu, eta hori egin, ez modu desordenatuan, ezpada argudio bakoitza biribilduz, halako moldez eginez hori non ondoko ondorioa izango baita ezarri diren premisen emaitza logikoa (Zizeron, *Hizlaria*, IV, 122).

D. Peroratio

Azken atala, azken giltza gisa eskaini ohi dena, da *peroratio* hau. Bi ardatz izan ohi ditu: egindako lana gogoraraztea eta publikoarengan eragitea.

> [Eta hitzaldia] itxi egin behar da *peroratio* batekin, inor pizteko legez, hura itzaltzeko ere [hala behar denean] (Zizeron, *Hizlaria*, IV, 122).

Laburbiltzea da *peroratio* atalaren lanetako bat; lehendik esandako batzuk gogora ekartzea, modu labur batez, nolanahi ere. Atal laburra da, laburretan laburrena, agian. Baina, laburra izan arren, ez du zertan itxura alde batera utzi, eta atal landua izan behar du.

Peroratio delakoa da entzuleei sinetsarazteko azken aukera. Helburu praktiko nagusia da entzuleak zerbait egitera animatzea: norberaren tesia onartzea, nahiz aurkariarena baztertzea. Atal honetan, hizlariak lortu behar du berak babesten duen tesiarekiko mirespena, errespetua edo gupida entzuleengandik. Hori horrela ez bada, hizlariak bere indar guztia jarri behar du aurkariaren tesiak zalantzaz betetzeko; tiro-hots bat izango da bere azken jarduna aurkariaren kausaren kontra, publikoarengan sekulako indignazioa sortuko duena.

2.3.2. Dispositio

Inventio atalean sortu ditugun ideien eta pentsamenduen antolaketa eskatzen du diskurtsoak. *Dispositio* delakoak horixe gogoratzen digu, alegia, gauzak edozein modutan kontatzeak, ez ordenarik ez uztardurarik gabe, ez duela lekurik argudioen munduan.

Beraz, antolaketa da *dispositio* delakoa. Antolaketa horrek osotasun bat, diskurtso-batasun bat eraiki behar du, helburu batzuei jarraituta, eragin batzuk suspertu nahian. Normalean, antolaketak bi ardatz izan ohi ditu: diskurtsoaren indarra areagotzea bat, eta arrazoiketaren osotasunaren ideia azpimarratzea bestea.

Gure azalpen metodologiko honetan, antolaketa atal hau *inventio* delakoaren atzetik aztertzen bada ere, oso gogoan eduki behar da ez duela zertan haren ondorengo izan, haren atzetik datorren zerbait, ezpada harekin batera datorrena eta harekin batera garatzen eta sendotzen doana. Trenbide beraren errailak dira *inventio* eta *dispositio*, sorkuntza eta antolakuntza. Hizlariak oso kontuan hartu behar du hori, eta, sorkuntza-lanari ekiten dionean, ideiak eta pentsamenduak nola elkartuko dituen aintzat hartu behar du une oro. Kaosa saihestu behar du antolaketak, ideien eta hitzen kaosa.

Antolaketa-eredu biri buruz hitz egiten da eskuliburu klasikoetan: *ordo naturalis* eta *ordo artificialis*.

A. Ordena naturala

Autore klasikoen arabera, antolaketa naturala erabiltzen da naturak berak ematen digun ordenaz baliatzen garenean diskurtsoa antolatzeko, eta, halaber, ohiturak edo hezkuntzak emandako irizpideei jarraitzen zaienean.

Ildo *natural* horretatik, diskurtsoa antolatzeko unean *exordium-narratio-argumentatio-peroratio* seriea erabiltzeari ordena naturala errespetatzea irizten zaio; eta ordena artifizialtzat hartzen da antolakuntza-eredu horretan aldaketaren bat eragiten duen edozer.

Antolaketa *naturala* deitutako horretan, era berean, aintzakotzat hartzen da denbora-ordenari jarraitzea diskurtsoa eraikitzeko unean, eta gauzak modu kronologikoan kontatzea, alegia, gertatu diren ordena berean kontatzea gertakariak.

Azkenik, antolaketa *naturala* delakoaren baitan dago areagotze-ordena deitua, alegia, ideia eta pentsamendu xeheetatik abiatuta, gora eta gora jotzea zailtasunean eta esanguran, azken klimaxa erdietsi arte.

> [Hizlariak] sarrera bat egingo du, nahikoa duina, kausara sarbide argia eskainiko duena; eta, entzuleen animoak erakarrita, lehen kontaktuaren ostean, argudio baliagarriak baieztatuko ditu, eta aurkakoak ahulduko eta baztertuko. Argudio sendoen artean, baten batzuk [hitzaldiaren] hasieran jarriko ditu, beste batzuk amaieran, eta tarteka ahulenak (Zizeron, *Hizlaria*, III, 50).

B. Ordena artifiziala

Definizio gisa, ordena *artifiziala* da arestiko *naturala* den horretatik apartatzen den huraxe.

Nolanahi ere, nahiz bat nahiz bestea aukeratzeko, *naturala* delakoa nahiz *artifiziala* delakoa aukeratzeko, hizlariak argi eduki behar du erabiliko duen ordenak mesede egin behar diola bere tesiari, bere kausari. Ordenaren helburu nagusia eraginkortasuna da; ordena bera *naturala* edo *artifiziala* izatea bigarren mailakoa da. Hala eta guztiz ere, hizlariak ez du ahaztu behar naturalak eta ohikoak diren gauzak (une honetan ordenamendua eta antolaketa) errazago ulertzen direla, ezohikoak baino.

Beraz, behin zer esan erabaki ondoren, antolatu egin behar dira ideiak. Antolamenduak ulermena lagundu behar du, konbentzimendua areagotzen lagundu behar du, pertsuasioa indartu behar du.

2.3.3. Elocutio

Diskurtsoaren eraketa-lanetan, *elocutio* delakoaren ekarpena hauxe da: hitzen mundura eramatea *inventio* delakoan garatu eta *dispositio* atalean antolatutako ideien eta pentsamenduen esparrua. Beraz, diskurtso batean, janzkera linguistikoa eskaintzea da *elocutio* delakoaren ardura. Behin aurkituta zer esan eta ze ordenetan esan, garrantzitsuena da ikustea zelan esango den. Estiloaz eta jarreraz hitz egin behar da orain: elokuzioaz eta alokuzioaz.

Hizkuntzaren korrekzioa da abiapuntua, gramatikarekin zintzo jokatzea; baina hori abiapuntua besterik ez da, alegia, oinarri-oinarria. Gramatika zaintzen ez duen hizlaria ez da arrakastatsua izango, hori badakigu. Gramatikaren arauak apurtzen dituen diskurtsoa berez izango da txarra eta eramanezina. Diskurtsoaren sustraia da gramatika, baina hura (diskurtsoa) harago doa, gramatikatik harago, hain zuzen ere. Hartara, *elocutio* delakoak bermatu behar duen lehen gauza zuzentasun linguistikoa da. Ez da horretara mugatuko, baina horixe da oinarria. Hizkuntza-zuzentasuna aldez aurreko baldintza da.

Baina, arestian aipatutako zuzentasun gramatikal horretaz gain, *elocutio* delakoak hiru bertute eskatzen dizkio hizlariari, ongi esatearen artea modu arrakastatsuan biribiltzeko: *perspicuitas*, *ornatus* eta *aptum*.

A. Perspicuitas

Ulergarritasun intelektuala da diskurtsoaren bertuteetako bat. Hizlariak bermatu behar du bere hitzak ulertzeko modukoak direla; tokian-tokian egokitu beharko du bere mezua, aurrean duen publikoari zor zaionez.

Perspicuitas delako ulergarritasun intelektuala garatzean, hizlariak argi eduki behar ditu bi ardatz: batetik, entzule guztien ahalmen intelektuala ez dela beti bera, ezta jasoa ere; eta, bestetik, entzulea ez dagoela beti adi-adi, hizlariak zer esango. Garbitasuna eta argitasuna dira diskurtsoak bermatu behar dituen bertute intelektualak, ulergarritasunaren izenean. Diskurtso iluna litzateke ulergarritasun intelektualaren bizioa, perbertsioa.

Ulergarritasun intelektualak bi urrats eskatzen ditu: batetik, hitzak eurak izatea ulertzeko modukoak, argiak eta zuzenak; bestetik, hitzen loturak eurak ere argiak izatea, alegia, ulertzeko modukoa izatea joskera bera, hots, argiak eta garbiak izatea esaldiaren beraren barne-ordena eta esaldien arteko sintaxia.

Beraz, *perspicuitas* da diskurtsoaren ulergarritasuna.

B. Ornatus

Askok amestutako bertutea da hori. Zuzentasun gramatikala gehi ulergarritasun intelektuala gainditu eta *edertasuna* bilatzen duen bertutea da *ornatus* delakoa; bere ongian, hizlaria arrakastaren gorengo mailara leramakeena.

Ornatus delakoak, diskurtsoaren edertasunak, kausaren defentsari eragin behar dio, bai eta entzulearen gozamenari ere. Hala ere, diogun diskurtsoaren edertasunak neurtua behar du izan, ez du betegarri suertatu behar. Gainera, arrunkeria saihestu behar du. Era berean, interesgarri eta bizia izan behar du. Eta ez du inola ere errepikakorra eman behar.

Tropoak dira atal hau aberasten laguntzen dutenak. Hizkuntza enigmatikoaren emaitza dira tropoak, edertasuna eta pentsamendua uztartzen dituztenak. Asko eta asko dira tropoak, eta baita han eta hemen aurki litezkeen horien sailkapenak ere. Testu-atal honetan, ohiko diren apur batzuk zerrendatzen dira ondoren, *ornatus* delakoa zertan datzan argitze aldera:

- *Metafora*: historikoki konparaketa laburtutzat jo izan dena, identifikazio magikorako lan-tresna ezaguna da; troporik gutiziatuena askorentzat, maila gorengoa.
- *Metonimia*: hitz-joko bat da, hitz baten ordez hitz horrekin harreman semantikoa duen beste bat erabiltzea; horrela, identifikatu ahal dira pertsonak eta euren gauzak, autoreak eta euren obrak, jainkoak eta euren zereginak, jabeak eta euren jabegoak, kausak eta ondorioak, edukia eta edukitzailea, abstraktua eta konkretua, zeinua eta esangura. Tropo honetan, kualitatiboa da hitzen arteko harremana.
- *Sinekdokea*: labur esanda, metonimia moduko bat da, hitz-jokoan ardatz kuantitatiboa lantzen duena, kualitatiboaren ordez. Beraz, identifikazioak bikote hauetan gerta litezke: zatia eta osoa, singularra eta plurala…
- *Hiperbolea*: alegia, puzte bat, ideia baten edo pentsamendu baten indarra areagotzea bilatzen duena.
- *Ironia*: hitz bat edo batzuk erabiltzea haien berezko esanguraren kontrakoa adierazi nahi denean. Tropo honek aurkariaren hitzak hartu eta horiek bihurritzen ditu, halako moldez non, hasieran ziotena barik, beste zerbait adierazteko erabiltzen baitira batetik, eta, bestetik, hitz horien jabea bera barregarri uzten baita, ahal bada.
- *Perifrasia*: alegia, itzulinguru baten bidez adieraztea era laburragoan esan zitekeena. Azalpenak emateko baliagarri izan ohi da, bai eta diskurtsoa bera kolorez edertzeko ere.

C. Aptum

Egokitasuna eta oreka, diskurtsoak gorde eta zaindu behar dituen pentsamenduaren, edukiaren eta estiloaren arteko egokitasuna eta oreka eskatzen ditu *aptum* delako bertuteak. Bertute handia da; atalek osotasun batean parte hartu behar dute, eta euren artean desorekarik sortu ez.

Egokitasunaz eta orekaz hitz egitean, barnekoaz eta kanpokoaz hitz egin ohi da.

Barne-oreka da diskurtsoaren atalei dagokiena. Diskurtsoak orekatua behar du izan, bere barne-osagaiei dagokienez. Diskurtsoa osatzen duten atalek, hemen ikusitako *exordium*, *narratio*, *argumentatio* eta *peroratio* direlakoek, euren artean

edukizko eta neurrizko harreman orekatua gorde behar dute. Era berean, orekatua izan behar du pentsamenduen eta tropoen arteko harremanak.

Kanpo-oreka izateko, diskurtsoak egokitasuna gorde behar du nola barneko osagaien artean hala testuingurukoen artean. Hizlariak, bere diskurtsoa eraikitzerakoan, oso kontuan izan behar ditu bere itxura, bere aurrean izango duen publikoaren zelakotasun intelektuala, diskurtsoa egin egingo den unea, eta diskurtsoa sozializatuko den lekua bera.

Elocutio deitu diogun atal honetan, kontuan izan behar ditu hizlariak nola hitza hala jarrera. Zizeronek eskatzen duen hizlari perfektuak bere ahotsaren modulazioak kontrolatu behar ditu, bai eta bere mugimenduak ere.

Hizlariak modu zorrotzean kontatu behar ditu bere diskurtsoaren atal bortitzak, modu gozoan zati lasaiak, tonu sakonean atal larriak eta ahotsa flexionatuko du patetismoa adierazteko.

Era berean, gorputzaren eta gorputz-atalen mugimenduak hartu behar ditu gogoan hizlariak. Urduritasuna isla lezakeen oro baztertuko du eta bere hitzei laguntzeko mugimenduak erabiliko ditu, gehiegikerietan jausi barik. Hartara, hizlari elokuenteak

> hitz egitean frogatu egingo du, beharrak hala eskatuta; gozatu egingo du, edertasunaren izenean; eta, konbentzitu egingo du, garaipena helburu (Zizeron, *Hizlaria*, III, 60).

2.3.4. Memoria eta *pronuntiatio*

Azken urrats gisa zerrendatzen dira horiek biak diskurtsoen teoria klasikoan.

Memoria, alegia, testua bera ikastea; ideiak eurak eta haien formulazio elokutiboa, oso-osorik.

Pronuntiatio, berriz, testuari ahotsa eta keinuak jartzea da. Atal honetan, hitz esana eta gorputz atalen mugimendu adierazkorrak landu behar dira.

2.4. DISKURTSOAREN EREDUAK

Egokiari begiratu behar dio hizlariak, ez bakarrik ideiei gagozkielarik, baizik eta baita hitzei gagozkielarik ere. Hitzaldiaren zentzu ona ideietatik nahiz hitzetatik etorriko da; era berean artikuluaren zentzu ona, nahiz kritikarena edo erreportajearena. Ez ahaztu kazetariak garela. Saio intelektualak ideiaren eta hitzaren beharra dauka.

> Hiru hitzaldi mota izan daitezke, baina bakoitzaren oinarria batzuetan gaiari dagokio eta beste batzuetan adierazmoldeari (Kintiliano, *Hizlariaren prestakuntza*, III, IV, 14).

Gaiak kontuan hartuta, Kintilianoren irizpide ezagunei jarraituz, honako hauek lirateke argudio-testuaren hiru genero nagusiak: frogatzekoa (*demonstrativum*), eztabaidakoa (*deliberativum*) eta epaibidekoa (*judiciale*). Froga, eztabaida eta epaia daude oratoriaren oinarrietan, Kintilianoren ustez.

Zizeronek berak ere hiru hitzaldi motaz hitz egiten du, baina horren sailkapenak adierazmoldeak hartzen ditu gogoan. Hona hemen hiru horiek, laburrean: genero *zehatza*, zerbait frogatu nahi denean; genero *ertaina*, entzuleen gozamena ase gura denean; eta genero *gartsua*, inor konbentzitu gura denean.

Kintilianoren sailkapena errefusatu gabe, Zizeronen sailkapen horretan jarriko dugu guk arreta.

2.4.1. Eredu atikoa

Zizeronek aipatu izan duenez, eredu atikoa da askorentzat bakarra, den bakarra, kontuan hartua izateko moduko bakarra. Eredu zehatza da atikoa. Estilo laua da, hizkuntza arrunta begi-bistan hartzen duena. Jakina, estilo askea da, baina ez anabasara kondenatua den desordenatua. Itxuraz, libreki dihardu, baina ez du zabuzabuka egiten, legerik edo araurik gabe ibiliko balitz moduan.

Ez da apaingarriz zamaturiko diskurtsoa. Azalpen argikoa da diskurtso atikoa, azalpen laukoa. Pentsamendu fin eta zoliak ekarriko ditu gogora, sententziak azaleratuko ditu. Eredu atikoa ez da metaforen zalea, ez da hizkuntza-arkaismoen laguna.

> Handiustetik ihes, ez da zurruna, eta elegante izaten daki (Zizeron, *Hizlaria*, III, 83).

Paralelismoak onartu ohi dira eredu atikoan, esaldiek egitura gramatikal hurbilak darabiltzate, soinu antzerako hitzak erabilgarriak dira; baliabide arruntak, beti. Eredu honetan, bigarren mailakoa da poesia.

Ildo horretatik,

> ez du hitzeginaraziko Estatua, ez ditu hilak berpiztuko, ez du errepikapenez esaldia mordoilduko (Zizeron, *Hizlaria*, III, 85).

Eszena-jartzeari gagozkiola, gorputzaren mugimenduak neurrikoak izango dira, agian moderatuak; aurpegiak iradoki besterik ez du egin behar, erdizka esan. Irribarrea eragin lezakeen iruzkina bera ere baliagarria da, ez den arren txiste merkea inola ere onartzen. Oro har, eredu atikoak

> lagunak eta autoritateak errespetatuko ditu; ondorio gaindi-ezinak eragin ditzaketen enfrentamenduak saihestuko ditu; bere geziak arerioari jaurtikiko dizkio bakarrik, baina ez beti, ez den-denei, ezta edozein modutan ere (Zizeron, *Hizlaria*, III, 89).

2.4.2. Eredu ertaina, moderatua

Bada beste estilo bat, aurrekoa baino jasoagoa, baina hirugarrena baino xeheagoa. Baliabideei gagozkiolarik, eredu atikoa baino jantziagoa den baten aurrean gaude. Estilo ertain moduan ezagutzen dugun bigarren honek metafora onartzen du, bai eta gainerako tropoak ere.

Zerrenda honetan bigarren lekuan sailkatu dugun estiloak, ertaina eta moderatua deitu diogunak, hitz-irudi guztiak onartzen ditu, bai eta pentsamenduzkorik gehienak ere.

Eredu honetan garatzen dira eztabaida teoriko eta eruditorik gehienak.

2.4.3. Estilo gartsua

Eredu zabala, handia. Hitz-ederra da eredu gartsuak bilatzen duena; estilo elegantea da gartsua, benetan jasoa, oparoa, entzuleak kautibatu izan dituena. Batez ere, elokuentzia mota honek pertsuasioa bilatu ohi du, jendearen bihotza ukitu gura izaten baitu eta erabakiak hartzera bultzatu.

Estilo arriskutsua da: asko nahi du, eta asko jartzen du jokoan. Hitz-handitan galtzeko arriskua du. Gainera, edozein auditoriok ez du onartzen. Eredu atikoan hizlaria zehatza eta argia da, ia zurruna. Eredu moderatuan hizlaria atsegina da. Eredu jasoan hizlaria beste bat da, bete zerbait bilatzen du.

Ez da erraz definitzen eredu jasoa, baina erraz identifikatzen da, belarriak berehala antzematen du. Estilo betea da. Historiara igaro diren hizlari handi batzuen estiloa da. Estilo preziatua da. Baina estilo arriskutsua, lehenago ere salatu diogu hori.

Eta, non dago hizlariaren estilo biribila? Non dago perfekzioa?

Ezinezkoa da definizioa, baina hona maisu baten erantzuna:

> Elokuentea da gauza errazak modu errazean esateko gai dena, gauza jasoak modu indartsuan esateko gauza dena, erdi-mailako gauzak tonu ertainean azaltzen dituena (Zizeron, *Hizlaria*, III, 100).

Kazetariak berak ere gogoan izan behar ditu eredu horiek bere testuak ekoiztean, bere kamara-aurreko diskurtsoak prestatzean eta gertakarien oinarrizko arrazoiak azaltzean. Edozerk ez du edonon balio.

3. Argudio-lana hitzarmenari begira

Argudiatzean arrakasta izateko, hizlariak bat egin behar du bera entzuten ari den komunitatearekin; hori, hasteko. Komunitateak eta hizlariak bat etorri behar dute oinarrizko hitzarmenean; hots, bat egin behar dute komunitate intelektual bat osatzen duten asmoan, eta adostu behar dute batera eztabaidatu nahi dutela hizlariak proposatzen duena.

Akordio hori gabe, baldintza hori gabe, ez da argudiatze-lanik egingo; ezinezkoa izango da. Era berean, aldeek elkarri aitortu behar diote argudiatzeko zilegitasuna. Katramila ugari ezagutu ditu erraza dirudien horrek; ezaguna izango zaizu, jakina, honelakoren bat: *halako baldin badator, ni ez naiz jesarri ere egingo...*

Eztabaida asko eta asko abortatu dira arrazoi hori dela eta, mintzakideak ez duelako aintzakotzat hartu ez hizlaria ezta hizketa-gaia ere. Tamala da, baina hala izan ohi da behar baino sarriagotan.

3.1. ABIAPUNTUKO BALDINTZA ARGUDIO-LANETAN

Argudiatze-lanak norbanakoen aldekotasuna bilatzen du honetan edo hartan; beraz, aurreikusi behar du ezen hizlariaren eta entzulearen artean nolabaiteko harreman eta lotura intelektuala behar dela. Horixe da joko-zelaia, kontaktu intelektuala.

Hizlaria eta entzulea

Eta zergatik entzun beharko nituzke zure hitzak?

Aproposa da itauna, egokia. Publikoaren aurrean, argudio bat eraikitzeko, beharrezkoa da entzuleek arreta jartzea. Ardurarik handienetako bat horixe da, arreta eskuratzea. Telebistako publizitatean diharduenak ongi daki zenbat kostatzen den inor bere loalditik ateratzea, inorena ikusteko edo entzuteko. Argudioaren kasuan, antzera gerta liteke. Harreman intelektuala gerta dadin, inoren arreta bereganatzen asmatu behar du hizlariak. Egoera bakoitzak bere beharrizanak dauzka.

Zizeronek aurreratu zuenez, ezjakinen aurrean hitz egiterakoan, argudioak zintzotasuna barik erabilgarritasuna hartu beharko luke aintzat; kontrara, jende ikasiaren aurrean, erantzun hobea erdiesten dute moralitatezko argudioek besteek baino. Horra, adibidez, abiatzeko modu posible bat, bikoitza.

Argudioaren prestakuntza-lanetan, hizlariak honetaz edo hartaz zer uste duen garrantzitsua bada ere, zenbait kasutan erabakigarria izan daiteke jakitea entzuleak berez zer hartzen duen egiatzat, eta zer har lezakeen egiatzat hizlariarengandik. Zer demostratu nahiz argudiatu nahi den jakitea bezain beharrezkoa da hartzailearen ezaugarriak zeintzuk diren jakitea.

Izan ere, kasu askotan, hizlariak zuritik beltzera eraman nahi izaten du entzulea. Aldaketa eta hausnarketa sakona eskatzen dio. Jauzia handiegia suerta dakioke baten bati, eta bertigoa sentiarazi. Gotortu egiten da orduan entzulea, altzairuzkoa egiten da, bakailaoa bezala, hotzetik berora bat-batean eraman nahi denean.

Beti da interesgarria, eta normalean ezinbestekoa, entzulearen erreakzioez konturatzea; konturatzea zer arazo sortzen dion entzuleari hizlariak esan lezakeenak, eta edozeren gainetik asmatzea zeintzuk diren entzuleak hizlariaren argudioak bere ez egiteko dauzkan berezko oztopoak, indibidualak nahiz kolektiboak, objektiboak nahiz subjektiboak.

Hizlariak une oro eduki behar ditu gogoan entzuleak. Esatea baino gehiago baita argudiatzea. Ez da hitz egitea eta kito. Argudiatzea zerbait azaltzea da, halako moldez non tesia argi eta garbi azaltzeaz gain, erakargarri izateaz gain, entzuleengan adostasun-sentipen bat sortu behar baitu, norberaren arrazonamendua konbentzimendura eramateko, nahiz iragartzen edo iradokitzen diren ekintzetan parte har dezan pertsuaditzeko.

Hurbiltasun hori ahalbideratzeko irizpideak dira ondoren azalduko direnak.

3.2. MINTZAKIDEAREKIKO HITZARMENA ERAIKITZEKO TRESNERIA

Ikus ditzagun egitura praktiko batzuk, aldarrikatzen dugun oinarrizko hitzarmena egingarriago izan dadin. Entzulearekin hitzarmena eraikitzea du helburu azpi-atal honek. Tresneria ideatiboa eskainiko da lerro hauetan; tresneria bat, ideiak hitzartzen hasteko helburuari ekiteko.

Ezer baino lehen, entzuleen onespena eta hitzarmena behar ditu hitzaldiak, abiapuntu gisa. Abiapuntuko adostasuna bi entzule motari begira landu ohi du hizlari onak: entzule unibertsalari begira bata, eta bestea esparru txikiagoko eta jakineko entzuleari begira.

3.2.1. Hitzarmen-ereduak entzuleria unibertsalari begira

Esparru handikoa da *entzuleria unibertsala*. Hizlariak aurrean du ezaugarri konplexuko entzule-taldea. Handia eta heterogeneoa da taldea. Ikuspuntu horretatik begiratuta, hizlariaren arma onena *balio unibertsalei* eustea izan daiteke; hala egin ohi da gainera. Baina, zeintzuk dira horiek?

Esparru unibertsal honetan, abiapuntuko hitzarmena lantzeko tresna gisa, bai arau orokorra, bai gertakariak eta bai egiak eurak daude alde batetik; eta, bestetik, presuntzioak, beste maila apalago batean, jakina.

Ikus ditzagun horiek guztiak, banan bana. Gogora dezagun helburua: hasierako hitzarmena bideratzea, lehen kontaktu intelektuala ahalbidetzea.

Arau orokorra

Abiapuntuko hitzarmena lortzeari begira, argumentatzen hasteko orduan, batzuetan *arau orokorra* deitutakoaren alde egiten da, norberaren tesiak babesteko, nahiz aurkariarenak zigortzeko. Komunitateak onartzen duen sinesmen bat, iritzi bat edo ideia bat du oinarritzat argudio-eredu honek. Sinesmen horren gainean eraikitzen da tesiaren aldeko lehen urratsa.

Zenbat eta sozialki onartuagoak izan igorleak goraipatzen dituen oinarrizko iritziak, orduan eta sinesgarriagoak egingo zaizkio hartzaileari igorleak planteatutako tesiak, orduan eta sinesgarriago egingo zaio hitzarmen-aukera hartzaileari.

Arau orokorra bilatzea zaila da. Agian, ezinezkoa da arau orokorra *unibertsal* bihurtzea. Erkidego bakoitzak bere arauak dauzka. Zaila da.

Adibide bat eskaintzen da ondoren. Tamalgarria. Bere mugak dauzka, eta handiena bere ondorioetan aurkituko duzu. Arau orokorra, on orokorra baliatu gura lukeen adibide arrazista da orain irakurriko duzun hau:

Unibertsalki onartua:

> Inork ez du zikinkeria eta zaborra etxean bertan gura. Gaixotasun askoren sorburu dira horiek, eta gure bizitzatik baztertu beharrekoak.
>
> Denok nahi dugu garbitasuna eta eritasunik eza.

Jauzi arrazista:

> Zikinak dira arrazazko gutxiengoak. Zikinkeriak eritasuna dakar. Desoreka. Deserosotasuna. Ezin bizitzea. Ez dugu zikinkeriarik gura.
>
> Aparta ditzagun bizitza kolektibo orokorretik beltzak, mairuak, kanpoztar horiek guztiak. Bizi daitezela euren ghettoetan.

Gertakaria

Gertakariak benetako *gertakaritasun* onartua behar du, ongi funtzionatzeko. Abiapuntuko hitzarmenerako oinarria eman diezaguke gertakariak, baldin eta *de facto* modu unibertsal batean horrela onartua baldin bada. Baina jakin beharra dago erabateko adostasuna lortzea ez dela beti erraza, ez eta, batzuetan, posible ere.

Gertakari batek bere hitzarmen-ahala gal dezake, baldin eta entzuleek inolako garrantzirik aitortu ez badiote lehenagotik, edo zailtasunak baldin badituzte kontatua izan den moduan sinesteko, edo baldin eta kontatzen dena *unibertsala* ez bada eta talde txikian eta itxian kontuan hartzeko modukoa bakarrik bada, hala baldin bada ere.

> Presidente jaunak egoki baderitzo, eguraldia ikustera noa, orain, botoa emateko inor zain ez dugula. Ez zuen suspirio bat besterik behar izan, jauzi batean joan eta atoan itzuli zen pozarren, berri ona zekarren, Bikain, askoz gutxiago egiten du, ia ez du euria ari, eta zeruan argi-guneak ikusten dira. Gutxi falta izan zen, mahaikideak besarkatzen hasteko (Saramago, 2004: 24).

Goiko adibide horretan, eguraldiaren berria, gertakaria, ez da susmopean jarri, eta horrek bide ematen du denek antzerako interpretazio bat egiteko: baldin eta euririk ez badu egiten, jendea erruz hurbilduko da botoa ematera eta litekeena da hauteskunde-prozesua arrakastatsu izatea. Zeren, nobelaren hariari segituta, erraz ikusten baita ezen, baldin eta eguraldia aldatzen ez bada, inortxo ere ez dela hurbilduko hautestontzietara eta prozesua zalantzagarria bihur daitekeela. Atertzearen gertakariak poza sor lezake, hauteskundeak modu itxaropentsuan ikus ditzaketenen artean.

Eztabaidatua ez den gertakari bat erabili behar da beti abiapuntuko hitzarmen gisa. Lehen duda sortu bezain laster galtzen du gertakari batek bere abiapuntuko hitzarmen-indarra.

Balizko gertakari baten balizko indar unibertsala zapuzteko, nahikoa ohi da esatea faktu moduan aurkezten den hori *gertakari* bat barik *ondorio* bat dela, konklusio bat; horrela, argudio osoa erraz bota daiteke hankaz gora. Adibidez, goiko horretan, norbaitek esan balu: «zure nahia da hori, ez du atertu behar, baina zu, irriki bizian zaudenez hauteskundeak salbatzeko, ez zara euri-jasaren indarra atzemateko gauza». Hartara, gertakariak *adostasun naturala* galtzen duenean, hitzarmena eraikitzeko bere ahala ere galtzen du.

Unibertsalki onartua den hori jotzen da faktutzat. Faktuak eta gertakariak erraz egiazta daitezkeen horiek dira. Eta erraz egiazta daitezkeen horiek dira abiapuntuko hitzarmen unibertsala ezartzeko aproposak, benetan aproposak diren bakarrak.

Zaila da, lehenago ere aitortu dugu. Adibidez, ez esan Iparburuan: «eguzkia egunero ateratzen da». Gure artean bai; poloetan, aldiz, eguzkia ez da egunero esnatzen. Zenbait unibertsal *ustezko unibertsal* baino ez da, alegia, amets mikrozentrikoen emaitza.

Egia

Gertakariak baino zailagoak dira egiak, abiapuntuko hitzarmen gisa erabiltzeko. Egiak sistema baten barruan ulertu behar izaten dira, eta egietan bat egiten dute gertakariek eta haiek interpretatzeko ikusmolde filosofikoek edo erlijiosoek, historikoek nahiz literarioek.

> Egia bada inork zalantzan jartzen ez duena, alegia erromatar herriak beste leinu guztiak gailendu zituela adorean, ezin uka daiteke erromatar herriak indarrean nazio denak batera gainditu zituen neurri berean nabarmendu zela Hanibal… (Nepote, *Gizon ospetsuei buruzkoa: Hanibal*, I, 1).

Adibide horretan, gertakaria da *erromatarrek gainerakoak uzkaldu zituztela*. Baina, euren *adoreagatik* uzkaldu al zituzten?

Azter dezagun egiaren nondik eta norakoa.

G gertakariaren izangarritasunak eta *S* sisteman dugun konfiantzak *E* egia sinestera garamatzate; hau da, $G + S = E$. Jakina denez, dena da *nola begiratzen zaion*. Baina areagotu egiten da hitzarmenaren indarra egiekin, oro har.

Erromatarren garaipenetan, indar-nagusitasunak eta prestakuntza militarrak ez al zuten zerikusirik? Adorea al da garapenaren benetako arrazoia?

Presuntzioak

Egiez eta gertakariez gain, hizlariak baditu beste erreminta batzuk ere: presuntzioak. Ohikoa da hizlariak pentsatzea baduela zelanbaiteko aurre-hitzarmena entzuleriarekin, entzuleak bera entzutera joan baitira; edo bere egunkaria erosi dutelako; edo irrati-dialean emisora jakin bat hautatu dutelako.

Logikoa da hori pentsatzea, uste izatea. Baina hori presuntzio bat da. Halako kasuetan, presuntzioen kasuetan, oso lotura ahulak ditu hizlariak entzuleekin; baina lotura ahul horiek ere baliagarriak izan litezke, hitzaldiaren hasierari ekin behar zaionean.

Esandakoaz gain, askotariko presuntzio motak daude: kalitate-presuntzioa (pertsonaren sinesgarritasunak handitzen du argudioaren sinesgarritasuna), sinesgarritasun-presuntzioa (baldin eta entzuleriak susmo txarrik ez badu aldez aurretik, naturalena da sinestea lehen mementoan esaten zaiguna), interesgarritasun-presuntzioa (entzuleak entzutera joan dira, interesen bat duten seinale), presuntzio erlatiboa (gure ezagutzara heltzen den guztia interesgarria izan dakiguke, baina ez modu biribilean eta absolutuan).

Normala eta *sinesgarria* denarekin dago lotuta presuntzioa: «antzekotasunaren efektuan jaiotzen da egiantzekotasuna» (Kristeva, 1981: II, 13). Beraz, sinesgarria dena egia izan liteke; presuntzio hutsa, jakina. Horrekin jokatu behar du

hizlariak. Entzulearentzat, presuntzioa sinesgarria izango da benetan izandako edo gertatutako zer batekin eduki lezakeen antzekotasunaren arabera; zenbat eta antz handiagoa izan, orduan eta sinesgarriagoa egingo da presuntzioa.

3.2.2. Hitzarmen-ereduak esparru txikiagoko entzuleriari begira

Entzuleria unibertsalari begira izan dakizkiguke baliagarriak bai arau orokorra, bai gertakaria, bai egia, baita presuntzioa bera ere, abiapuntuko hitzarmena ezartzeko unean. Baina, horietaz gain, badira zenbait lan-tresna abiapuntuko hitzarmena adosten lagun lezaketenak, batez ere unibertsalaz beherako auditorioak kontuan hartuta. Zerrenda agortzeko asmo barik, har ditzagun kontuan honako hauek: balioak, hierarkiak eta hobetsitako lekuak.

Balioak

Oinarri-oinarrizkoa da pentsatzea ezen balioen mundua esparru zehatz eta jakinetan izan daitekeela baliagarria, ez ostera esparru unibertsalean; balio asko eta asko espezifikoak dira, lokalak, kultura-aztura bati lotuak edo ohituraren batetik eratorriak. Balio batekin bat etortzeak esan nahi du objektu baten inguruan, pertsona baten inguruan edo ideia baten inguruan nolabaiteko adostasuna duela norbaitek, eta, kasua baletor, horien alde zerbait egiteko konpromisoa hartzeko prest egon litekeela nor hori. Zenbat eta zehatzago izan abiapuntua, balio adostua, balizko adostasun hori errazago lortzen da; errazago izango da adostasuna erdiestea esparru txikietan handietan baino.

Jar dezagun adibide bat. *Zuhurtzia* bada aintzakotzat hartzen diren bertuteetako bat, balio on moduan kalifikatua izan litekeena, behintzat gure gizarte euro-zentrikoetan. Bada onartutako zerbait da gure artean norbera zentzuzkoa izatea eta zentzuzkoak egitea; agian modu errazagoan adinekoen artean, gazteen artean baino. Baina, esan genezake ezen gauzak kontuz, arretaz eta arduraz egitea oro har aintzakotzat hartzen den zerbait dela.

Baina, kontra-baliabide moduan ere erabil daiteke balioen aipamena. Hizlari batek balio bat jartzen baldin badu bere argudioaren lehen oinarri gisa, argudio oso hori jar daiteke arriskuan, esanez, batetik, balizko balio hori ez dela hainbesteko balioa, eta, bestetik, aurkariak goraipatu duen hori baino lehenbizikoagoak direla beste balio batzuk eta, hartara, abiapuntuko balizko balio horrek men egin beharko liekeela horiei, beste ezer baino lehen; eta are gehiago, esanez ezen men egiten ez badie, ez dela kontuan hartzeko modukoa izango.

Adibide argigarria begien aurrean jartzearren, esate baterako, batek esan lezake: *giza eta gizarte-balioa izanik ere herrien autodeterminazio-eskubidea, ez da kontuan hartzeko modukoa, harik eta, dena delako herri horretan, zeinarentzat eskatzen baita autodeterminazio-eskubide hori gizarte-balio moduan, harik eta ausaz enfrentaturik dauden aldeen arteko bakea bermatzen ez den artean*.

Objekzio ugariren gunea izan daiteke balioen aipamena eta goraipamena.

Nolanahi ere, balio partikularrak balio unibertsalekin erlaziona daitezke, eta horrela hobeto *abestuko* dute entzuleen belarrietan. Zenbat eta esparru unibertsalagora eraman balio jakin bat, orduan eta onargarriagoa izango da entzuleria zabaletan. Bai eta esparru txikiagoetan ere, seguru asko.

Balio guztiek ez dute arrakasta bera lortzen publikoarengandik. Argudiatzearen teorian, balio *abstraktuak* eta balio *konkretuak* aztertu ohi dira, bai eta euren arrakasta orokorra ere. Balio abstraktuen arteko errekurrente batzuk *justizia* edo *egiatasuna* dira; konkretuen artean, aldiz, *Frantzia* edo *Eliza*.

Bada, balio abstraktuak oso dira baliagarriak kritika egiteko, eta egokiak dirudite ezarritako ordena aldatu gura duenarentzat. Balio konkretuak, aldiz, egokiagoak dira denari, *statu quo*ari, eusteko. Errazagoa da balio konkretuei eustea politika kontserbadoreetan; aldiz, gauzak irauli eta aldatu gura direnean, badirudi buruak eskatzen duela argudioa balio abstraktuetan oinarritzea.

Hierarkiak

Kasu batzuetan, abiapuntu gisa, argudioak hierarkietan oinarritu beharra du. Era askotako hierarkiak daude. Batzuk oso dira indibidualak, beste batzuk kolektiboagoak dira. Oro har, onartua da gizakia animalia baino goragoko maila batean dagoela izakien hierarkian, jainkoak goragokoak direla gizakiak eurak baino, eta abar. Hierarkiak oso lotuta daude ohiturekin, bai eta pentsamenduarekin ere, edo egituraketa sozialarekin. Ez da erraza balio unibertsal moduan erabili ahal izatea hierarkia, argudio batean.

Balioetan gertatu den modu berean, hierarkiekin ere gertatzen da: kasu abstraktuak eta konkretuak daudela. Eta gizakiaren nahiz taldearen jarrerak desberdinak izan daitezke baten zein bestearen aurrean. Hierarkia konkretutzat jo izan da gizakiaren nagusitasuna, animaliekiko erkaketan; abstraktutzat justiziaren nagusitasuna, erabilgarritasunarekiko erkaketan.

Baina balioekin gertatzen dena gerta liteke hierarkiekin: entzuleria batean baliagarria dena, agian, ez da onargarria beste batean.

Hona adibide bat:

> Etsita zegoen batek bota zuen: “goikoek onartu eta irensten badute, baita nik ere” (Benedetti, 2004: 58).

Alegia, *ni baino gehiago diren horiek onartzen badute egoera, bat egiten baldin badute egoerarekin horiek, nik ere antzera egin beharko dut.* Norberaren gainekoek irentsia bada, norberak irensteko modukoa ere bada.

Eta beste bat:

> Hara: gizartea da arrazoidun gizakiaren ona. Denborak frogatu du aspaldi ezen gizarterakoak garela. Ala ez dago argi behe-mailako izakiak goi-mailakoen arrazoia dela-eta direla, eta goi-mailakoak batzuen eta besteen arrazoiak direla-eta? Inanimatuen gainetik daude animatuak, eta horien gainean arrazoiz jantzitakoak (Marko Aurelio, *Gogoetak*, V, 16).

Joko handia eman ohi du hierarkiak arrazoizko testuetan, zaharretan legez modernoagoetan.

> Esan liteke ezen defentsa-ministroa ez dela den-dena, zeren defentsakoaren gainetik lehen ministroa izan ohi da eta hark honi zor dio errespetua eta onarmena, eta are gorago dagoela estatu-burua, zeinari beste horren besteko mendekotasuna edo agian handiagoa zor zaion (Saramago, 2004: 192).

Hobetsitako lekuak

Ezaugarri oso orokorreko premisak ere izan litezke abiapuntuko hitzarmena bilatzen duten lan-tresnak. *Leku* deitzen zaie horiei. Leku horiek, hobetsitako leku horiek, abiapuntuko hitzarmena oinarritu nahi duten leku horiek (*topos* edo *topiko* deituak zenbait tratatutan), askotarikoak izan daitezke. Aristotelesek ezarritako sailkapenari erreparatuz gero, oro har, *komunak* eta *espezifikoak*. Leku komunak baliagarriak izan daitezke edozein zientziatan; aldiz, espezifikoek jakintza-arlo nahiz entzuleria jakinetan baino ez dute arrakasta izango.

Ikus ditzagun hitzarmena ahalbidetzen lagun dezaketen topiko horietako batzuk: kantitatearen lekua, kualitatearen lekua, ordenaren lekua, badenaren lekua eta sen ona.

Kantitatearen lekua deitutako horretan, argudio kuantitatiboaren oinarria ikusten da. Oro har, gizartean onartuta dago hobea dela ontasun kopuru handia, txikia baino, hobea dela helburu askotarako baliagarria izan daitekeen ontasuna, gutxirako balio lezakeena baino. Onuradunen kopuruaren arabera da onargarria kantitatearen lekua; zenbat eta gehiago izan, orduan eta hobe. *Hobe da asko, gutxi baino* izan daiteke adibide ilustratzailea. Gehiengo-gutxiengo ardatza marrazten da kantitatearen lekuan, eta, kasu askotan, demokraziaren beraren funtzionamendua horretan oinarritzen da.

Kantitatea, kopurua, askotan da arrazoia eraikitzeko bide bat, edo arrazoi bati zelanbaiteko indar bat gehitzeko.

> Kasualitatez ez zara zu izango antolatzailea, erantzulea, sistema demokratikoa hiltzeko moduko arriskutzat har litekeen batean jarri duen mugimenduaren burua, Ze mugimendu subertsibo, jakin nahi zuen berak, Boto zuriena, Esaten ari al zara boto zuria subertsiboa dela, galdetu zuen berriz berak, Kopuru handian bai, bai jauna (Saramago, 2004: 305).

Testu horretan, boto zuria ez da arazoa, haien kopuru handia baizik. Hala defendatzen da testu horretan. Balizko kasu horretan, hauteskunde demokratikoek funtsa galtzen dute, inork boto jakinik ematen ez duelako.

Kualitatearen lekua ere badago, hobetsitako lekuen baitan, lehenago esan dugunez. Kualitatearen lekua deitutako horretan, zalantzan jartzen da zenbakiaren erabakigarritasuna, eta, aldiz, kausaren ezaugarri kualitatiboa hobesten da. Inor gutxietsi gabe, batez ere kualitatearen lekua eskatzen dute erreformazaleek, aldaketa nahi dutenek, iritzi komun ezarria zalantzan jartzen dutenek.

Irakurketa horretan, kualitatearen irakurketan, argi uzten da ezen egia ezin daitekeela zanpatu, aurkarien kopurua edozein delarik ere. Tropeletik urruntzen ikasi beharra dagoela adierazten du kualitatearen lekua darabilenak, abiapuntuko hitzarmena ezartzeko unean. Ildo horretatik, asko eta gutxiren gainetik dago justua edo injustua, egia edo gezurra, askatasuna edo zanpaketa…

Egin dezagun beste urrats bat hobetsitako lekuetan barna. Hitz egin dezagun ordenaz. *Ordenaren lekua* deitutako horretan, baieztatzen da ezen goragoko maila batekoa dela ostekoa barik aurrekoa, ondorioa barik kausa, bidea barik helburua, faktua barik legea, eta abar.

Hona adibide bat. Ordenaren lekukoak izan litezke, esate baterako, espiritu tradizionala islatzen duten zantzuak; demagun, klaseartekotasuna eta desberdinen arteko harremana zalantzazkoa bihurturik, nor bere gizarte-klasekoekin ibili beharko litzakeela dioena:

> Sakristian geunden biok, bera mezatarako janzten eta ni banku batean eserita. “Zu bezalako gazte batek bere kidekoekin ibili behar du. Ezin da mundutik apartatu”, baieztatu zuen isilik gelditzen nintzela ikusita (Atxaga, 2003: 94).

Edo, itxuraz antzekoa izan arren, ironiaren tonu mikatza jariatzen duen honako beste hau:

> “Nor da hire aitarekin datorrena?”, galdetu zuen osaba Juanek. “Monsieur Nestor, frantseseko irakaslea”, esan nion. Bisitagatik urduri nengoelako-edo, iseka tonua atera zitzaidan monsieur Nestor ebakitzerakoan. “Oso gizon zintzo eta jakintsua da”, gaineratu nuen azkar, gaizki esana zuzendu nahian. “Goazen kanpora, gizon horiek dotoregiak dituk pabiloi batean sartzeko”, esan zuen osaba Juanek (Atxaga, 2003: 98).

Hobetsitako lekuei eskainitako tarte honetako azken maila igoko dugu orain, *badenaren lekua* ikusteko. *Badenaren lekuak* baieztatzen du ezen badena, erreala dena, egungoa dena, besteen gainetik dela, goragoko maila batekoa dela balizkoa baino, balitekeelakoa baino edo ezinezkoa baino. Beraz, ez direnen gainetik daude badirenak. Horrela defendatu izan da askotan.

Buka dezagun. *Sen ona* deituak ere lagun dezake hitzarmena ezartzen. *Sen ona* deitzen diogun hori da gizarte edo talde jakinetan normaltzat har daitekeena, alegia, gizarte, komunitate edo talde jakin horretako edozein kidek *arrazoizkotzat* jo lezakeen sinesmen, ohitura eta portaera multzoa.

Berezko arrazoitzat har genezake *sen ona*. Taldean komunean duguna ohi da hori. Zentzuzkoa iruditu izan zaiguna. Esparru jakineko entzulerietan, *sen on* hori abiapuntu ederra izan daiteke hitzarmena garatzeko.

Gure artean, esate baterako, toki gutxitan sortuko du arazoa honako honek:

> Dabilen harriari ez zaio goroldiorik lotzen (Lertxundi, 2004: 29).

Izan ere, jakina da goroldioak oinarria behar duela bere erro-sareak hedatzeko, edozein landarek bezala. Zalea da goroldioa harri umel eta bustietan egokitzeko.

Ibili dabilen harriak ez dio ez aukerarik ezta patxadarik ere emango goroldioari, haren gainean itsasteko.

4. Argudioa eta dialektika

Edozein gairen aurrean oso da garrantzizkoa eta ezinbestekoa kritika sustatzea, eta, horretan, zeregin aparta du kazetariak. Pentsamendua garatzeko ahaleginean eta pentsamendua sozializatzeko ahaleginean, kritika nahiz autokritika ardatz saihestezinak dira. Horixe hartu nahi du atal honek gogoan.

Atal honetan, hiru urrats nagusi egingo dira. Alde batetik, argudioa zalantzazkoa bihurtzeko jarrai litekeen bidearen azalpena eskainiko da; diogun bideak kontrako argudioa eraikitzeko lan-tresna logikoa eskainiko du. *Errefusaren anatomia* deitu zaio ariketa horri.

Bestetik, bide logiko eta paradigmatiko orokorretik harago, zenbait argudioereduri egin dakiokeen kritika jakina eta zehatza eskainiko da atalaren bigarren urratsean. *Errefusaren practicum*-a deitu zaio kritika-bide horri.


Hirugarren urrats batean, norberaren argudioei eusteko gutxieneko lan-tresna batzuk azalduko dira. Eztabaidan, giltza da besteei kritika egitea, bai eta norberarena indartzea ere. *Norberarenari eustea* deitu zaio azpiatal horri.

4.1. ERREFUSAREN ANATOMIA

Gezurtatze edo *errefutazio* deitu ohi zaio inoren edo norberaren argudioei aurre egiteari. Argudio guztiek dute ardatz moduko gairen bat; diskurtso horretan ondorio bat eskainiko da, eta, hari eusteko, zenbait premisa edo arrazoi. Zalantzazko bihurtu gura du errefusak ardatza, premisa edo ondorioa bera.

Oro har, argudio bati aurre egiteak esan nahi du: a) argudioa gaizki eraikia dela frogatuko dela, edo b) kritikatzen den diskurtsoan, faltsuak direla aurkezten diren frogak eta hori argitu ahal izango dela.

Ikus dezagun errefusaren anatomia diagrama batean (Capaldi, 2000: 106), eta, ondoren, zenbait adibide berori ulertzeko.



Hona koadro horren azalpen-bidea.

A. Barne-kontraesana. *Argudio batek barne-kontraesanak ditu, baldin eta bere premisetako batek ondorioa ezeztatzen badu, edo premisak eurak euren artean kontraesanean badaude*. Berez ezeztatzen du barne-kontraesanak argudioa.

> Sokrates eta Eutifronen arteko elkarrizketa famatu bat da eredu honetako adibide klasiko bat. Hartan, Sokratesek pietatea zer den galdetzen dio Eutifroni. Erantzuna modu desberdin bitan ematera behartzen du Sokratesek mintzakidea, eta, hartara, Eutifronek honetara definitzen du pietatea: ekintza errukiorra da baldin Jainkoek aintzakotzat hartzen badute, eta adeigabea (inpioa) haiek errefusatzen badute.
>
> Ekintza errukiorra da ala adeigabea? Definizioaren barne-kontraesana begien bistakoa da.

B. Gertakari objektiboen dantza. *Argudio bat egon liteke gertakari objektiboekin aurkakotasun zuzenean baldin eta, batetik, premisak nahiz eskainitako arrazoiak faltsuak badira (C), eta, bestetik, baldin eta ondorioaren emaitzak faltsutzat har badaitezke (D).*

Adibide bat honako hauxe izan liteke: argudioa hasten da industriak eragindako poluzioa salatzen, eta amaitzen da teknologia oro har salatuz, planeta honetako biziarentzat arriskutsua dela argudiaturik.

Teknologia oro ez da kutsadura-sortzaile, jakina denez.

Argudioa ez da zuzena.

C. *Eskaini diren arrazoiak nahiz premisak faltsuak dira, edo onartezinak, ondorioztatutakoa pertinentea ez denean (F), edo, beste barik, premisak faltsuak direla froga litekeenean (E).*

Esate baterako: adierazteko gaur egungo euskaldunak duela berrogei urte baino jakintsuagoak direla jaiotzez, esatea, horren froga gisa, "inoizkorik eta unibertsitario kopururik handiena duela Euskal Herriak", argudio okerra da.

Ez du lotura pertinente zuzenik: unibertsitateak jaitsi zitzakeen bertara sartzeko baldintzak.

E. *Arrazoi nahiz premisa bat faltsua dela frogatu ohi da bide zuzenetik nahiz zeharkakotik.*

Jakina da hemezortzi urteko gazteek eta are gazteagoek ere alkohola kontsumitzen dutela; demagun faktu hori onartu eta legeztatu nahi dela. Horretarako eskaintzen den argudioa da *hemezortzi urterekin aberriaren alde eman lezakeela gazte batek bere bizia trintxeretan, soldadu gisa, eta, hala ere, ez zaiola legalki onartzen nahikoa nagusi dela alkohola bere kabuz kontsumitzeko.*

Nola aurre egin horri? Hona hemen hiru aterabide:

1. Egin litekeena da onargarria den beste premisa berri bat erantsi argudioari eta ondorio faltsu nabarmen batera heldu. Esate baterako, esan liteke: "eskuarki andrazkoak ez dira deituak izaten soldadutzara, eta, hartara, ez al zaie onartuko alkohola kontsumitzea?".

2. Edo, bestela, ondorio berri batera hel liteke, eta azken hori lehen harekin kontraesanean dago. Esan daiteke, "eta inoiz onartuko balitz hamasei urterekin soldadutza egitea, onartu beharko al litzateke hamaseirekin alkohola kontsumitu ahal izatea?".

3. Edo, beste hau: "eta boluntario-armada balitz armada, boluntarioek bakarrik izango al lukete alkohola kontsumitzeko eskubidea?".

F. *Premisa bati aurre egiteko, metodo bat da esatea planteatzen duena dela salbuespen ugari eta ezagunak dituen orokorkeria desegoki bat.*

Aurreko adibidearekin jarraituta, esan liteke ezen hogeita hamabostetik gorako gizonak nekez deituko direla soldadutzara, baina ezaguna dela alkoholaren kontsumoa onartzen zaiela, adinez nahikoa nagusi direlakoan.

Beraz, alkoholaren kontsumoa ezeri lotuta egotekotan ez dago soldadutzari lotuta, beste zerbaiti baino.

4.2. ERREFUSAREN PRACTICUM-*A*

Azpiatal honen helburua zehatza da: zenbait argudio-ereduren ahuleziak begien bistan uztea. Hemen eskainiko diren kontraesanek eta kritika-bideek ez dute gaia agortzen, inolaz ere; izan ere, neurgaitza baita argudioen kritikaren unibertsoa, eta hizlari bakoitzaren abileziari begira dago[3].

4.2.1. Aieruzko usteak

Aieruzko uste guztiek dute ahuleziaren bat.

Aieruzko usteak gertakaria saihesten du orokorkerietan erortzen denean, generalizazioa zabalegia denean, generalizazioa arinegi egindakoa denean, edo beste egokiagoren baten ordez lege desegoki bat ezartzen duenean. Argudio ahulekin dabilenak maiz planteatzen du beharrezkoa ez den bidegurutzea: “edo nirekin zaude, edo nire aurka”.

Aieruzko usteetan, gertakariei ihes egin ohi diegu, zeren benetakotzat hartzen baitugu frogatu ez den zerbait. Demagun parlamenturen batean diputaturen batek galdetzen duela “orduan, non gastatuko dugu gehiago: ohiko armamentuan ala misil balistikoetan?”. Galdera horrek suposatutzat jotzen du dirua gastatu behar dela armagintzan. Baina frogatu egin beharko den premisa bat da hori. Beraz, halako aieruzko uste bati erraz erantzun dakioke honela: “baina, non erabaki da gastua egin egingo dela?”.

Batzuetan, distortsionatu egiten dugu gertakaria, hartzailearen atentzioa desbideratzeko. Demagun baieztapen hau: “XX. mendean Estatu Batuek gerra batean parte hartu dutenean, gobernua demokrata izan da”. Horrela izanik ere, hau galdetu beharko litzateke: “hori al da gerran sartzearen arrazoia, eta gerran segitzeko erabateko arrazoia al da gobernua demokrata izatea?”.

4.2.2. Errukia

Batzuetan, entzuleen oniritzia irabazteko, hizlariak entzuleen errukia deitzen du bere tesien alde.

3. Azpiatal hau indartzeko, kontsulta ezazu 9.4.

Eta horrela jokatzen duen hizlariaren aurrean, zer? Bada, erruki-dei hori premisa orokor bat bailitzan hartu behar da; ondoren, entzuleek onartuko luketen beste premisa berriren bat gehitu behar zaio aurkariaren argudioari, azkenean konklusio desberdin batera heltzeko.

Demagun aurkariak dioela arma atomiko guztiak deuseztatu beharko genituzkeela. Eta, horri eusteko, Hiroshimako kasuaren deskribapena egiten du, bai eta haren ondorioen salaketa ere. Publikoari zuzendu zaio, errukia eskuan hartu du: "hori gizateriari eragin zaion mina, hori min ikaragarri eta gaindiezina (bonba atomiko horrekin)!".

Nola erantzun beharko litzaioke horri? Kasu jakin horretan, modu bakarra da esatea "baldin eta Estatu Batuek bota izan ez balute bonba hori Hiroshima gainera, gerra konbentzionalaren jarraipenak askozaz hildako gehiago eta sufrimendu handiagoa eragingo zukeela, bai japoniarren lerroetan, baita estatubatuarrenetan ere".

Biribildu nahi bada, esan: "zenbat haur japoniar nahiz estatubatuar ez ote daude bizirik, bonba atomikoa botatzearen balentria handi hura dela-eta!".

4.2.3. Autoritatea

Autoritatearen argudioa askotan erabilitako argudioa da. Alegia, baieztapen bat berez da on eta onargarri, *halakok* esan edo egin duelako. Horixe da autoritate-argudioa.

Autoritate-argudioaren aurka, sarritan erabili da *ad hominem* kontraerasoa.

Esan liteke ezen dena delako autoritate hori, pertsona moduan, eredu izatetik urrun dagoela, inori ez litzaiokeela gustatuko haren ondoan izatea edo bizitzea.

Esan liteke ezen dena delako autoritate hori oso susmagarri den talde bateko kide dela, eta taldeak ez duela inolako lasaitasunik islatzen bere agerraldi publiko nahiz pribatuetan.

Esan liteke ezen oso bestelakoak direla balizko autoritate horrek dioena eta praktikatzen duena. Era berean, ohikoa da esatea balizko autoritate hori bere munduan bizi dela, mundu errealetik at, eta esan lezakeena funtsik gabeko amets eroa besterik ez dela.

4.2.4. Ad populum

Argudio-eredu honetan, baieztatzen denaren indarra lortzen da esanez ezen mundu guztia datorrela bat babestu gura den tesiarekin. Esaten dena da baieztapenaren oinarrian dagoena *normala* dela, *naturala* dela, hots, gehiengoak onartzen dituen jokamoldeekin datorrela bat. Herrikoitasun handikoak suertatzen dira *ad populum* apelazioak.

Estilo horretako argudio baten aurrean, batetik populismoa borrokatu liteke; eta, bestetik, borrokatzen den baieztapenaren ordez, onarpen zabalagoko argudio bat eskaini. Alegia, *ad populum* ereduko apelazioak larrutu. Edo herrikoitasun handiagoa lor dezakeen neurri berri bat proposatu, hordago moduko bat.

4.2.5. Inkestak

Inkesten aurrean jarrera bi har litezke: batetik, aurkezten diren datuak eurak eztabaida litezke, dudatan jarri, eta agian faltsuak direla erakutsi; eta bestetik, datuak eurak aintzakotzat hartuta, datu horien irakurketa, interpretazioa eztabaida daiteke.

Datuak eurak jarri gura direnean zalantzan, lagina ez dela egokia argudia liteke; hori horrela, ezin izango da aintzakotzat hartu inkestaren emaitza. Inkestaren barne-ahuleziak azaleratzeko, galde daiteke: "ba al da errepresentatzailea inkesta, denbora-parametroak kontuan hartuta?, edo espazio-aniztasuna hartu al da kontuan?, edo geografikoki ondo hautatuak izan al dira mintzakideak?, edo sexua, egoera zibila, adina, nahiz arraza hartu al dira kontuan?".

Era berean, inkesta bati aurre egiteko modu erabakigarria da beste inkesta batzuen emaitzak erakustea.

4.2.6. Definizioak

Baldin eta aurkariak eskaintzen duen definizioa ohikoa ez bada, egin litekeen gauzarik errazena da hori bera salatzea edo hizlaria bera erridikulura eramatea, argudiatuz zertaz hitz egiten ari den ere ez dakiela, jakin.

Batzuetan, definizio batzuk oso dira ilunak, zirkularrak direlako: hasten diren toki berean bukatzen dute. Hona hau: "Jainkoaren hitza da Biblia. Bibliak argi dio Jainkoa existitzen dela. Beraz, Jainkoa existitzen da".

Inoiz, definizioetan, gaiaren atentzioa eremu jakin batzuetara eraman nahi da, beste batzuk, esangura sakonagokoak direnak agian, alde batera utzi ahal izateko.

Adibidez, Nikaraguako presidente izandako Daniel Ortegaren ahoan jarri izan da definizio hau: "Demokrazia da alfabetizazioa, demokrazia da nekazaritza-erreforma, demokrazia da hezkuntza, demokrazia da osasun-zerbitzua".

Definizio horren ahuleziak agerian uzteko, norbaitek galde ziezaiokeen presidenteari "ea demokrazia ez ote den gehiengoaren gobernua, prentsa askea eta alderdi-askatasuna".

4.2.7. Analogia

Bi gauzen artean egon litezkeen antzekotasunetan datza analogien ardatza. Horri aurre egiteko modurik erabiliena da, antzekotasunak barik, ezberdintasunak azpimarratu ahal izatea gauza horien artean.

Erkatzen diren elementuen arteko ezberdintasunak zenbat eta gehiago izan, zenbat eta sakonagoak izan, orduan eta errazago errefusatuko da arerioaren analogia.

4.2.8. Ondorioa

Ondorioa bera ere izan liteke zalantzazkoa, eztabaidagarria. Inoren ondorioari aurre egiteko, ona izaten da haren konklusioa laburbiltzea, baina beste hitz batzuetan alegia, haren argudioaren giltza izan daitezkeen zenbait termino beste eremu batera eramanda.

Kasu baterako, aurkariaren "aldaketa" hitza desitxuratua izan liteke esanez "berrikuntza erradikala" dela; aurkariaren "erlijioaren babesa", esanez "fanatismo erlijiosoa" dela; aurkariaren "legearen eta ordenaren aldeko" apustua, esanez "errepresio politikoa" eskatzen duela.

4.3. NORBERARENARI EUSTEA

Eztabaida batean, jakina, garrantzi handikoa da aurkariaren argudioei aurre egitea, eta, horretarako, zenbait ideia marraztu dira aurreko azpiataletan. Orain bestelakoa da helburua, bestelakoa baina aurreko horrekin lotua, noski. Izan ere, aurkariaren argudioei aurre egitea bezain garrantzitsua da norberaren argudioak babestea, blindatzea: bai edukiz, bai eta formaz ere.

4.3.1. Norberaren ondorioak biribiltzea

Ondorioetan, ondo landu eta zaindu behar dira berbak. Eta, ondorioen atalean, berba *batzuk* azaltzea ia ezinbestekoa eta kanonikoa da, hala nola: *argi guztien arabera esan behar da, benetan esanda, ez dago dudarik esateko, jakina, segurtasun osoz baiezta dezaket*… Horiek guztiek indartu egiten dituzte edukiak, bai eta argudioen alderdi formala bera ere.

Ondorioak biribiltzeko, modu bat izan daiteke adieraztea norberak eusten dion tesiak onura besterik ez dakarrela, eta ondorio baikorra besterik ezin duela espero entzuleak proposamen horietatik.

Bestalde, jakin behar da zein diren norberaren proposamenak sor ditzakeen kontraesanak entzuleria jakin bakoitzean. Horiek aipatu egin behar dira hitzaldiaren amaieran. Ondorengo urrats moduan, baieztatu behar da ezen horiek arazo eta kontraesan guztiak eta bakar bakoitza zuzenduko direla, babesten den proposa-

menarekin. Eta, arazoak erabat zuzenduko ez balira ere, aipatu behar da zuk proposatutako aterabideak beste inorenak baino gehiago lagunduko duela egoera hobetzen.

Azkenean, errepikatu egin behar da tesia; den onena baita.

4.3.2. Defentsaren mekanika

Une orotan zaindu behar da kontrola, kontrolpean eduki behar dira emozioak, eta helburuari oso modu argian eutsi behar zaio, saioak dirauen bitartean, eztabaidan garaile ateratzeko.

Eutsi gogor

Eskuliburu guztietan aurkituko duzu maxima hori. *Nola eutsi?* da kontua.

Bada, hasteko, ez eman aditzera inoiz zeure burua galtzailetzat duzunik, alegia ez onartu inoiz zure porrota. Horixe da itxuraz eusteko ardatz nagusia. Zuk galtzailetzat ematen baduzu zeure burua, besteek ere horrela jokatuko dute; eta galdu egin duzu, benetan. Eutsi zure jarrera fisikoari. Ez makurtu zeure burua besteen arrazoien aurrean. Jar zaitez eskuak gurutzatuta eta entzun atentzioz besteek zer dioten. Txiste bat egin badute, egin barre, ona bada. Egin itxura besteen argudioen apunteak hartzen dituzula. Baina eutsi itxurari.

Ez onartu konbentzitu zaituztenik. Denbora eman duzu zure argudioa eraikitzen, eta une labur bateko dudak ez du zertan arriskuan jarri behar zure arrazoia bere osotasunean. Egongo da denbora norberaren jarrera zuzentzeko, hala behar balitz; baina eztabaidan bertan ez.

Nolanahi ere, ez gutxietsi oposizioa. Horrela eginez gero, inor gutxietsiz gero, larregizko konfiantzarekin ariko zara, ahuleziak agertuko dira zure argudio guztien baitan, damutuko zaizu.

Defentsak berak ere erasoa eskatzen du. Zeureari eustea ona da, ezinbestekoa, baina besteei ere *ziria* sartu behar diezu begian. Besteen aurka egiten ez baduzu, entzuleek pentsatuko dute ez duzula argudiorik, ez duzula ezer berririk esateko, kikildu egiten zarela besteen aurrean, ez duzula adorerik zeureari eusteko. Beraz, argi eduki: defentsa on batek kontraerasoa ere planteatu behar du.

Kontraerasoa jo

Defentsa- eta kontraeraso-joko honetan, hiruzpalau urrats egin litezke, beti ere kontuan hartuta hitzaldiaren azken unetan zaudela, alegia, denboraz urri zabiltzala, eta entzuleek zure hitzak eta beste batzuenak ere entzunak dituztela. Esandakoei euteko eta norberarena indartzeko egin litezkeen urratsen artean daude honako hauek:

Argudioa definitu. Zerbait utzi behar baldin baduzu argi, horixe bera da, hots zure argudioa zein den. Berdin dio besteek zer esan duten; zuk zeurea argitu azken unean. Eta, galtzera zoazela iruditzen bazaizu, esan besteek egin duten gaiaren definizioa ez dela zuk egin duzuna, azken finean ez duzuela gai berari buruz hitz egin eta hori tamala dela, eta noizbait konpondu beharrekoa gainera.

Hordagoa jo. Beharrezkoa ikusten baldin baduzu, uneren batean adierazi ezen zure aurkariak deliberatu duela dena zuri ala beltz ikustea, eztabaidak iradokitzen dituen ñabardura guztiak baztertzen dituela printzipioz, inori ez entzuteko gogoz etorri dela eztabaidara, eta horiek ez direla eztabaidatzeko moduak.

Zure egiak goraipatu. Besteak zure argudioa desegiteko gauza ez baldin badira, zuzena den seinale da; zuk halaxe esan. Inork ezin badu frogatu erratuta zaudela, jardun ezazu benetako arrazoiaren jabe izango bazina moduan. Hartu zure diskurtsotik zenbait ideia, inork zapuztu ezin izan dituenak, horiek mahaigaineratu eta esan arrazoizkoak direla, eta arrazoia zeurea dela.

Inkestak. Salatu badizute ezen zure inkestak ez direla egokiak, eskaintzen dituzun datuak ez direla benetakoak edo inkestaren planteamendua ez dela egokia, eskatu arerioari definitzeko zer den inkesta bat modu egokian egitea, ea nola asmatuko lukeen berak gaiaren konplexutasunean dauden aldagai guztiei erantzuten. Nahastu hor zure aurkaria.

Testuinguruz kanpo ari zarela badiote, adierazi egin dituzun aipuak zuzenak direla, eta oso datozela harira; "edozeinek ikus lezake hori" gaineratu. Burugogortzat eta tematitzat jo aurkaria, esanez: "baldin esaldi bat aipatzen badut, aurkariak paragrafoa eskatzen dit testuinguruaren izenean; baldin eta paragrafoa ematen badiot, kapitulu osoa eskatzen dit… azkenean, hizkuntza horretan idatzi den guztia aipatzea eskatuko dit… absurdua da jarrera hori". "Esan nahi nuena esan dut, eta argi dago" esanez bukatu.

Inkoherentzia. Inkoherente izatearen salaketaren aurrean, lehenbiziko lana da hori ukatzea. Holako salaketa baten aurrean egin dezakezun onena da esatea: "gaizki ulertu dira nik azaldutakoak"; eta, ondoren, errepikatu zure tesia. Gainera, jakin behar duzu ezen aurkariak salaketa hori egin dezakeela arrazoirik gabe, zu urduritzeko asmo hutsez; ez ahaztu hori. Baina, era berean, litekeena da zure argudioan inkoherentzia bat egon izana; holako kasuetan, esandakoa beste hitz batzuetan jarri, eta ezabatu kontraesana.

Desbideraketa. Baldin eta ikusten ari bazara zure argudioak ez duela jomugan asmatzen, galtzen ari zarela, egin zenezakeen gauza bakarra da, agian, atentzioa desbideratu. Jada ezin badiozu sarreran esandakoari eutsi, ezinezkoa bazaizu zure tesiari eustea, alboko gai bat hartu, hurbilekoa baina albokoa, zuk ondo menderatzen duzuna. Hortik segi, eta emango du lemari eusten diozula.

Perfekzioa. Badago beti aukera bat: zure argudioa ona da, baina ez perfektua. Ados. Esan behar duzu ezen, hala ere, horrek ez duela esan nahi zurea ez denik aurkez litekeen aterabiderik onena. Gogoratu hori entzuleei. Eta esan egiten zaizkizun kritikak hor daudela, baina, "zer da hobe? ezer egin gabe segitzea ala zuk planteatzen duzunari ekitea? zeren ez baitago alternatibarik!".

Parra egitea. Inoiz horretara jo beharko duzu: ezin irabazi, baina ez horregatik galdu! Parra egitea izan daiteke aterabide duin bat. Gogoratu ardatz nagusia: ez eman zure burua galtzailetzat! Ezin baduzu aurkaria gainditu, esan aurkaria zure tesia ari dela defendatzen, beste ikuspuntu batetik, jakina.

Besterik ezin baduzu egin, eztabaidan aurreratu diren gairik nabarmenen laburpena egin, zeureak eta besteenak bilduz; saiatu laburpen baikor eta adiskidantzazkoa egiten, eta, azkenean, gonbidatu aurkaria elkarlanean aritzera, egiaren bila elkarrekin lan egitera.

Eta patuak lagun zaitzala.

BIGARREN ATALA:
argudioa, etika eta sormen-lana

Sarrera.
Argudioaren etika

Jakina denez, modernitateak ezin izan ditu bete behinola sortu zituen itxaropen guztiak. Ez da garatu denentzako berdintasunaren eta justiziaren ametsa.

Gizakia eta gizartea ulertzeko oinarri berriak behar ditu mundu modernoak. Ohiko subjektibotasunari, elkar-subjektibotasuna erantsi beharko zaio (Habermas, 2003), hots, hainbaten artean, erkidegoan, hitzartutako eta kudeatutako subjektibotasun adostu berria.

Historiari eta kulturari begiratu bezain laster konturatzen gara ze desberdinak garen denok ere; hala ere, mundu bera bizi dugu, era desberdinean bizi dugun arren. Gauzak horrela, argi dago aniztasun interpretatzailearen aurrean gaudela. Ugari dira interpreteak; ondorioztatzeak eurak, berdin, ugariak. Nork bere kultura eta bere gizartea bizi ditu, eta horien arabera ulertzen du inguruan eta atzerrian dena.

Nork bere perspektiba propioa baldin badu, eta hala du, kontua da konturatzea norberarenaz gain besterena ere izan litekeela interpretazioa. Besterena ulertzeko, beharrezkoa dirudi nork berea berrogeialdian jartzea, tentuz hartzea, gogoan hartu ahal izateko besterena ere.

Interpretazioen munduan, interpretazio *subjektiboei* interpretazio *autonomoak* gehitu behar zaizkie. Alegia, normaltzat joa izan da nork bere interpretazioa izatea, subjektiboa; baina normaltzat joa izan da subjektibotasun batzuk besteak baino *normalagoak* direla esatea, ohiko araudien arabera ulergarriak izan litezkeela batzuk (normalak) eta ez beste batzuk (ez hain normalak edo).

Mundu hiperkateatu honetan, kontuan hartzen hasi beharko da ezin dela egon subjektibotasun *normalik* edo *anormalik*, alegia ez dagoela onartutako araudien araberako subjektibotasun onargarrien eta ez-onargarrien arteko bereizketarik egiterik.

Kontua da, gureaz aparte, beste araudi batzuen aukera ere onartzea; eta horien araberako arrazoiketa ere badela arrazoiketa onartzea (beste bat, gura baldin bada, baina arrazoiketa). Denentzako *beregaintasuna* eskatu behar da, interpretazioetarako.

Argudioaren etika

Zer da etika? Interpretazio bat, eduki sinbolikoen interpretazio bat, posibleetako bat. Etika bada, era berean, jakintza eta zientzia ere. Eta portaera bat, jarrera bat munduaz eta pertsonez (Aristoteles, *Nikomakorentzako etika*). Praktikaren zuzentasuna omen da etika. Ekinbideen moraltasuna. Argudioak, gu arduratzen gaituen argudioak, subjektibo eta beregain den horrek, etika eskatzen du, etikaren konkurrentzia behar du, gure artean onargarria izateko.

Senekari irakurri dionak jakingo du ezen etikan funtsezkoa dela guztien ongiaren zerbitzuan borondate ona islatzea (Seneka, *Bizitzaren laburtasunaz*). Eta etikaren eginbeharretako bat, jakina, zoriona bilatzea ere badela, badenez. Ongia eta zoriona ez dira hanka makalak munduarentzat.

Askoren ardura izan da etika, eta hala da gaur ere. Autore klasikoen filosofiaz arduraturik, Hiponako San Agustinek ondokoa dio: filosofiaren «atal bati fisika deritzote, besteari logika, eta hirugarrenari etika (…); natura, arrazoia eta morala deitzen diete hiru horiei» (*Jaungoikoaren hiria*, XI, XXV). Kupel hurbileko ardoak dira etika eta morala, testu horren arabera. Modu orokorrean esaterik balego, laburrean esango genuke ezen etika dela ekinbideak gidatu beharko lituzkeen filosofiaren atal bat.

Kantentzat, bestalde, etikak badu zerikusia harmonia naturalarekin. Izan ere, izadiaz eta askatasunaz hitz egitean, Kantek gogora ekartzen du etika, ordena natural moduan (Kant, *Arrazoimen hutsaren kritika*). Etikak ordena du helburu, naturaren ordena; «gizonen lana jakintza dugu; ezagutuz aldatzea, naturarekin bat izan eta harremanetan sartzea», Letek esan izan duenez (Lete, 2001).

Lockerentzat etika zerbait zaila da, gaitza nonbait. Izan ere, morala definitzea matematika definitzea baino zailagoa baita. Zer konplexua da etikari dagokiona; inoiz ziurtasun gutxikoa da (Locke, *Giza adimenari buruzko entseiuak*), eta hor bat etortzea ezinezkoa ere izan liteke, jakina.

Ziurgabetasuna eta konformismoa aurki litezke etikaren oinarrian, baldin eta Descartesen testuak analizatzen badira (Descartes, *Metodoari buruzko diskurtsoa eta meditazio metafisikoak*). Hartara, etika ez da ezer ziurra, eta, ziurra denean, ziurra da konbentzionalki hala hartua izan den heinean. Etikaren irizpideak baliagarri dira konbentzionalki hala hartuak direnean; bestela ez.

Etikaren ziurgabetasunak desordena eta nahaspila ekar lezake, eta hala dakar kasu askotan. Joerak, adostasunak eta desadostasunak esparru komun batera ekartzea oso da zaila, ezinezko ez esatearren.

Bertutearekin du etikak zerikusi zuzena, eta bertutearen praktika gidatzen du; horrela, gaiztoa gaiztoarekin konpentsatzearen ideia baztertzea omen lekarke etikak bere zentzurik sakonenean (Schopenhauer, *Mundua errepresentazio gisa*). Giza

maitasunaren gradu gorenera ginderamatzake etikak, eta, inoiz, baita hurrekoaren maitasuna norberaren maitasunaren gainetik jartzera ere. Horra idealismoaren indarra, handia.

Etika bera konbentzio eztabaidagarrien multzoa da (Barthes, *Idazkuntzaren zero gradua*). Eta formarekin ere badu zerikusia etikak. Hizkuntzak berak ere badu bere etika; edo hala behar luke.

Diskurtsoaren etikari gagozkiolarik, diskurtso arrazoituak, norberaren itxaropenak betetzeaz gain, badirudi besteen itxaropenak ere bete beharko lituzkeela, hein batean behintzat; izan ere, hautatzen ditugun *estandarren* araberakoak eta horien menpekoak baitira orientazio eta jarrera axiologikoak oro (Habermas, *Diskurtsoaren etika eta egiaren kuestioa*); baita geureak ere, eztabaidara jauzi egiten dugunean.

Erabateko balizkotasunean mugitzen gara, zeren hautatzen dugunaren arabera neurtzen baititugu nola inguratzen gaituena hala atzerria. Beraz, oinarrizko hautu baten arabera mugitzen gara. Norberarentzat onargarria dena indartu gura ei du diskurtsoak; baina, subjektibotasunen mundu etikoan, badirudi norberaren onak beharko lukeela izan baita besteren ona ere.

Edozein diskurtsoren aurrean, ziurgabetasun etikoan murgildurik gaude, batez ere desberdinak hartzen ditugunean begien jomugan. Subjektibotasun etikoa gainditzeko, harreman komunikatibo betea, osoa da irtenbide bakarra. Diskurtsoaren etikak horixe bilatu beharko luke, hots, komunikazio-ekintza bere osotasun erabatekoan burutzea eta elkarrekin zerbait eraiki ahal izatea. Aztura eta ohitura desberdinen artean mugitzen garelarik, pentsatuak eta gidatuak behar lukete izan urratsek.

Diskurtso mingarriak, min hutsa bilatzen dutenak, uneren batean edo bestean etikoak izan daitezkeen arren, oro har, ez dute ezer balio. Zailtasunak eta egoera konplexuak desblokeatzen eta gainditzen laguntzen duten diskurtso *adostasun-biltzaileak* dira beharrezkoak.

Eskubide zibilek ezaugarritzen eta definitzen dute mundu modernoan herritartasuna. Baina ezin ahantz liteke ezen herritarrek eurek nola identitate indibidualak hala kolektiboak garatu dituztela. Administrazioek arautu eta hedabideek kontuan hartu beharko dute hori, zeren mundu modernoan hiriak ez baitu bakarrik legeztatu behar kaleak nola gurutzatu behar diren eta alkateak nola hautatu, ezpada ze baita inoiz baino konplexuagoak diren identitate kultural eta linguistikoak bizi ahal izatea ere, nola gaur hala bihar ere. Zilegia dirudi, bada, norbanakoaren eskubide zibilei eskubide kulturalak eta linguistikoak gehitzea. Hala, herritar orok izango du aukera tradizio bat bere egiteko eta bere identitatea egonkortzeko, beharrezkotzat jotzen duen kultura-komunitatean eskubide osoz parte hartzeko. Hedabideen diskurtsoak eta kazetarien jardunak gogoan behar dute izan hori guztia.

Gizartean dauden mundu konplexuei buruzko diskurtso etikoa eskatzen zaio eragile sozialari, kazetaria izan, politikaria nahiz filosofoa izan. Mundu konplexu horiei eman behar die diskurtsoak irtenbide argumentatua. Diskurtsoak bere etika du, gaiei dagokielarik, gaien garapenei dagokielarik eta gaien gaineko erabakiei dagokielarik.

Diskurtso publikoak bere egin behar ditu gizarte-gaiak oro, modan daudenak eta besteak, botereak gustuko dituenak nahiz besteak, eliteen ardurakoak nahiz herri xehearenak. Diskurtso publikoak denei erantzun behar die, gizarteak badu-eta itxaropen hori. Erantzun egin behar die kazetariak espektatiba horiei.

Diskurtso publikoak egiari eutsi behar dio bere garapenean; edozerk ez du balio; helburuak ez du zertan bidea justifikatu. Duintasuna ez dago bakarrik jomugetan. Bideak eurak ere duin direnean egiten da duinago berez duin dena.

Hedabideen diskurtsoan, kazetarien jardunean, zolda eta ugerra garbi ditzake etikaren xaboiak.

5. Argudio kuasilogikoak

Irakasgaiaren orpora heldu gara gai honekin batera. Argudioaren eta erretorikaren arteko zubigintza honetan, lehen atalean autore klasikoetan jarri genuen arreta, oinarrizko argumentazioaz arduratzeko. Ondoren azaldu zen testu argudiatuaren oinarrizko egitura. Argudio publikoa eraikitzeko unean argudioaren mugak zein diren eta hitzarmenaren beharra ikusiak ditugu; baita norberaren argudioari eusteko modu batzuk ere. Eta, nola ez, etikaren beharra kazetariaren diskurtsoan.

Orain, tekniken mundura jotzea dagokigu.

Teknika horiek ikasteko, zenbait urrats nagusi egingo ditugu, eta urrats bakoitzari kapitulu autonomo bat eskainiko diogu. Eskuartean dugun kapitulu honetan argudio kuasilogikoak ikusiko ditugu. Logika kategorikoaren itxura hartzen duten heinean, arrazonamendu formalaren, logikoaren eta matematikoaren itxura hartzen duten heinean (Perelman & Olbrechts-Tyteca, 1989) deitzen diegu kuasilogikoak. Ikus ditzagun, hurrenez hurren: definizioa, justiziaren araua, argudio iragankorra, zatia eta osoaren arteko harremana, dilema, erkaketa-argudioa, litekeenaren argudioa, eta kontraesana eta bateraezintasuna.

5.1. DEFINIZIOAREN INDARRA

Argudio-ariketa interesgarria bezain beharrezkoa da diskurtsoaren helburu diren objektuen eta diskurtsoan bertan parte hartzen duten osagaien azalpena garatzea. Azalpen-lan horrek hurbiltzen gaitu definizioen esparrura.

Definizioak harreman zuzenean jartzen ditu definitutakoa (objektua) eta definitzailea (azalpena), identifikatu egiten du lehena (objektua) bigarrenarekin (azalpenarekin).

Definizioen munduan, alor eta sail handiak daude. Muturretara joz, batetik, identifikazio osoa bilatzen duten definizioak daude (horiek sistema osoa zehazten dute); eta, bestetik, identifikazio partzialak bilatzen dituztenak (horiek osagai bakar batzuk baino ez dituzte zehazten eta azaltzen).

Irakur dezagun adibide klasiko bat. Hona *zer den* Galia, eta *zer diren* galiarrak Julio Zesarrentzat; testuak ez du zalantzarako lekurik uzten:

> Hiru zatitan banatzen da Galia osoa: eurotariko batean belgiarrak bizi dira; beste batean akitaniarrak; eta hirugarren batean beren hizkuntzaz keltarrak eta gurean galiarrak izena dutenak. Guztiok berezi dira euren artean hizkuntzaz, ohiturez eta legeez. Galiarrak akitaniarrengandik Garona ibaiak bereizten ditu, eta belgiarrengandik Marne eta Sena ibaiek. Guztion artetik indartsuenak belgiarrak dira (Julio Zesar, *Galietako gerrari buruzko iruzkinak*, I, 1).

Definizioak objektua blindatzen du, babeserako ezkutu indartsu bat eskaintzen dio autoreari definigai denaz duen uste edo iritzia ezartzeko. Definizioak, izatez, argitzaileak dira. Definizioak laguntzen du argudio-lanak bideratzen eta argudio-osagaiak argitzen. Era berean, definizioak sinesgarriago bihurtzen du ondorioa, arrazoizkoago egiten du.

Definizio arauemailea

Hitz bat nola erabili azaltzen duen definizioa da *arauemailea.* Norma edo araua nola indibiduala hala kolektiboa izan daiteke; alegia, definizioa egin daiteke norberaren konpromisoa azaltzeko legez, bai eta besteei ezarri nahi litzaiekeen agindu moduan ere. Definizio arauemaileak legea ezarri gura du, araua unibertsala izatea amesten du, eta igurikatzen du definizioa mundu guztiak bere egitea.

> Jainkoz, gizonaz, emakumeaz,
> egiaz, gezurraz, zalantzaz,
> ederrez, itsusikeriaz,
> askatasun garraisiz,
> betikotasun gurariz,
> etorri sortzailearen zorabiozko harriduraz,
> mozkortzen ez dena,
> ez da poeta! (Zarate, 2004: 49).

Poetaren definizioa eman du arestiko testu horretan Zaratek. Poetak zer egin behar duen, zer sentitu behar duen, zer maitatu behar duen, zeri zor dion gorroto… garatzen da poesia labur horretan. Autoreak argi uzten du poeta izatea zer den, poeta izatea zer ez den deskribatuta. Balio unibertsal handikoa da arestiko hori; arauemailea, beraz.

Definizio azaltzailea

Kasu honetan, azalpena mugatua da, araua ezartzeko nahia mugatua da, non eta noiz izan litekeen baliagarria esaten baita. Testuinguru batean ezartzen da definizioa, eta balio unibertsala kentzen zaio modu nabarmenean.

> Egurraren edo ikatzaren hondakinari deitzen diogu **hautsa**. Hedaduraz, baita denboraren eraginari ere. Baina **hautsak** deitzen genien etxeko sutan bizi ziren jenio zaharrei ere. Erronkarin ere hala deitzen omen zieten, **hautsak**, deabruak hartutako emakumeei (Lertxundi, 2004: 19).

Teoria batek zilegitasun osoa du bere osagaien esangura bere nahierara definitzeko, bere signifikazio-sistema berezitua eraikitzeko eta hartaz baliatzeko. Hala ere, teoria hori mundu errealarekin erkatu nahi denean, eta azalpen publiko batera eraman gura denean, gizarteak erabiltzen dituen definizio *komunekin* egingo du topo, hizkuntza *arruntarekin*. Eta horretan datza, oro har, formalismo ororen arazo nagusia. Edo argitzen da definizio horiek bakarrik balio dutela sistema itxi batean, edo logikaren arrazoiketa-ereduetara eraman behar da azalpena, publikoan konprenitua eta onartua izan dadin.

Argudioa, gauzen naturan eta definizioan oinarriturik

Jakina, *ona* behar du definizioak. Hala denean, baliagarria dakiguke argudioak eraikitzeko. Hala ez denean, polemikarako dakiguke baliagarria; ez da gutxi hori ere. Hitzaldiaren helburuaren arabera erabaki beharko du autoreak zer zentzu aitortu bere definizioari.

Zenbat eta zurrunago eta zehatzago izan definizioa, orduan eta zehatzago eta zurrunago izan daiteke erkaketa eta ondorengo konklusioa. Definizioak gaiaren esentzia harrapatu behar du, ez du azalean gelditu behar, baldin eta argudio blindatuak eraiki nahi baldin badira; polemika bilatzen bada, aldiz, arinago joka daiteke.

Definizioaren bidezko argudioa eraikitzeko metodologia hau izan liteke:

1. Lehenik eta behin, nozio bat definitzen dugu; haren berezko ezaugarri batzuk azaleratuz gaiaren bihotzera hurbiltzen gara, haren esentziaren bila:

> Demokrazia-sistema batek konstituzio bat izatea exijitzen du; era berean, demokrazia-sistema batek bozka bidez hautatutako parlamentu bat eduki behar du, eta, demokrazia-sistema batean, hautatze-sistemak gardena eta periodikoa behar du izan.

2. Ondoren, egindako definizio horren aurrean jartzen dugu erkatu nahi dugun entitate partikularra, alegia definizio horrekin erkatu nahi duguna, eta oinarrizko galdera egiten diogu geure buruari:

> Demokrazia al da halako herria?

Hurrengo urratsa da ikustea ea egokitzen diren definizioaren ezaugarriak entitate partikular horretara. Definizioan esentziazkoak izan diren ezaugarriak banan-bana aztertzen ditugu:

> Halako herriak badu / ez du konstituzioa;

badu / ez du parlamentua;

badu / ez du bozka-sistema arautua eta periodikoa…

3. Konklusioa azaleratzea da azken koska. Egindako erkaketaren arabera, ondorioztatu egin behar da, oinarrizko galderari erantzun behar zaio:

Beraz, halako herria bada / ez da demokrazia.

Baina, batez ere, *garbiak* behar dute izan definizioek (Weston 2004). Garbiak esatean, *garbiak* diogu: kutsatu bakoak, zentzuzkoak, manipulazio gabeak. Kasu askotan, definizioak tranpa diskurtsiboa dakar bere baitan: bere ahal argumentatiboak alde batera uzten ditu, eta dohaineko baieztapenetan galtzen da.

Demagun *abortua* definitu behar dugula.

Honetara definitu daiteke: *abortua da ugaztun baten fetua ateratzea, berezko denbora baino lehen*. Definizio argia egin dugu, bai eta neutrala ere. Definizioa garbia da: abortua zer den azaltzen du, edozein aborturen esentzia zein den azaleratzen du; ez du balio-juiziorik egiten.

Baina honetara ere definitu dezake norbaitek: *abortua da ume bat asasinatzea*. Definizio markatua egin dugu; hunkigarria da, ez da neutrala. Definizio horretan, batetik, moralezko iritzi bat aurkitzen dugu, eta, bestetik, gizakien eremura eramaten da abortuaren aukera. Murritza eta markatua da definizio hori. Ez da garbia.

Proposamen argudiagarria da fetu baten bizitzaren amaiera eta ume baten bizitzaren amaiera erkagarriak direla esatea; baina argudio baten bidez frogatu behar da erkagarriak direla, ez du balio besterik gabe ontzat hartzeak. Horretan datza edukizko hutsunerik nabarmenena bigarren definizioan.

Ohikoa da definizioak ezartzeko joera kazetaritzan. Hona adibide bat.

Halako taldea, bere buruaz hitz egiterakoan langintza-politikoetarako jaioa dela behin eta berriz esan arren, ekintza terroristetarako sortutako erakundea da.

Garbia al da?

Definizioak indar handia du, edozein argudio-lanetan. Oro har, definizioak hiru funtzio bete ditzake gure argudioan:

- **Egia** ezar dezake. Baldin eta definizioaren terminoak argiak badira, baldin eta datu zuzenekin lagunduak badira, edozein erasori aurre egiteko moduko definizioa eskaintzen ari gara.
- **Gaizki-ulertuak** sor ditzake, anbiguotasunak gidatzen badu definizioa. Gaizki ulertuak eta nahasketak saihestu gura baldin badira, definizioa egiterakoan aldez aurretik ohartu behar dira entzuleak, esanez: *entzungo dena ez da ohiko definizioa*.

- **Pentsamendu sortzailea** lagundu dezake. Garapenak kontzeptu berriak eskatzen dizkio gizateriari. Horiek sortzen eta finkatzen, asko lagundu lezake ohikoa ez den definizio berri batek.

Definizioaren indarra erakusteko, hona hemen beste bi adibide: bat filosofiakoa, bestea politikagintzakoa, lehena klasikoagoa eta bigarrena berriagoa. Spinoza eta Monzon hartu dira gogoan.

Definizioekin hasten du Spinozak *Etika* liburua, zuzen-zuzenean definizioekin, eta definizio horiek eta beste batzuk dira bere tratatuaren bizkar-hezurra. Hara:

> Bere baitako kausa deitzen dut, haren esentziak bere existentzia barne hartzen duen hura; edo bestela, izatedun bezala baizik haren izaera pentsa ez daitekeena.
>
> Bere generoan mugatua deitzen da gauza bat, izaera bereko beste zerbaitek mugatzen ahal duena: adibidez, gorputz bat mugatua deitzen da, zeren beti beste gorputz handiago bat pentsa baitezakegu. Eta berdin gogoeta bat, beste gogoeta batek mugatzen du. Gorputz bat, aldiz, ez du gogoeta batek mugatzen, ez eta ere gorputz batek gogoeta bat.
>
> Substantzia deitzen dut, bere baitan den eta bere baitarik ulertzen den zerbait: erran nahi baita, beste gauza baten kontzeptuaren beharrik gabe, haren kontzeptua moldatzen den zerbait.
>
> Atributua deitzen dut, substantziaren zerizana osatzen duena, adimenak hala hautematen duena.
>
> Modua deitzen ditut, substantziaren afektuak, hots, beste gauza baten baitan den zerbait, gauza haren bitartez baita ulertzen.
>
> Jainkoa deitzen dut, absolutuki mugagabea den izakia: hau da kontaezinezko atributuek osatzen duten substantzia, atributu bakoitzak mugagabeko eta betiereko esentzia adierazten duelarik (Spinoza, *Etika*, I, I-VI).

Politikara jauzi eginda, hona hemen arestian aipatutako Monzonen lana. Ikusiko dugun testuan, Euskal Herriaren definizioa aurreratzen du hark. Bere kulturan ulertzen du Monzonek Euskal Herria. Euskal Herria, ezer izatekotan, euskaraz bizi den herria da autore horrentzat. Hona definizioa:

> Biharko Euskal Herria euskalduntzen ez badugu, Euskal Herriaren hizkuntza, mintzaira, hizkera, bene-benetan, beheko mailetatik hasi eta goiko mailetaraino egiten ez baldin badugu, esan dezakegu hori ez dela Euskal Herria (…). Beraz, benetako Herri bat sortu nahi baldin badugu eta bere buruaren jabe izan nahi baldin badu, oinarri nagusi bat behar dugu, eta oinarri hau Euskara da (Odriozola, 2004: 41).

Tautologia

Zauritutako definizioa da tautologia. Tesi bat *tautologia* delako salaketarekin mintzen denean, bilatzen dena da adieraztea *definizio* bat eman ordez *baieztapen* huts bat egiten dela tesi edo argudio horretan. Tautologiaren salaketa horrek, bes-

teak beste, dioena da definizioa arbitrarioa dela, ez duela inolako harremanik analisi enpirikoekin, esperientziatik apartekoa dela; esaten da ustezko definizio horrek ez duela inolako interesgarritasun zientifikorik, *emaitzak* definizioan bertan daudelako.

Tautologiaren salaketak bertan behera utzi ohi du definizioaren indarra, haren interesgarritasuna. Batzuetan kausa eta ondorio gisa aurkeztu nahi direnak ez dira ezta hori ere, kausa eta ondorioa *zer* bera dira eta, tautologiaren esparruan.

Edozein modutan ere, eztabaida formaletik aparte, tautologiak batzuetan badu indarra, izan lezake indarra, baliabide erretoriko eta literario moduan besterik ez bada ere. Diotenez, *umeak ume dira* esateak ezer berririk ez esatea dakar, baina figura gisa baliagarria izan daiteke. Kasu horretan, termino bera da objektu azalgarria eta objektuaren azalpena, ez dago ezer berririk. Hitz-jokoa da, eta haren balioa horretan bertan datza.

5.2. JUSTIZIAREN ARAUA

Kategoria bereko gizaki nahiz egoeretarako, tratamendu bera eskatzen du justiziaren arauak. Justiziaren araua aplikagarria izan dadin arrazoiketa batean, beharrezkoa da iradokitzen den *berdintasuna* ezarri ahal izatea berdinak diren objektuetan, objektu horiek elkarren artean trukagarriak izanik.

Baina, egia esan, ez da horrela gertatzen ahal. Objektuak beti dira desberdin, beti dute ezaugarriren bat desberdin egiten dituena; eta desberdin izate horrek sortzen ditu eztabaidarik handienak.

Desberdintasunak desberdintasun, ardura nagusia da erabakitzea ikusten diren desberdintasun horiek kontuan hartzeko modukoak ote diren ala ez; beste hitz batzuetan esanda, objektuak desberdintzen dituzten ezaugarriak esentzialak diren ala ez, zeren justiziaren arauak esentzialak diren horiek bakarrik hartu behar baititu kontuan.

Hitzarmen-aukera baten aurrean, badirudi alderdi desberdinei eskatu eta eskaini behar zaiela antzerakoa, nahiz eta alde horiek ez diren berdin-berdinak izango (bestela, berdin-berdinak balira, ale bakarraren osagarri izango lirateke). Baina den-denak dira alde eta alderdi, eta, ikuspuntu horretatik begiratuta, berdinak dira; berdinak dira horretan, alegia alde izatean.

Kasu horietan, badirudi lege berak arautu behar dituela bai batari bai besteari eskatu eta eskaini dakiekeena. Bikotea osatzen duten egoera biri tratamendu bera ezarri nahi zaienean justizia-arauaren bidez, simetriaren arabera funtzionatu behar da.

Hona hemen parekotasunaren ideia ilustra lezakeen maxima bat, Kintilianok berak esan ei zuena: *Ikasteko ohoragarria dena, ohoragarria da erakusteko.* Simetriaren arauak badu bere lekua eztabaida arruntean ere, hau esaten dugunean: *Jarri zaitez nire lekuan.*

Justiziaren arau argiaren apelazioa egiten duen testu bat da honako hau. Norberarentzat besteei beste eta besteei legez eskatzen duen argudioa da:

> — Aita, kontuak argi eta kantuak garbi: nire sei ahizpei uharte bana eman diezu dotean. Uharterik gabe utzi nauzu ni. Itsasoa zabala da. Inork ez bezalako itsas armada duzu. Ez nauzula maite ulertu behar dut? (Lertxundi, 2004: 76).

Justiziaren araua erreibindikatzen duen testua da Demostenesen ahoan jarri izan den honako hau (Perelman & Olbrechts-Tyteca, 1989: 341tik hartua): «Bada, nahiko al dute hitzarmena hiriaren aurkakoa bada justutzat hartzea, eta haren salbaziorako bada ez onartua izatea?». Alegia, Demostenesek dioena da justutzat hartu behar denak behar duela izan justua hala delako, eta ez inori mesede edo kalte egin diezaiokeelako. Balizko eraginetatik askatzen du hark Justiziaren araua.

Desberdintasunaren aipamena ere bada, izan, justizia-eskari bat. Batzuetan, justizia egitea ez da denei arau bera ezartzea, ezpada desberdina: berdina ezartzea injustizia bat burutzea litzateke; aldiz norberari dagokiona ezartzea justizia betekoa. Hona adibide bat:

> Batetik, kontsideratzen zuten ezen, sortutako egoera berria euren aurka eztanda egin zezakeen erloju-bonba bat zela; eta, bestetik, herriak inpunitate osoarekin kaleak harturik edukitzeak, gobernua eraman behar zuela derrigorrez aztertzera bere arauak, zeintzuek zigor-zaku berean sartu baitzituzten bakearen aldeko herritar garbiak zein desordenaren babesletzat jotakoak (Saramago, 2004: 185).

5.3. ARGUDIO IRAGANKORRA

Harreman batzuen ezaugarria da iragankortasuna; ezaugarri horrek ahalbidetzen du termino biren artean dagoen harremana, beste biren artean gordetzen baldin bada, lehen bikoteko lehen terminoaren eta bigarren bikoteko azkenekoaren arteko harremana berdintzat jotzea. Alegia, baldin eta *a* eta *b* terminoen artean dagoen harremana *h* bada, eta baldin eta *b* eta *c* terminoen artekoa *h* bera baldin bada, orduan esan liteke ezen *a* eta *c* terminoen artean *h* harreman berbera dagoela.

Goazen argudio iragankor klasikoetara. Inoiz entzuna izango duzue: *zure lagunen lagunak nire lagunak dira.* Horixe da iragankortasunaren isla argia. Izan ere, gure lagunen ongia baldin bada gure helburua, gure lagun direnen lagunen ongia ere bada gure helburua.

Argudio iragankorra ere kritikarako balia liteke. Patxadaz irakurri beharreko testua da honako hau. Adibide honetan ikus daitekeenez, baterako ez-gauza direnak, besterako ere ez dira gauza:

> Gauzen egiazko kausak ez dakizkitenek, alabaina, denak nahasten dituzte eta, batere durduzatu gabe, zuhaitzak bezain erraz, mintzo diren gizakiak asmatzen dituzte eta giza hazitik bezain zuzen harrietarik sortzen diren gizakiak itxuratzen edo beste edozein irudira aldatzen diren nolanahiko irudiak irudikatzen.
>
> Eta, berdin, Jainkoaren izaera gizakiaren izaerarekin nahastekatzen dutenek errazki egozten dizkiote Jainkoari gizakiaren afektuak, bereziki ez dakitelarik oraino nola sortzen diren gure adimenean afektu horiek (Spinoza, *Etika*, I, VIII).

Testu horrek dioenez, gauzen kausak antzematen ez dituztenek ez dituzte antzematen Jainkoaren izaera argitu ditzaketenak. "Honetan" argiak ez direnak, ez dira argiak izango beste "horretan". Horixe da argudioaren muina goiko testu horretan.

Autore berarekin segituko dugu une batez. Hona hemen testu argigarri bat. Nolabaiteko parekotasunak lantzen dira argudio iragankorren bidez:

> Zenbat eta handiago baita irudikatzen dugun maitaturiko gauzak guretzat duen afektua, hainbat eta gehiago loriatuko gara (Spinoza, *Etika*, III, XXXIV).

Hots, pertsona eta zera maitatuaren arteko harremanaren arteko irudi gozagarria ikusten dugu, pertsona eta bere buruaren arteko gozotasunaren ispilu simetrikoan. Lehen harremana gozoa den heinean, bigarrena ere halaxe izaten da; edo are gozoagoa.

5.4. ZATIAREN ETA OSOAREN ARTEKO HARREMANA

Osotasuna zatikatzea ohi dakar edozein analisik. Osotasuna bera hobeto ulertzeko egiten da hala. Horretarako, analisiak arazoaren deskonposizioa bideratzen du lehen urratsean, osagaiak eta barne-muinak banan-banan ikusi ahal izateko. Ondoren, sintesia egiten da, perspektiba berri baten arabera berriro bilduz osagaiak. Iritzi-artikulu askotan praktikatzen den teknika da, egoerak, koiunturak, errealitate berriak aztertzeko unean.

Arduratzen gaituen gaiaren ezaugarriak azaleratzea helburu duen ekintza da analisia: zatitu, ikusi, bildu eta esan.

Arrazoiketan, ohikoa da zatiek osoa eraikitzea, edo, kontrara ahaleginduz, osoa zatikatzea atalen arteko harremanak zeintzuk diren deliberatzeko. Eta, esan izan denez, osoarentzat balio duenak balio du zatiarentzat:

> Gizakiarentzat zerbait baldin bada ahalgarri eta ohiko, pentsa ezazu ezen eskuragarri dela hori baita zuretzat ere (Marko Aurelio, *Gogoetak*, VI, 19).

Alderdi horretatik begiraturik, ez dirudi zatia salbuespenekoa izan daitekeenik, osoari ezarri zaion araudiaren aurrean. Baldin eta kolektibo batek, bere funtzionamendua arautzeko, erabaki baldin badu zein den legez kanpoko giza jarduera debekatuen zerrenda, badirudi logikoa dela pentsatzea talde hori osatzen duten kideek orok dutela hori errespetatu beharra, eta ez litzatekeela zilegi izango bati barkatzea beste inori barkatzen ez zaiona. Ikuspuntu horretatik begiraturik, esan daiteke ezen osoak bere baitan hartzen duela zatia, eta zatia bera baino garrantzitsuagoa dela osoa bera.

> Nire hiria eta nire aberria, Antonino naizen aldetik, Erroma da; gizakia naizen heinean, mundua. Hiri horientzat ona den hori da bakarrik on niretzat (Marko Aurelio, *Gogoetak*, VI, 44).

5.5. DILEMA

Zatikatzearen bidezko argudioak *dilema-argudiora* eraman gaitzake. Dilemak hipotesi bi aztertzen ditu. Ondoriozta lezake ezen berdin dela bietatik zein hartzen den, iritzi edo jarrera berberera ailegatzen baita bietatik abiatuta; eta hori honako arrazoi hauetako bat dela medio: edo biek garamatzatelako ondorio berberera, edo biek garamatzatelako balio bereko emaitzetara (normalean, gertakari lazgarrietara), edo biek egiten diotelako eraso lege berberari, zeinari lotuta baikinen aldez aurretik.

Dilema konplexuen kasuetan, inoiz, hau egin izan da: objektu berari begira dauden hipotesi biak frogatzen saiatu, eta, ikusi baldin bada bietako bat frogaezina dela, onartu badirudiela ontzat har daitekeela bestea. Kasu bat hauxe izan daiteke:

> Baldin eta ez banaiz gauza frogatzeko Jainkoa ez dela existitzen, erabaki beharko dut existitzen dela.

Spinoza eta La Bruyère autoreengan aurki daiteke argudio hori, beste batzuen artean.

Honako hau zaharragoa da:

> Edo deus ere ezin dute jainkoek, edo ahal dute. Bada, ezin badute, zertarako zabiltza erreguka? Baina, ahal baldin badute, zergatik ez diezu eskatzen beldurrik ez izatea horrelako ezerengatik, ez goibeltzea horrelako ezerengatik, ez kutiziatzea horrelako ezer ere eskatu ordez horrelakorik ez gertatzea? Zeren, gizakiarekin kolabora balezakete, horretan ere kolabora lezakete-eta (Marko Antonio, *Gogoetak*, IX, 40).

Oso da luzea dilemaren soka. Paradoxa ederra ere izaten da dilema batzuekin: batzuentzat hil ala biziko ardura izaten diren arren, beste batzuentzat, agian, ez dira ezta kontuan hartzekoak ere.

Militanteen artean edo fede bat partekatzen dutenen artean planteatu ohi da dilema modu gogorretan. Ez da beti horrela, jakina. Baina dilemak badu militantziatik zerbait.

5.6. ERKAKETA-ARGUDIOA

Arrazoiketak ezin du asko aurreratu erkaketak (konparazioak) alde batera utzita. Ohikoa da arrazoiketaren ariketetan objektu desberdinen arteko erkaketa egitea, biak euren artean alderatzeko, nahiz besteren batekin edo batzuekin alderatzeko. Ariketa horietako batzuk oso dira *errealak*, esan nahi baita ezen dagoenaren deskribapen zuzenean oinarritzen direla, eta hori besterik ez dutela gogoan. Eta, beste batzuk, aldiz, hori baino magikoagoak dira; *erkaketa metaforikoak* dira azken horiek.

Diogunean *taloa bezain horia da* edo *hiru aldiz jende gehiago bizi da Bilbon, Donostian baino*, berez desberdinak direnak ari gara erkatzen. Mundu errealean oinarritutako erkaketa dugu hor, eta ez besterik. Mundu errealaren kontakizuna egiten da hor.

Eredu askotarikoak izan daitezke erkaketa erreal deitu ditugunak:

Oposizioan oinarritutakoak. Esanguraren ardatzean, muturreko bazterretan kokatuta daude objektu biak. Adibidea: *astuna eta arina*; batak bestea ukatzen du, eta alderantziz.

Ordenan oinarritutakoak. Esanguraren ardatzean, mugikor bilakatu dira termino erkagarriak. Harreman zuzenean jarri dira eta zerbait dute konpartitzen: *hori baino astunagoa da hau*.

Ordena kuantitatiboan oinarritutakoa. Zenbakigarria egin da erkaketa. Erabat neurgarria den termino bat sartu erkaketan, eta, berez desberdin diren horiek unitate komunetara makurtu dira. Pisu-unitateak erabilita, *hau beste hori baino pisutsuagoa* dela esaten denean, adibidez.

Erkaketa egitean, kasu batzuetan kuantifikazioak eman lezakeen eredua hartzen da gogoan; beste batzuetan, ostera, kualifikazioak ekar lezakeena.

Funtzio legez, erkaketa garrantzitsua da, baina erkaketarako terminoen hautaketa ez da garrantzi txikiagokoa, bistakoa denez. Inor deskalifikatzeko modu bihurria izan daiteke deskalifikatu nahi duguna hark mespretxatzen duenaren ondoan jartze hutsa.

Eta, aldiz, erdipurdiko idazle batentzat, ohore handia da idazle handi baten ondoan egotea, nahiz eta agerikoa izan bien arteko aldea izugarria dela.

Gorago esan dugunez, erkaketa batzuek zentzu metaforikoa irabazi gura izaten dute. Mundu erreala *bestela* irakurtzen dutela esan ohi da kasuotan. Hona hemen lau esaldi, erkaketa bat oinarritzat harturik goragoko maila diskurtsiboa nahiz metaforikoa irabazten doazenak (μ taldea, 1987: 186):

Arrosak bezain freskoak dira bere masailak
Arrosak bezalakoak dira bere masailak
Bere masailetako arrosak
Bere musuan, arrosa bi

Lehen adibidea, *arrosak bezain freskoak dira bere masailak*, erkaketa arrunta da, mundu errealaren deskribapena egiten duen heinean, zeren bere termino guztiak baitira, izan, semantikoki *normalak* eta hizkuntzaren maila estandarrarekin *bateragarriak*: esku hutsekin konprobatu daitekeen zerbait da arrosaren eta masailaren freskotasuna. Bigarren esaldiak, *arrosak bezalakoak dira bere masailak* dioenak, termino bat galdu du, erkaketaren alderdi biek duten kate komuna, hots, freskotasuna. Bigarren kasu horretan, irakurleak berak lortu beharko du atal bien arteko harremanaren oinarrian dagokeena; berak beharko du zergatia atzeman. Bigarren horretan, sakonagoa da irakurlearen inplikazioa testuan; metaforaren bidea hartu duen erkaketaren aurrean gaude; literariotasunean gora egin du testuak. Azken adibide biak, bai *bere masailetako arrosak* bai *bere musuan, arrosa bi* bera ere, metafora oso-osoak dira.

Mundu errealetik nahiz metaforikoetatik at, balizkotasunaren mundura ere eraman daiteke erkaketa, eta alderatu badena ez denarekin, badena izan litekeenarekin. Argudio-lan interesgarria da hori. Oso erabilia politikagintzan. Hara:

— Zer irabazi dugu dibortzio-legearekin?

— Hura gabe galduko genukeen guztia.

Ez dago erantzun zuzenik, baina ideia bat marrazten da, litekeenaren mundukoa. Edozein modutan ere, azken kasu horretan nahiz aurrekoetan, argi eduki behar da ezen erkaketa ez dela identifikazioa, ezta analogia ere.

Hona hemen erkaketaren azpiatalerako azken adibide bat:

> Hiltzen garena baino astiroago jaiotzen baikara. Nekez emango dute bi gizakik hamar hilabetetan leundutako ume bat; izurrite bakar batek edo etsaiaren gudazelaiak, ordea, izugarrikeria handiak eragiten dituzte lipar batean (Varron, *Satira menipeoak*, fr. 332).

5.7. LITEKEENAREN ARGUDIOA

Argudiatzean, kontuan hartzeko argudioa da litekeenarena, zeren ez baita ahaztu behar ezen zenbait gauza balitekeenaren eta ezinezkoaren arteko eztabaidaren arabera ulertu behar direla.

Duda. Ahala. Potentzialtasuna.

Argudio ederra da litekeenarena.

Hona testu bat, litekeenaren duda zelan gorpuzten den erakusten duena:

> Oso da garrantzitsua gogoan izatea familia horietako asko eta asko bizi direla politikoki oso bestela pentsatzen duten familiak bizi diren eraikuntza beretan, eta litekeena da azken horiek, termino bigun xamar bat erabiltzearren, errebantxa zikinezko ekintza batean, alde egin gura luketenen irteera oztopatzea (…). Autoen gurpilak zulatuko dituzte, zioen batek, Barrikadak altxatuko dituzte eskaileretan, zioen beste batek, Igogailuak indargabetuko dituzte, zioen hirugarren batek, Silikona sartuko dute sarraileta n, indarrez botatzen zuen berriz lehenak (…), Gure kontra egingo dute oina etxeaz kanpo jar dezagun unean, Aitona hartuko dute bahituran (Saramago, 2004: 187).

Bortxa latzaren kolorea hartu du litekeenezko errebantxak azkenean.

Hona hemen, orain, antzeko tonua izan lezakeen beste testu bat. Sinesgarritasuna landu gura da, balitekeelakoan oinarrituz. Honako kasu honetan, pentsamenduak dira balitekeelako horretara hurbiltzen gaituztenak, pentsamenduak dira sinesgarritasun hipotetikoa lantzen dutenak.

> Galdutako aukera izan zen. Aldi hartan egia esan banio don Hipolito erretore zuhurrari —"gerrako gertaera larri batzuen berri izan dut, eta susmo bat daukat, galdera bat etortzen zait gauero, jendea hiltzen ibilitako gizon baten semea ote naizen"—; aitorpen hori egin banio, agian, sendabidean jarriko zatekeen nire arima (Atxaga, 2003: 95).

Ez dugu ahaztu behar, litekeenaren argudioaren estatutua marraztean, oinarri-oinarrian zelanbaiteko kontsentsu bati begira gaudela. Interlokutoreen arteko adostasun maila minimo bat beharrezkoa da, litekeenaren giltzak ametsaren kutxa zabaltzeko. Saramagoren testuan, adostasuna beldurraren gainean eraiki da, beldurrak berdindu ditu solaskideen interpretazioak. Atxagaren testuan solaskide bakarra dago. Ala ez? Erromakoarekin, bere buruarekin ari da soinujolearen semea: bat bi dira. Bi horien artean, duda eta ezinegonaren gainean eraiki da litekeenaren inguruko adostasunaren ardatza.

Sinesgarria behar du izan litekeenak, eta sinesgarritasuna honako hauetan datza: batetik, gertakariak berriz gerta litezkeelako ustea zabala izatean; eta, bestetik, baldin eta baldintzak errepikatzen badira, gertakarien errepikapena ia saihestezina den ustean.

Litekeenaren argudioak, hala ere, hitzarmen zabala behar du, aldez aurreko baldintzak ongi argitu eta ezarri behar izaten baitira. Estatistikak eta litekeenaren argudioak ezaugarri enpirikoa aitortzen diete arazoei.

5.8. KONTRAESANA ETA BATERAEZINTASUNA

Beste guztien gainetik, argudioak atmosfera koherentea arnastu behar du; hala ez den kasuetan, argudioa ahuldu egiten da, erroiztu. Sistema beraren baitan proposamena eta haren ukapena elkarrekin biltzeak zalantzazkoa bihurtzen du sistema bera bere osotasunean, barne-kontraesana sortzen du, eta sistema bera erabili ezina bilakatzen da. Inkoherentziazko zalantza artean, argudioa ito egiten da. Ezerezean gelditzen da: ahula da barrutik, ustela; eta, kanpotik, barregarria.

Absurdua da objektu bat zuria dela esatea, eta segituan, ezelako baldintzarik tartean ez dela, beltza dela aldarrikatzea lau haizeen kontra. Gaua eta eguna ordu berean direla esateak ez du zentzurik gure artean. Bateraezinak diren baieztapenek ez dute lekurik diskurtso berean: bata ala bestea hautatu beharko da azkenean.

Hona hemen, adibide gisa, besteren iritzia kritikatzeko haren argudioaren kontraesana biluzten duen testu bat:

> Hozkia ematen dit herri honen 'pluraltasun' kulturala goraipatzen entzuten dudanean, euskaltzaleen helburuak apaltzeko asmoz. Batzuk ez dira ohartu eta behin eta berriz esan beharko da, herri honetan benetan plural eta tolerante euskaldunak garela, gure hizkuntzaz gain gaztelaniaz edo frantsesez ere hitz egiten dugulako. Erdaldun hutsak 'singularrak' dira alde horretatik, tolerantziaren hondatzaileak eta beren hizkuntzaren inposatzaileak (Mendiguren, 2004: 41).

Proposamen zenbaitzuen balizko inkoherentzia argitze hutsak ekartzen du proposamen horiek dudazkoak bilakatzea, eta, hartara, horien aurka, publikoaren salaketa eta mesfidantza oso-osoa izatea espero daiteke. Horixe da goiko testu horrek egiten duena: salatu egiten du besteren argumentazio okerra, barne kontraesana agerian utzita. Izan ere, hizkuntza-gatazkan, euskaldunoi pluraltasuna eskatzen diguten arren, erdaldun horiek euren singulartasun linguistikoari eusten baitiote indartsu.

Zer egin bateraezintasunaren aurrean?

Diskurtsoaren ahuleziak agerian utzitako bateraezintasunak, edo aurkariaren arrazoizko nahiz arrazoirik gabeko bateraezintasun-salaketa hutsak, hautaketa bat egitea eskatzen du beti, eta, sarritan, hautatu behar hori mingarria da.

Balizko kontraesanaren eta bateraezintasunaren egoera diskurtsiboen aurrean, hizlariek hiru tresna dituzte eskura: jarrera logikoa, jarrera praktikoa eta jarrera diplomatikoa.

Jarrera logikoa

Aldez aurrekoa da hau, salaketa etorri aurrekoa. Sor litezkeen arazoak aldez aurretik aurreikusten saiatzen da jarrera logikoa. Jarrera horrek eskatzen du aldez aurretik ikusten saiatzea aldarrikatzen den proposamenak zer-nolako eztabaida sor

lezakeen. Horrela jokatzen duenak izango du eskura egin zaion salaketari buelta emateko argudioren bat, agian. Bestela ez, seguruenik. Edozein modutan ere, diskurtsoaren aurretik egin beharreko lana da. Onena bateraezintasuna saihestea da, edo, bestela, aterabideak aldez aurretik ikusten saiatzea.

Jarrera praktikoa

Bateraezintasun-salaketa lehertu denerako da hau. Hitzaldian bertan konpondu beharra dakar horrek. Aurrekoaren kontrako jarrera litzateke praktikoa, aurreikuspenetatik urrun. Nolabait esanda, datozen heinean jartzen dira arazoak soluziobidean. Egoerak berak sortzen dituen kontraesanak joko-zelaian bertan gainditzen saiatzean datza jarrera praktikoa. Lehena baino arriskutsuagoa da, baina biziagoa eta errealagoa ere bada.

Jarrera diplomatikoa

Jarrera lausoa da hau; hala ere, oso erabilia. Hemen kontua da aldarrikatzea bateraezintasuna ez dela ikusten, eta hartu beharko liratekeen konpromisoak nahiz erabakiak beste baterako atzeratzen saiatzea. Irteera duina izan daiteke, denen artean errazena, seguru asko.

Absurduaren jokoa

Batzuetan, tesi bat frogatzeko estrategiarik onena da ikusaraztea tesiaren ukapenak ze ondorio ezkorra lukeen; gauzak horrela, tesia onartu beharra dago (Miranda, 2002).

Tesi bat absurduraino bultzatzea da putzu beltzera jaurtitzea legez. Kontraste bortitzak ekartzen ditu gogora mundu absurduak:

> Arerioengandik ihesean hil egin zen Fannius. Inork ez hiltzearren norbera hil, zoramena ez ote? (Martzial, *Epigramak*, II, 80).

Absurduen artean irristatzen da honako testu hau, ironia lagun duela:

> Funtzionarioa Chiapasera doa iraultzaren taupaden bila
> urte osoan hiritar ernegatuoi
> burokrazia tonak irentsarazi ondoren.
> Gosearen aurka limosna eman duen kristauak
> bi hilabeteko soldata botako du
> udako apartamentuagatik (Aristi, 2003: 47).

Ironiarekin lotua izaten da sarritan absurdua.

Barregarri uztea edo barregarri geratzea argudiatze-lanetan

Unibertsalki nahiz talde jakin batean onartutako arau bat haustea dago irrigarri geratzearen edo inor barregarri uztearen oinarrian. Irribarre maltzurra edo barre baztertzailea eta zentsuratzailea da erridikulu askoren abiapuntua.

Erridikulua arma indartsua da; arma babeslea nahiz erasotzailea izan daiteke. Babesle gisa, erridikulua arma indartsua izan daiteke norberaren tesiak arriskuan jartzen dituztenei lekuz eta arauz kanpo ari direla aurpegiratzeko eta zentsuratzeko. Erasotzaile moduan, inoren tesiak zentsuratzeko, hark azaltzen dituen tesiak erridikulura eramatea ere bada teknika bat.

> Euren buruari buruz erdi-ezkutuka ibilita, batzuek erabiltzen duten lohikeria erosoa, misterio-tonua, sinestezina da.
>
> — Zeren ni, ba al dakizu jauna, umezurtz naiz –esan zuen, ni hasieratik bertatik pietateari kateatzeko.
>
> — Urte askoan. Ni alarguna naiz –esan nion, keinu erritual batekin, planta hura puskatzeko helburuarekin (Benedetti, 2004: 25).

Modu askotara nabarmendu daiteke inor: esate baterako, bere tesiek izan ditzaketen ondorioak zeintzuk diren ikusita, tesi horiek ezarritako moral zabalduenarentzat iraingarriak direnean, edo gehienen sinesmenaren kontrako ekintzetara deitzen dutenean, edo, beste barik, sistema sozialean funtzionatzeko batere aukerarik ez dutenean –legeak direla medio edo bestelako baldintzak direla medio–. Nabarmen geratuko da norbait, era berean, azaltzen dituen argudioak bere kalterako direnean. Edo dioenak konponbide erraza duenean, nahiz eta aurkariak irudikatu ezin edo gura ez:

> Jaimek esan zuen zopa zaporegabe zegoela.
>
> — Hortxe duzu gatza, zure eskubitik hamar zentimetrora –erantzun zuen Blancak, eta, mingarri izan guran, erantsi: behar al duzu nik hurbiltzea? (Benedetti, 2004: 17).

Nabarmen ez gelditzeko, aurkariaren ironiaren ezpataren zorrotza ez jasotzeko, gehienen iritziaren aurkako zerbait proposatzen denean, baldintzatu beharra dago norberak eskatzen duena: aztertu egin behar da tesi nagusia, testuinguru jakinetan azaldu, tesiaren ondorioak mugatu denboran eta espazioan, eta, azkenean, ondo justifikatu aldaketaren beharra. Edo, bestela, aldaketarik ezak sor ditzakeen arriskuen zerrenda zehatz eta beldurgarria eskaini.

6. Kausak eta ondorengotza-loturak

Itxura arrazionalari esker eskuratu ohi dute sinesgarritasuna argudio kuasilogikoek. Aurreko atalean ikusi dugu hori.

Atal honetan bestelako argudio-tresna batzuk ikusiko dira. Gizarteak ontzat jotzen dituen argudioen eta ezarri nahi diren argudio berrien arteko zubiak eraikitzen saiatzen da errealaren egituran oinarritutako argudioa. Eta horixe da kapitulu honen muina.

Argudio kuasilogikoetan eredu bat baino gehiago ikusi ditugun modu berean, errealaren egituran oinarritutako hainbat argudio mota ikusiko ditugu, oro har, hiru arlotan sailkaturik: kausak eta ondorengotza-loturak kapitulu honetan, eta aldiberekotasunezko loturak hurrengoan.

6.1. KAUSA BIDEZKO ARGUDIOA

Batzuetan saiatzen gara gauzak azaltzen, haien arrazoiak azalduz, haien kausak azaleratuz. "Zergatik" galdera moduko bati erantzun nahi liokeen zerbait dago kausaren azpian eta oinarrian. Has gaitezen gai korapilotsuan sartzen, adibide bat jarrita. Hona:

> Alkate jauna, utzidazu nire harridura azaltzen hemen aurkitu zaitudala-eta, Zer dela-eta harridura, Oraintxe bertan esan dizut, honen moduko manifestazio batean ikusi zaitudalako, Beste edozein herritar moduko herritarra naiz ni neu ere, manifestazioetara noa nahi dudanean, eta are gehiago orain, aldez aurretiko baimenik behar ez dugunean (Saramago, 2004: 181).

Adibide horretan, kazetariak harridura azaltzen dio alkateari, manifestazioan aurkitu duela-eta. Alkateak berak ere nolabaiteko arrazoia uzten du mahai gainean, dioenean «besteen modukoa» dela bera ere, nahiz eta ez dakigun argi "zergatik" joan den manifestaziora. Itxuraz, alkateak erantzun egiten dio kazetariaren itaunari.

Kausaren galderari benetan erantzuteko, beharrezkoa da pentsamendu irekiaren jabe izatea, eta ulertzea ezen gertakaririk gehienek kausa bat baino gehiago eduki dezaketela. Kasu horietan guztietan, baina batez ere konplexuenetan, argudiatze-lanaren funtsa da azaltzea zein den aukera horien guztien artean *litekeena*.

Kausen azterketan, jakina, gaiaren sakonera jo beharra dago. Batzuetan, konturatuko gara jarraian izandako gertakari batzuek ez dutela kausa komunik; aldiz, beste batzuetan ikusiko dugu badaudela lotuta, eta badutela oinarrizko kausa komuna. Kausen mundua konplexua da oso, eta kausak berak ere hala izan litezke, alegia nahasiak nahiz konplexuak (Weston, 2004). Hona adibide bat, hiruzpalau ekintza nahasi eta azalbide batean jartzen dituena:

> Gaiaren barruan geunden berriro. "Berlino ibili al zen bere atzetik?", galdetu nion. Osaba altxa egin zen petriletik. "Ikusi duk hotela, ezta? —esan zuen, hotela zegoen mendi maldarantz burua jiratuz—. Oso polita duk zalantzarik gabe, kapritxo bat. Jakina, amerikanoarena zuan. Don Pedrorena. Zilar meategia aurkitu zian Alaskan, eta aberastu. Gero hona etorri eta hotel hori eraiki zian. Berlino eta militarrek kendu zioten arte, bera izan zuen nagusi. Lapur galanta, Berlino. Eta kriminala" (Atxaga, 2003: 86).

6.1.1. Kausa-harremanaren estatutua

Kausen azalpen orokorrean, oinarrian dagoen eskema hauxe da: **A**k sortzen du **B**, edo **A** da **B**ren arrazoia. Gaien berezko konplexutasunak direla medio, argudio-eredu desberdin eta, era berean, osagarriekin egiten dugu bat: a) argudio batzuek kausa-harremana *ezarri* egiten dute, b) beste argudio batzuk kausa-harremanaz *baliatu* egiten dira, c) aldiz, beste batzuek *zantzuak* hartzen dituzte kontuan, eta d) azkenik, argudio batzuek *azalpena* hobesten dute (Plantin, 2002).

Ikus dezagun zelan jardun behar den ondorio baten kausa bilatu gura denean. Abiapuntu gisa onar dezagun ezen gertakari bi dauzkagula aurrez aurre, eta ez dakigula zer harreman dagoen haien artean, ezta ba ote dagoen ere, nahiz eta badagoela susmatzen dugun. Bada, bi gertakari horien artean harremana badagoela erakutsi nahi denean, lehenbizi, harreman-hipotesiak formulatzen dira; ondoren, aurrez ikusitako horiekin esperimentatzen da; eta, ostean, hipotesi batzuk baztertzen dira, beste bat edo beste batzuk onartzeko; azken horiek, frogatutako eta onartutako azken horiek dira kausa-estatutua irabazten duten bakarrak.

Honetara formula liteke arestian esandakoa:

A eta **B** dauzkagu.

Zer kausa-harreman dute gertakari biok?

Balizko aukerak dira: H1, H2, H3… Hn

Bada, ikus dezagun banan-banan:

H1? Ez da posible.

H2? Ez da posible.

H3? Baliteke, hau eta hura dela-eta.

*Beraz, H3 hipotesian formulatu dugunaren arabera, ezar liteke **A** eta **B** gertakarien artean dagoen kausa-harremana, eta H3 horrek irabazten du **A** eta **B** gertakarien arteko kausa-estatutua.*

Kausa-estatutudun argudio-eredu horretan, hizlariak erabakitzen du badagoela arrazoi bat, kausa bat, ondorio bat eragin duena edo eragingo duena.

Hona hemen etorkizuna begien jomugan duen argudio baten adibidea:

Galdera da: *gertatuko al da **X**?*

Une honetan **E** egoera ezagutzen dugu, **E** egoera dago indarrean.

Badago lege bat erlazionatzen dituena **G1** ereduko gertakariak **G2** ereduko gertakariekin.

E egoera G1 eredukoa da.

X egoera G2 eredukoa da.

Beraz, **X** gertatuko da.

Kausa bat erabat lotuta baldin badago ondorio batekin, dudarik ez baldin badago, ezaguna baldin bada bien arteko ohiko harremana, ondorioa ezagutzea nahikoa izan liteke kausa argitzeko. Hona hemen adibide bat: *orbana du; beraz, zauria izan zuen.*

Gauzen berezko pisuak, gauzen halabeharrezkotasunak, ondoriozta lezake eginbeharra. Adibidez, baldin eta erabaki politiko bat ezarri nahi baldin bada, orduan argudiatu beharko litzateke egoerak agintzen duela horrela jokatzea. Adibidez: *munduan gogortzen ari den terrorismoak behartzen gaitu petrolioa garestitzera*. Hartara, terrorismoa omen da erregaiak garestitzen dituena.

6.1.2. Aristoteles, Hume eta Mill: hiru bide, helburu bat

Kausa bidezko argudioak arazo handiak eman ditu historian zehar. Bai eta argibide ederrak ere, hau azaltzeko edo hura defenditzeko. Hona hemen hiru maisuren apustua, kausa-argudioaren alde.

Aristotelesen arabera, lau kausa mota daude. Kausa lau modutara uler daiteke, beraz. Hona: kausa materiala, kausa formala, kausa efizientea eta kausa finala.

Lau horiek, honetara ulertu ohi dira:

Lehena da *kausa materiala*, zeinetatik abiatuta zerbait egiten edo eraikitzen baita.

Kausa formala delakoak kontuan hartzen du zerbaiten barne-egitura, eta horixe azaltzen du.

Kausa efizientea da objektuak jatorria duen kanpo-eragilea.

Kausa finala da objektu horrek duen funtzio edo helburua.

Gizakiak berak sortutako objektuei ezarriz gero sailkapen hori, ikusten dugu ezen, adibidez, mahai bat zurez egina dela (kausa materiala), laukizuzenezko serie-egitura bat duela (kausa formala), arotzak egina dela (kausa efizientea), eta haren helburua azal bat eskaintzea dela, han askotariko ekintzak egin daitezen, hala nola idaztea edo jatea (kausa finala).

Oro har, bada, gauzak horretara, maisu greziarrarentzat, zerbait ezagutzea da nondik datorren inferitzea eta nora doan irudikatzea.

Humek hiru baldintza betetzera makurtu zuen bi gauzaren arteko kausa-harremana. Bere lanetan ezarri zuenez, gauza bat da kausa (K) eta bestea ondorioa (O), baldin eta:

1. **K** kausa **O**ren *aurrekoa* baldin bada, bai espazioan eta baita denboran ere,
2. **K** eta **O** *jarraituak* baldin badira, nola espazioan hala denboran, eta
3. baldin eta **K**ren eta **O**ren artean *erregulartasunezko harreman-historia* bat badago.

Sarritan, aurrekoa da kausa, eta efektua ondorengoa. Hori, horrela esanda, nahikoa argia da, baina zerbait *aurreko* izateak ez du beti justifikatzen ondorengoaren eragiletzat hartu behar denik, beste barik. Hartara, printzipioz, kausa aurrekoa da, baina aurreko guztiak ez dira kausa. Gainera, kasu batzuetan, kausak eta ondorioak hain dira denboran hurbilak ezen batera gertatzen direla iruditzen baitzaigu. Denborazko harremana badago ere, ez da azalpen nahikoa kausa-estatutua ezartzeko. Edonola ere, ez dirudi kausa bat ondorioaren ostean gerta litekeenik.

Era berean, badirudi bi gauzaren arteko kausa-harremanak erlazio-ereduren bat garatu behar duela bien artean, espazioan eta denboran. Kea ikusten dugunean, erraza zaigu ondorioztatzea zein den haren sorburu den sua. Kasu batzuetan, hala ere, harreman espaziala eta tenporala ez dira hain hurbilak; adibidez, erabaki politikoek izango dituzten ondorioak ez dira beti goizetik gauera azaleratzen.

Baina, kausaren estatutua ezartzeko, garrantzitsuena da gauzen arteko kausa-harremanetan erregulartasun historikoa ezarri ahal izatea. Esan nahi baita baldin eta gauza biren artean *ohiko* harreman tenporala eta espaziala antzeman badaiteke, bien arteko kausa-ondoriozko harremana errazago ikusi ahal izango dela.

Kausa-ondorio balizko harreman horretan, garrantzitsua da ezagutzea zein diren gauzen arteko harremanen baldintzak eta mailak, zeren gauza biren arteko harreman guztiak ez baitira garrantzi berekoak. Bestela esanda: kausa-harremanen artean, maila askotarikoak daude. Hitz egin ohi da *nahikozko baldintza* deitutakoez

eta *beharrezko baldintza* direnetakoez. Horien arteko desberdintasuna ulertzea giltzarria da, kausen eta ondorioen arteko harremanaren funtzionamendua ezaugarritzeko.

Beharrezko baldintza da bilatzen den ondorioa eta efektua lortzeko presente egon behar duena. Baldin eta sua eragin nahi bada, oxigenoa behar da, bai eta sua piztuko duen eragileren bat edukitzea ere, eta, azkenik, suak har lezakeen materiala eskuragarri egotea leku berean. Sua pizteko beharrezko baldintzak dira hiru horiek, eta hiruretako bakoitza da *beharrezko*.

Nahikozko baldintza esaten zaio automatikoki ondorioa eragiten duenari. Nahikozko baldintzaren eta beharrezko baldintzaren artean dagoen desberdintasuna honako honetan datza: nahikozkoak berak eragin lezake ondorioa; beharrezkoak, aldiz, ez, nahiz eta beharrezko hori beti presente egongo den fenomenoan. Batzuetan, beharrezko baldintza-multzo bat izaten da nahikozko baldintza. Beharrezko baldintza guztiak ezagutzen direnean, posiblea da ondorioak nola indartzea hala eragoztea. Goian erabili dugun kasuan, baldintza guztiak ezagutuz gero, posiblea da sua piztea, edo, adibidez, baldin eta baldintzetako bat baztertzen bada, hura eragoztea.

Mill autoreak zenbait *metodo* proposatu zituen kausen eta ondorioen analisia bideratzeko. Hiru analisi-eredu proposatu zituen:

1. *Kointzidentziaren metodoa.* Analizatzen den fenomenoaren adibide batek edo gehiagok baldin eta baldintza komun bakarra badute, kasu horietan guztietan errepikatzen den baldintza hori da fenomenoaren kausa.

> Demagun festa batean baten batzuk oso modu berezian hitz egiten eta jokatzen hasten direla; mozkortuta daude. Zein da mozkortu izanaren arrazoia? Janaria? Ez, zeren mozkortu direnez gain, beste batzuek ere jan baitute mahaikoa. Edariak? Horiek analizatuta, ikusten da edari guztiak direla alkoholdunak. Mozkortuta ikusten diren guztiak ibili dira edaten. Mozkorraren arrazoia hor bilatu behar da, eta ez janarian. Kointzidentziaren metodoa delako horrek laguntzen du zenbait balizko baldintza baztertzen, eta horretan datza haren garrantzia.

2. *Desberdintasunaren metodoa.* Analizatzen den fenomenoa gauzatzen baldin bada kasu batean eta beste batean ez, eta kasu bataren nahiz bestearen baldintza guztiak berberak baldin badira salbu bakar bat, horixe da fenomenoa eragiten duen kasuaren baldintza-eragile nagusia.

> Demagun: hegazkin batean, bidaiari bat, bakar bat, gaixotu dela. Zein da arrazoia? Ikusi beharko litzateke zer duten komun bidaiari guztiek, eta zer duen bakoitzak berezko. Demagun denak daudela osasuntsu hegazkinera sartu direnean, eta baldintza eragilea hegazkinean bertan aurkitu behar dela. Baldin eta denek jan eta edan badute gauza bera, salbu batek, eta horixe bada gaixoa, eta, adibidez, berak bakarrik jan badu arraina, badirudi arrain horixe izan daitekeela bidaiari gaixoaren ezinegona eragin duena.

3. *Kointzidentzien eta desberdintasunen metodo bateratua.* Baldin eta fenomenoa gauzatzen den kasu batek edo gehiagok komun duten bakarra zirkunstantzia bat bada, eta bien bitartean fenomenoa gauzatzen ez den kasu batek edo gehiagok ezer ez badute komun salbu goiko zirkunstantzia horren falta argia, baldintza horixe bera da fenomenoa gauzatzeko ezinbesteko arrazoia.

> Demagun festa batean koktelak eta ur minerala zerbitzatu direla; koktelak izan dira laranjazkoa eta mertxikazkoa. Jendeak ez du denetatik hartu. Batzuk mozkortu egin dira. Zer dute komun mozkortu direnek, eta zer dute desberdin besteek? Mozkortu direnak koktelekin mozkortu dira. Baina koktelak eurak ere desberdinak dira. Zer dute komun koktelek? Bada, pattarra. Horra zer den mozkorrek komun dutena, eta mozkortu ez direnek ez dutena (kasu honetan, kantitatea ere izan daiteke kontuan hartzeko baldintza, jakina).

6.2. ONDORENGOTZA-LOTURAK

Ondorengotza-loturak lantzeak askotariko argudioak eraikitzea ahalbidetzen du. Beste batzuen artean, nagusiki hauek: argudio pragmatikoa, bitartekoa eta helburua erlazionatzen dituen argudioa, xahubidearen argudioa, zuzenbide bereko urratsen argudioa eta gainditze-bideko argudioa.

6.2.1. Argudio pragmatikoa

Bai kausatik ondoriorako bidea, bai ondoriotik kausarako bidea ere, biak daude argudio pragmatikoaren oinarrian; kate kausalean, ohikoa da batetik besterako balio-transferentziak egitea.

Argudio pragmatikotzat honako hauxe hartzen da: ekintza bat edo gertakari bat analiza lezakeena, arreta jarrita gertakariaren *balizko* emaitzetan, horiek onak nahiz txarrak izan. Helburuak hartzen ditu gogoan argudio pragmatikoak; ez ditu jomuga horretara heltzeko bideak gogoan hartzen. Proiekzioan ditu bere beginiak argudio pragmatikoak. Honako honek bezala, gutxi gora behera:

> Limosna on bat topatu daitekeen tokian, han nago ni (Lertxundi, 2004: 209).

Argudio pragmatikoak arrakasta besterik ez du eskaintzen, horren balorazio etikorik gabe. Zoriontasuna izan liteke agindutakoa, baina ez derrigor horren zuzentasuna edo gizalegea; ezta kontrakoa ere.

Balio-transferentzia gerta dadin, argi utzi behar da aipatzen den gertakaria dela ondorio horretara heltzeko *nahikoa arrazoi* eta *halabeharrezko arrazoi*.

6.2.2. Bitartekoa eta helburua

Badakigu jakin gertakaria modu batean baino gehiagotan balora daitekeela. Gertakari beraren aurrean, denek ez dugu berdin erreakzionatzen, ezta kasua eta

kausa berdin aztertzen eta interpretatzen ere.

Argudiatzeko unean, batzuetan gertakaria gauzatzeko bideak arduratzen gaitu, eta beste batzuetan gertakariaren beraren helburuak. Batzuetan bideak betetzen gaitu, eta besteetan helburuak. Inoiz, biekin gatoz bat. Inoiz, ez batarekin ez bestearekin.

Nolanahi ere, baldin eta jomuga bat minimizatu gura baldin bada, nahikoa da zerbaiten ondorio natural moduan aurkeztea; aldiz, haren garrantzia azpimarratu nahi baldin bada, nahierara bilatutako helburu moduan aurkeztu behar da.

Argiago ikusteko, hona adibidea. Gerra batek gainditzen dituenean aurreikusitako emaitzak (ezkorrak normalean), ohikoa da esatea gerra hura beharrezkoa zela aberriaren existentzia bera bermatzeko. Ondorioak (sarraskia eta triskantza) bigarren mailara eramaten dira, eta begien aurrean helburua (aberria libre) uzten da.

Balioen logikak beti banandu ohi ditu bitartekoak eta helburuak. Baina, praktikan, oso hurbiletik doaz bai batzuk eta bai besteak. Sarri askotan, helburuak eraiki eta aldatu egiten dira, eskura egon eta onartzen diren edo ez diren bitartekoen arabera.

Kasu batzuetan, helburuak atseginak dira, maitagarriak, hain zuzen bitartekoak gozoak direlako, errazak direlako, askoren gogoa betetzen dutelako. Helburu batzuk erakargarri egiten dira bitartekoak eurak atsegingarri direlako, bitartekoetan asmatzea erraza delako.

Kontrakoa ere gertatzen da; alegia, bitarteko zailek jendea uxa lezakete helburutik, eskatzen den esfortzuak ez duelako justifikatzen eskura litekeen ondorioa.

Inoiz, bidea bera bilaka daiteke helburu.

Argudioak eraikitzerakoan, eta ekintza bi aurrez aurre ezarri behar direnean, eta biak baloratu, bitartekotzat joko du hizlariak menpekotzat hartu nahi duena, eta helburutzat garrantzitsuagotzat jotzen duena. Adibidez, esakun honetan: *bizitzeko, jan egin behar da; eta ez bizi jateko;* helburu nagusia bizitzea da, jatea bitarteko bat.

Batzuetan, bitartekoak eta helburuak elkarren artean baztertzaileak direla esan ohi da, alegia bitarteko *horiekin* ezin dela *emaitza* hura eskuratu. Kontraesan bat erakusteko nahiz eraikitzeko balia liteke bitartekoaren eta helburuaren arteko harreman estua. Esparru honetako kontraesana ilustratzera dator honako adibidea. Espainiako Guardia Zibilaren tratu txarrak eta tortura pairatu dituen lagun bat da testuko protagonista. Testuan poliziak bere ohiko jarduna eta helburuak goresten ditu; azken galderan, preso denak zalantzazkoa bihurtzen du diskurtso osoa, bitartekoen kontraesana agerian utzita.

> Igandean gora eraman dute, ziegako atea poliki-poliki jo eta gero. Gela txiki batean sartu eta bakarrik utzi dute. Pare bat minutura gizon bat iritsi da, 45 urte ingurukoa, kaleko jantzita. Kapitaina dela esan dio. Berarekin mintzatzeko prest dagoen galdetu dio. Baietz erantzun dio, edonorekin hitz egiteko prest egon dela beti. "Hauxe da nire mezua: hau guztia ez da euskararen kontrakoa, ETAren kontrakoa baizik". Galiziakoa dela, ama hizkuntza galegoa dela, herriei begirunea diela, bera ere kristaua dela eta bien zeregina funtsean berbera dela: jendea laguntzea. Nork bere erara: berak zirkulazioa zuzenduz, edo txalupetako jendea bizirik jasoz, esaterako.
>
> — Guri hor behean bizitzea tokatzen ari zaigun guztiak zerikusirik ba al dauka pertsonei laguntzearekin? (Agirre, 2004: 72).

Hots, bitartekoek ezereztu dute helburu ustez jasoa dena.

6.2.3. Xahubidearen argudioa

Funtsean, honako hau esatean datza: baldin eta lan bat hasi baldin badugu, hura bertan behera uzteak ez du zentzurik, nahiz eta aurrera egitea zail egiten den. Ildo horretatik, argudioak dio: *atzera egiteak prozesu guztia ezeztatzen du, eta ordura arte lortutakoa hutsaren pare bihurtzen.* Beraz, iraganean inbertsiorik egin baldin bada, hobe aurrera egitea beti, benetako nahiz balizko xahuketan aritu izanaren salaketa saihesteko, behintzat.

Oraintxe da aukera, ez utzi alde egiten, esan ohi da sarri.

Sakrifizioak helburua edertzen du, atzera egiteak lausotzen eta zapuzten; horrelako esakun bat aurki liteke argudio-eredu honen azpian.

6.2.4. Zuzenbide bereko urratsen argudioa

Impass garaietan, lortu nahi dena urrun ikusten baldin bada, eta, zailtasunak direla-eta, inor atzera egitekotan baldin badabil, agian hobe da planteatzea bidea urratsez urrats egin daitekeela, apurka-apurka. Beharbada, ez da zertan azaldu zein den azken helburua, eta nahikoa izan daiteke mailaz mailako bitarteko helburuak erakustea.

*A*tik *C*ra joan gura baldin bada, eta distantzia handia dela ikusten bada, beharbada, hobe da hasiera batean *B*raino joatea eta handik *C*ri begiratzea; horrela, seguruenik, lortuko da ikuspuntu berri bat, zeinaren bidez *C* hurbilago egongo baita eta, hartara, eskuragarriagoa emango baitu.

Helburu bat lortzeko, urratsez urrats, gero eta zoliago izan litekeen bide bat plantea daiteke, tankera honetako argudioen bidez; azkenean paradisua aginduz, esate baterako. Urratsez urratseko honek ere, baldintzen arabera, jakina, egoerak gainditzeko, mehatxu jarraitu eta planifikatuaren itxura ere har lezake, adibide honetan ikus daitekeenez:

> Bost egun eman behar dituzu hemen. Lehenengo egunean aitortzen baduzu, gainerako lauretan lasai utziko zaitugu. Bigarren egunean lehenean baino gogorragoa izango da, baina aitortzen baduzu, hurrengo hiru egunetan lasai utziko zaitugu. Hirugarrena are gogorrago izango da, baina aitortzen baduzu, bi egun lasai egongo zara. Baina jakin ezazu hemen kristo guztiak aitortzen duela (Agirre, 2004: 68).

6.2.4. Gainditze-argudioa

Helburu jakin baterantz, eta ezarritako bidetik, *beti da posible aurrerago egitea, eta aurrera egite horrek berak aukera ezin hobea eskaintzen du egiten ari garena birbaloratzeko*. Horrela mintzatu ohi dira gainditze-argudioak.

Horrela eginez, posible izango zaigu argudioa babestea entzuleen balizko zentsuretatik, baldin eta entzule horiek onartzen eta errespetatzen duten jomuga batean txertatzeko gauza baldin bagara zentsuragarri litekeen hori, saihestu gura genituzkeen balizko kritika horiei aurre hartuta.

Argudio-eredu honetan, garrantzitsuena ez da helburu bat eskuratzea, baizik eta unea gainditzea, ezagutzera ematea eta mailaz maila gora egiten ari garen sentsazioa transmititzea.

Batzuetan, argudio-eredu hau baliagarria da kontra-argudioak saihesteko eta horiei aurre egiteko; gainditze-argudioak erakusten du orain arte oztopotzat jotzen zena helburu laudagarri bat lortzeko bidea baino ez dela izan. Adibidez: *gaixotasuna ona da, gizakia immunizatzen duen heinean*.

Hona adibide latz bat, ikaragarria. Gaixotasuna gainditzen bide du heriotzak, eta bakea ekartzen. Gaixo bizi baino, hobe omen da hilik egotea; horixe aldarrikatzen du honako testu honek:

> Nahiz eta gure ama izan, anaia gaztea eta biok alegratu egin ginen bere heriotzarekin, sufritzekotan hobea baita hiltzea, eta amak asko sufritzen baitzuen (Atxaga, 2000: 31).

7. Aldiberekotasun-loturak

Ondorengotza-loturaren kasuan, fenomeno maila berekoak dira aurrez aurre jartzen direnak; aldiberekotasun-loturaren kasuan, maila desberdineko errealitate bi lotzen dira; bat nagusia izaten da eta nagusi horren azalpena bestea.

7.1. PERTSONA ETA EKINTZAREN ARTEKO LOTURA

Argudio-eredu honetan, gizakia —zenbait kualitateren jabe den pertsona, zenbait ekintzaren autore eta zenbait zehaztasunen helburu— izaki iraunkorra da, eta haren inguruan biltzen da zenbait fenomeno edo ekintza, zeintzuei hark —gizakiak— ematen baitie arrazoia, lotura eta uztardura. Hartara, oro har, pertsonak kualifikatzen eta ezaugarritzen ditu gertakariak.

Hala ere, pertsonengan ainguratzen diren ekintzek eurek ere eragina dute egilearengan eta horren ezaugarrietan, ekintzek eurek ere markatzen baitute subjektua. Pertsonarengandik datorren oro, berak ekoitzitako oro, modu boluntarioan nahiz inboluntarioan ekoitzi (ekintza jakinak, adierazpenak, emozioak, epaiketak eta konturatu gabeko ikarak eurak ere), ekintza edo fenomeno moduan har litezke. Fenomeno horiek guztiek ezaugarri dezakete subjektua.

Subjektua ezaugarri dezaketen ekintza kualifikatzaileen zerrenda luzea da; eta badago beste kontu bat: ez dago jakiterik zerrendak kronologikoki noraino jo lezakeen denboran atzera, zeren pertsona bat kalifika baitaiteke nola gaur egun duenagatik —erakusten duenagatik edo gordetzen duenagatik— hala duela hainbat denbora egin zuenagatik —edo egiteke utzi zuenagatik—.

Are gehiago: ez dago argi zer den garrantzitsuagoa, behin egindakoa ala unean unekoa, nahiz eta normalean ekintza denboraz hurbilak baloratzen diren gehien. Hala ere, ez da beti horrela.

Pertsona baten irudia eraiki edo eraits lezakeen seinale bat da diogun ekintza edo fenomenoa. Sarritan, ekintzari aitortzen diogun balioa da horren egileari aitortzen diogunaren parekoa.

Lerro semantiko zuzena eraiki ohi da eragilearen eta eragindakoaren artean. Arrazoi objektiboek nahiz subjektiboek lagundu ohi dute lerro hori marrazten. Norabide bikoitzeko lerroaz ari gara: subjektutik objektura, eta alderantziz.

Elkar margotzen dute pertsonak eta haren ekintzak.

7.2. AUTORITATE-ARGUDIOA

Laudagarria den pertsonaren argudioa, argudio laudagarria da; iturriaren autoritateak berebiziko indarra du argudio-testuetan. Oro har, honela funtzionatzen du argudio horrek: *laudagarria da protagonista, laudagarria da ekintza*. Ildo beretik: *baldin eta halako sinesgarria bada, ondorioztatu behar da hark esanikoak guztiz sinesgarriak direla*. Hona hemen estilo horretako beste adibide bat: *Giza eskubideen aldeko zenbait erakundek salatu dutenez, halako Herrian presoak gaizki tratatzen dira kartzeletan. Beraz, gaizki tratatzen dira.*

Diskurtsoan baieztatutakoaren berme eta babes moduan, aintzakotzat har daiteke hirugarren baten zina, aipatzen den pertsona hori sinesgarria den heinean entzuleentzat. Pertsona bat edo talde bat sinesgarria denean eta tesiarekin bat datorrenean erabiltzen da autoritate-argudioa diskurtsoan. Argudio horrek gogora ekartzen du pertsona edo talde horrek lehenago egindakoa, zeina ongi baloratzen baitu entzuleria jakin batek. Garrantzi handikoa da autoritate-argudioa. Berez, bada kontuan hartzeko modukoa; edonola ere, beste froga batzuekin batera datorrenean egiten da indartsuen diskurtsoaren testuinguruan.

Autoritatearen hitzek besteren iritziak alda ditzakete, baldin eta dena delako autoritate horri nagusigo ideologikoa onartzen baldin bazaio. Hona adibide bat (miraria zena, deabrukeria bihurtu da, bat-batean, autoritateak hala eskatuta):

> Kantaren onenean ari zirelarik, Pierre Lancre epailea agertu da zaldi ondo hartu baten gainean.
>
> — Vade retro, Satana! –egin du harrabots handi epaileak.
>
> Epailearen hitzak entzutean, jendeak kantatzeari utzi dio. Beti ere zaldi gainetik, epaia eman du Pierre Lancrek:
>
> — Deabruaren laguntza berekin duenak baizik ez dezake ur gainean iraun!
>
> Ordu arte, jendeak miraritzat zuen emakumea ez ito izana. Ordutik aurrera, beren buruak epailearen argudioarekin korapilaturik, Pierre Lancreren adimen zorrotza laudatzen hasi da jendea, eta, emakumea hirugarren aldiz arrastaka harturik, hiriko plaza nagusira eraman dute. Ezpel-zotzak eta ezpel-adarrak pilatu dituzte plazaren erdian, ezpelaren suak luze irauten baitu gogotik berotzen. Hesola bat jaso dute ezpel-pilaren erdian eta bertan lotu dute andre Madalen. Gero, zerri-gorotza bota dute egur-pilaren gainera, emakumearen heriotza iraingarriagoa gerta zedin (Lertxundi, 2004: 156).

Ustea eta konfiantza besterengan uztea eskatzen du argudio mota horrek, eta arriskutsua izan daiteke, jakina. Oro har, autoritatearen aipuek helburu bi dauzkate: bat, premisa baten sinesgarritasuna bermatzea; eta, bi, entzuleak edo irakurleak jatorrizko informazioa modu zuzenean entzun edo irakurri ahal izatea.

Edozelan ere, kualifikatuak izan behar dute iturriek. Iturri egokiak eta sinesgarriak behar dira argudio mota honetan. Eta, gainera, arazoaren aurrean iturri pertinenteak izan behar dute aipatzen diren horiek. Alegia, Einstein fisika-maisu handia izan zen, baina horrek ez du bihurtzen filosofia politikorako iturri fidagarri, sinesgarri, kualifikatu edo pertinente (Weston, 2004).

Oro har, autoritate-argudioari egin ohi zaion kritika honako hauxe da: pentsamendu-askatasuna jartzen duela kolokan eta, sarritan, gehiegizkoa dela autoritateen aipamenaren bidez lortu gura den eragina (Plantin, 2002).

Dogma ezartzeko Elizak erabiltzen duen formula da paradigmatikoa: *Roma locuta est,* 'Hitz egin du Erromak'. Horra autoritatearen adibide biribila.

7.3. EKINTZA/SUBJEKTUA ARDATZA APURTZEA

Pertsona eta ekintzaren artekoaz lehenago esan duguna beste era batera ikustera goaz orain. Zenbait kasutan, ez datoz bat guk pertsona bati buruz ditugun sentipenak eta haren ekintzei buruz ditugunak. Gerta liteke. Kasu horietan, ondo dator arestian marraztu dugun ekintza/pertsona ardatza apurtzea, eta bai subjektua eta bai objektua bera analisi-eremu desberdinetara eramatea.

Horretarako erabili ohi den argudio-teknika nagusia da ekintza arbuiagarria bera ukatzea, edo ukatzea ekintzak inolako eraginik izan lezakeenik subjektuarengan, zeren gure protagonistak perfekzio absolutuan garatzen baitu bere rol nagusia, guk diskurtsoan goresten duguna, hain zuzen ere.

Perfekzio hori, balizkoa betiere, onerako nahiz txarrerako izan daiteke, alegia, subjektua jainko edo deabru kontsideratzeko. Horrela, subjektua bere identitate propioaz definiturik dago, eta ez haren ekintzek eskain lezaketen irakurketen arabera. Objektuaren gainetik dabil subjektua argudio-eredu honetan, eta haiek baino jasoagoa da.

Ikusi ondoko argudio-lerroa:

> Erakunde armatu batek agiri bat kaleratu du (berdin da zer dioen); agiri horrek ez digu ezer berririk esaten, zeren erakunde armatu hori deslegitimaturik baitago bere existentzia hutsagatik.

Zer ikusten dugu hor? Bada, "nahi dena esanda, beti gauza bera" esaten ei duela subjektuak. Argudio horren arabera, aurrez satanizatua izan denak ez du zilegitasunik ezer esateko; absurdura jota, ezta deabru izateari utziko diola esateko ere.

Baina arestiko argudio-bide horrek ahulezia nabarmena izan lezake, eta erraz egin dakioke kontra, hau esanez adibidez:

> Beraz, proposatutako neurria ona baldin bada, txarra bilakatuko al da gizaki gaiztoak proposatu duelako? Edo kontrara, neurria txarra izanik, zerikusia du proposatzailea gizaki ona izateak?

Ikusten denez, ekintza/subjektua ardatza apurtzeko ezpatak aho bi dauzka; alde batera mozten du, bai eta bestera ere. Batzuetan, nahiago izaten dugu inor ezaugarritzeko zer egiten ez duen kontuan hartu:

> Egiten dugunak baino gehiago duintzen gaitu sarritan egiten ez dugunak (Lertxundi, 2004: 166).

Nolanahi ere, baldin eta banaezinak baldin badira ekintza eta subjektua, baldin eta saihestezina bada ekintzak subjektua edo subjektuak ekintza ezaugarritzea, orduan, elkarreragina ahultzeko-edo, zilegi litzaiguke esatea ezen salbuespen gisa gertatzen dela gertatzen dena; hots, batak bestea ezaugarritzen du, baina egoera arruntean ez litzateke horrelakorik gertatuko. Ondoren, eska daiteke salbuespena ahaztea eta balizko egunerokotasun horretara jotzea. Esate baterako:

> Mayor Orejaren beraren botoa eman zuen 2003an Legebiltzarrean Carlos Iturgaitz PPko alderdikideak. Hartara, boto bi eman zituen Iturgaitzek bilkura hartan: berea eta Mayor Orejarena. Ekintza bera lotsagarria da, iruzurra, legearen aurkakoa. Baina ekintza horrek Iturgaitz ez zikintzeko, nahikoa da esatea salbuespen bat izan dela, jolas batean gertatutako zerbait izan dela, eta berebiziko garrantzirik ez duela. Beraz, sinets dezagun Iturgaitzengan aurreko hori gertatu izan ez balitz bezala, gertatua salbuespena baita, ondoriorik gabeko jokoa besterik ez baita.

7.4. TALDEA ETA KIDEAK

Norbanakoek eragin argia dute gugan, talde bati buruz dugun iritzia sortzeko unean. Eta kontrara, taldeak berak ere ezaugarritu egiten du kideetariko bakoitza. Era berean, lagun batek bestea ezaugarritzen du. Norbanakoaz eta objektuaz hitz egiterakoan esandakoak balio digu hemen ere; hots, batak bestea ezaugarritzen du, eta alderantziz ere bai.

> Inork ez zekien nondik etorria zen Ibarlako jauna. Saratarrek zekiten bakarra, tratu handia zuela Mikolas izeneko jenioarekin. Horrek Ibarlako jaunari buruzko susmo beltz asko gizendu zituen saratarren artean, eta ez zuten ahopeka baizik hitz egiten Ibarlako jaunari buruz (Lertxundi, 2004: 145).

Jakina denez, talde batek izan lezakeen prestigioak lagun lezake dena delako ideiak zabaltzen; horregatik egiten dira hain maiz talde kualifikatuen sinadura-bilketak honetaz edo hartaz.

Taldearen eta kidearen arteko ezaugarritze-ardatza norabide bikoitzekoa izan daiteke: taldeak ezaugarri lezake kidea, bai eta kontrara ere; kideak edo kideek taldea eta taldearen ekintzak eurak ere ezaugarri ditzakete.

Bide batez, gogora dezagun lagunak ere ezaugarritzen duela laguna: *esan norekin zabiltzan, esango dizut nor zaren*.

Taldearen eta kideen arteko norabide bikoitzeko ezaugarritze-ardatz hori oso da indartsua. Inoiz gertatzen da ezin dela ezkutatu kideren batek egin duena, eta horrek talde osoa "zikin" dezakeela uste izaten da. Kasu horietan, kidearen ekintza kritikagarri horrek taldea ez lohitzeko, irteera posible bakarra dago: esklusioa, alegia kideak eta taldeak harremana apurtzea. Esklusioa borondatezkoa izan daiteke: kideak berak erabakita doala erakustea. Edo taldeak erabaki lezake kidea botatzea; behartua da esklusioa orduan.

> Har ditzagun gogoan preso politikoak, adibide bat jartzearren. Bada, kartzelan dago dena delako presoa. Presoaren kartzela-egoera pertsonalean aldaketa-aukera bat dago: administrazioak ezarritako baldintza batzuen arabera kaleratua izatea. Nabarmena da talde jakin bateko preso bati kalera ateratzeko (libre nahiz gradu arin baten bidez) eska dakiokeen adierazpen publiko bat egiteak nahiz jarrera berezi bat erakusteak izan lezakeen eragina gizartean eta taldean bertan. Adierazpen horren bidez, demagun, presoak arbuiatu egiten du bere taldea, eta, ondorioz, administrazioak erraztu egiten dio kaleratze-bidea. Horrela jokatuta, adierazpena eskatu diotenek eskuak garbi dituzte dena delako preso hori besteetatik bereizteko, dena delako preso horrek bere burua talde horretako eragin-eremutik at uzten duelako, eta besteei eskaintzen ez dieten kaleratze-bidea eskain diezaiokete adierazpen hori egin duenari. Taldea kritikatuz, harekin kateatzen zuen lotura sinbolikoa puskatu du.

7.5. LOTURA SINBOLIKOAK

Normalean, ikurra (sinboloa) eta haren sakoneko esangura ez dira errealtasun-esparru berekoak izaten; baina, ikurrak bere funtzio sinbolikoa gara dezan, beharrezkoa da zeinua eta esangura errealtasun-maila berera eramatea, errealtasun hori mitikoa edo espekulatiboa baino ez bada ere. Hori horrela denean, aldiberekotasun-lotura baten aurrean gaude.

Berez materialak ez diren lotura horiek, harmonia horiek, elkarkidetasun horiek, munduaren eta unibertsoaren ikuskera erromantikoa, erlijiosoa, poetikoa edo politikoa dute atzetik. Normalean, esanguraren bat dakarkigu gogora ikurrak, beti fedearen arabera, sinesteko prest gauden horren arabera.

> Gurutzeak bizitza eternala dakarkigu gogora, fededun garen heinean.
>
> Igitaiak eta mailuak gizarte solidarioa dakarkigu gogora, sozialista edo komunista garen heinean.

Gauzekin legez, pertsonekin ere gerta liteke lotura sinboliko hori, batez ere talde baten ikur bilakatzen denean pertsona jakin bat. Che Guevara, kasurako.

8. Kasua, analogia eta metafora

Errealaren egitura oinarritzen duten beste lotura batzuen aurrera gatoz. Izatez, gehiago badira ere, hiru eredu ikusiko ditugu atal honetan: kasuarena, analogiarena eta metaforarena. Lehen urrats batean, kasuaren bidezko argudioen azalpenean, adibidea, ilustrazioa, eredua eta anti-eredua aztertuko ditugu, horien indarra eta erabilera. Bigarren urrats batean, analogiaren azterketa orokorraren baitan, haren barne-osagaietan, ondorioetan, erabileran eta estatutuan jarriko dugu arreta. Azkenik, metafora ikusiko dugu, betiere argudioen eraikuntza-lanetan duen eraginaren ikuspuntutik analizatuta.

8.1. KASUAREN BIDEZKO ARGUDIOA

Kasu partikularretik abiatzen da lotura mota hau. Orokortzeko bidea emango digu eredu honetako *kasu jakinak*, zeren, ikusiko dugunez, kasu jakinak, inoiz, erregulartasunari euts baitiezaioke eta imitazioa susta bailezake.

Suposa daitekeenez, ez dago zertan pentsatu edozein kasu baliagarri izan dakigukeenik argudioak eraikitzeko. Edozein adibideren edozein deskribapenek ez du zertan izan ezelako lege orokortzaileren oinarri, ez du zertan izan maiztasun jakinik edo imitazio-lanen sustapenik. Baina batzuek bai, eta horiek eskuratu behar ditugu arrazoiaren bideak eraiki eta sendotzeko.

8.1.1. Adibidea argudioaren oinarrian

Zientzietan, sarritan erabili izan dira adibideak legeen funtzionamendua ilustratzeko. Hedabideetan, sarritan irakurri izan ditugu pertsonaia famatuen bizitzak, zer egin duten eta noraino heldu diren gizarte-ospea eskuratu arte.

Adibideak behin eta berriro erakusten direnean, eta adibideok bide bera markatzen dutela ikusten denean, badirudi zilegia dela pentsatzea ezen deskribapen bat egiteaz gain beste zerbait gehiago ere iradokitzen ari dela kazetaria. Adibide bakarra ikusten denean, faktu baten deskribapenaren aurrean egon gaitezkeela pentsa liteke; aldiz, zentzu bereko faktu-meta ikusten denean, zailagoa da sinestea ezen deskribapen huts baten aurrean gaudela, eta errazago zaigu sinestea eredu bat azpimarratzen ari zaizkigula.

Kasua eta argudioa

Argudiatzen hasteko, erabiltzen den adibideak benetako gertakariaren ezaugarria behar du; alegia, entzuleek benetan gertatu izandakotzat jo behar dute adibidea. Adibidearen errefusamenduak (bai egia historikoaren aurka datorrelako, bai entzuleek gertakaria ez sinesteko benetan sinesgarriak izan litezkeen argudioak gara ditzaketelako) argudioaren errefusamendua dakar. Alfer-lana. Beraz, argi geratu behar du ezen adibidearen hautaketak hizlaria konprometitzen duela, halako moldez non bere argudioa gaindiezinezko zalantzetaraino eraman baiteza-ke, baldin eta ondo aukeratu ez bada abiapuntua.

Adibideak zalantzazko bihur lezake argudioa; bai eta sinesgarri ere. Horra hor haren indarra. Zentzu argi bat iradokitzen duenean, adibideak argudiatzeko indarra eta ahala du.

Hona hau (Weston, 2004):

> Adibideak: Shakespeareren *Romeo eta Julieta* lanean, Julietak ez zituen ezta hamalau urte ere. Erdi Aroan, bataz besteko ezkontza-adina neska judutarrengan hamahiru urtekoa zen. Eta Erromatar Inperioaren garaian, neska asko ezkontzen zen hamahiru urte bete aurretik.
>
> Tesia: Iraganean, emakumeak gazterik ezkontzen ziren, oso gazte gainera.

Orokortu egiten du goiko argudio horrek, adibide batzuetatik abiaturik. Argudio horretan, tesian aurkitzen dugu araua: *iraganean, emakumeak gazterik ezkontzen ziren, oso gazte.* Eta, iritzi hori oinarritzeko, bermatzeko, indartzeko eta justifikatzeko, hiru adibide eskaintzen dira: Julietarena, Erdi Arokoa eta Erromatar Inperiokoa.

8.1.2. Ilustrazioa eta argudioa

Ikusi berri dugunez, *adibideak* oinarria eman nahi dio arauari. Adibidearen kasuan, faktuak edo gertakariak ematen dio legeari oinarrizkotasun-estatutua.

Horren hurbileko kasua ikusiko dugu orain, oso hurbilekoa: ilustrazioa. Batzuetan ilustrazioa eta adibidea identifikatu egiten dira, desberdinak diren arren. Muga lausoa dute adibideak eta ilustrazioak, baina muga.

Ezarria eta onartua den arau bat indartzea bilatzen du ilustrazioak. Horretan dira desberdinak adibidea eta ilustrazioa. Legea sortzeko oinarria da lehena (adibidea), legea indartzeko lan-tresna da bigarrena (ilustrazioa).

Kasu jakinak eskaintzen ditu ilustrazioak, eredua azaltzeko eta hura errazago ulertarazteko.

Nolanahi ere, balizkotasunean, gaizki hartua izateko unean, diskurtsoan bertan, ilustrazioak arrisku txikiagoa sortzen dio hizlariari adibideak baino. Arrazoia honako honetan datza: oro har, onartutako legeak gidatzen duela ilustrazioa. Aldiz, adibidearen kasuan, faktuak gidatu eta justifikatu behar du legea eta haren ulermena. Ardura handiagoa uzten da adibidearen eskuetan, ilustrazioarenetan baino.

8.1.3. Eredua eta anti-eredua

Diskurtso batean, norbaiten kasua azaltzen denean, haren jokaeraz ari garenean, haren bizimoduaz, haren portaeraz, *eredua* eraikitzen ari gara; edo, anti-eredua marrazten, nahi denaren arabera, jakina. Konfiantza iradokitzen duen eraikuntza izan ohi da eredua; imitazioa eskatzen du ereduak, antzerako zerbait egitea eskaintzen du, kopiatua izatea bilatzen du.

> Baldin giltzapean dauden presoek zuk bezalako nahitasunarekin maitatuko balute zuzentasuna, ez litzateke hainbeste krimen eta ankerkeria izango; baldin zuk bezalako neurriarekin begiratuko baliote bizitzaren laburrari, ez lukete laprast egingo lizunkeriaren lohitan. Horregatik, presondegiaren ardura eman zenidanetik, zure ispilu txit begiragarria jarri diet presoei begien aurrean, argiro ikusten baita bertan Jainko Jaunaren zuzentasunezko bidea (Lertxundi, 2004: 86).

Normalean, argudioak eraikitzeko unean, kolektibo batek onartutako heroiak aurkezten dira eredugarritzat. Patroi bat iragartzen du loriaz betetako ereduak, portaera modu bat.

Egoera jakin baten aurrean esaten denean *egin ezazue aita on batek egingo lukeena* edo *maita ezazue hurkoa zuen burua beste,* "eredua" ari gara ezartzen. Prestigiodun gizakia aurkezten da, halako moldez non erakutsi eta frogatu nahi litzatekeen tesiari ondoen lagun diezaioketen ezaugarri jakin eta onartuak azpimarratzen baitira, beste guztien gainetik.

Ereduaz esandakoak esan litezke anti-ereduaz ere. Eredua ezarri nahi denean, irudi imitagarri legez erakutsiko da heroia. Errefusa edo mespretxua sortu gura denean, anti-heroia erakutsi behar da, esanez hark egiten duena imitatzen duenak hark mereziko lukeen bazterketa mereziko duela.

Ereduaren erabilpenak irteera komikoak bultza ditzake diskurtsoan, bai eta bizitza arruntean ere. Ikasle txarraren eta aitaren arteko elkarrizketa:

> Aitak: Zure adinean, Zesar ikasle ona zen.
>
> Lotsarik gabe, semeak: Eta zeurean enperadore.

8.2. ANALOGIAREN BIDEZKO ARRAZOIA

Analogia bat formulatzen denean, bi gauza (edo bi fenomeno) antzekoak direla esaten ari gara. Batetik, zertan diren antzeko erakusten dugu; eta, bestetik, suposatutzat ematen dugu beste aspektu batzuetan ere antzerakoak izango direla (Capaldi, 2000). Antzekotasuna handiago, eta analogia zuzenagoa. Edozelan ere, antzekotasunak ez du identifikazioa justifikatzen.

> Baina, nola lur emankor eta oparoek laboreaz gain labore horientzat arriskutsuak diren belar txarrak ere sortzen dituzten, hala dira toki[4] horiek, zeintzuek, batzuetan, kausekin zerikusi txikia duten eta ezertarako ez diren pisu gutxiko argudioak sortzen baitituzte (Zizeron, *Hizlaria*, IV, 48).

Analogiaz baliatzen den argudioa ez da izaten erabatekoa, ez da izaten eztabaidaezina. Baina eginkizun handia aitortu izan zaio beti argudiatzean.

Antzekotasunaz baliatzen da analogia, esana dago. Proposamenen egituren antzekotasuna dago analogiaren benetako oinarrian. Analogiaren formula klasikoa hauxe da: *A-k B gogoratzen du, C-k D bezala*. Antzekotasunaren teknikak eredu bi lantzen ditu.

- Kasu jakin batek beste bat azaltzeko bidea ematen du:

> Ikus bedi, adibidez, Irlandako kasua. Harekin alderatuta, Euskal Herriaren egoera honetara eta honetara azal liteke…

- Kasu jakinek legea azaltzeko balio dute:

> Baldin eta kontuan hartzen baditugu irlandarren kasua, edo Palestinakoa, edo Hego Afrikakoa, ikusten dugu ezen herri menderatuek halako eta halako ezaugarri komunak dituztela, eta ondoriozta genezake honako arau orokor hau…

Analogiak ere balio dezake indukzioa lantzeko. Hara:

> Zaku batean sartu dut eskua, eta, ateratzean, gari-ale bat hartu dudala ikusi dut. Beste behin, eta berdin. Berriz, eta berdin. Hainbat aldiz, eta berdin. Beraz, gari-zaku bat da aurrean dudana.

Analogiak balorazio bat baino gehiago izan ditu historian zehar, bai filosofiaren alorrean, bai zientzienean, bai arrazoiketan. Platonek nahiz San Tomasek analogiaren erabilpena justifikatu dute, mundu errealetik dakarren informazioaren balioagatik, mundu erreala ulertzeko duen balioagatik, hain zuzen ere. Aldiz, analogian maila txikiko antzekotasuna baino ez dute ikusi zenbait pentsalari enpirikok; horien ustez, analogiaren balio bakarra hipotesi bat marraztekoa da, baina ondoren hipotesi hori frogatu beharko da indukzioaren bidez.

4. Topikoak ditu gogoan ditu Zizeronek.

Guretzat, arrazoiaren diskurtsoan, ondoko hau da analogia: egitura baten baino gehiagoren arteko antzekotasuna modu argian erakusten duen argudioa.

Oinarrizko proposizioan datza analogiaren originaltasuna, analogia ez baita hainbeste *antzekotasun-harremana,* ezpada *harreman-antzekotasuna*. Hori argitzeko, baliagarria gerta dakiguke Aristotelesen analogia eredugarri eta ezagun hau:

> Bada, naturalki argi diren gauzen aurrean, (AB) egun-argitan saguzarren begien egoera bera du gure arimaren entendimentuak (CD).

Azter dezagun analogia hori.

Proposatzen dugu analogia horren ondorioari (arimaren entendimentu murritza, CD harremana) *tema* deitzea, eta *foro* deitzea argudioari eusteko oinarria ematen dutenei (saguzarraren ikusmen bitxia, AB harremana).

Oro har, analogien kasuan, *foroa* ezagunagoa izaten da *tema* bera baino; ez da horrela izaten beti, hala ere.

Gure kasuan, ezaguna da saguzarra iluntzean moldatzen dela ondoen, egun-argiz baino hagitzez hobeto. Hartara, jokoa onartzen badugu, onartzen ari gara ezen gure arimaren entendimentua ere tupustean dabilela, gauzarik naturalenen aurrean.

Analogiaren funtzionamendua bermatzeko, beharrezkoa da *tema* eta *foroa* alor desberdinekoak izatea; arlo berekoak direnean, analogia baten aurrean barik, ilustrazio batean gaude, edo adibide baten aurrean, egitura bera konpartitzen duten elementuak izanik.

Analogiak egitura desberdinak eskatzen ditu, mundu desberdinak diskurtso berberera eta pentsamendu berberera hurbiltzea. Eta mundu batek bestea ulertzen laguntzen du.

Analogiak adibide aipagarria behar du bere baitan, adibide nabarmena.

Analogia-osagaien arteko harremana

Analogia batean, edozeinetan, lau osagairen arteko harremana dago (AB-CD, arestian agertu dugunez). Hala ere, batzuetan, lau osagai horiek hiru besterik ez dira, euretako bat birritan agertzen baita. Heraklitoren adibide honetan, horixe gertatzen da:

> Jainkotasunaren aurrean, gizona ume da;
> halako moldez ume, non haurra gizonari begira ematen baitu.

Kasu horretan osagai hauek agertzen dira: gizakia eta jainkotasuna lehen lerroan, eta umea eta gizakia (berriro) bigarrenean. Honako eskema hau dugu: AB CA, non A gizona den, B jainkotasuna eta C umea.

Batzuetan, apropos garatzen da egitura-antzekotasunik ez duten osagaien arteko analogia, *aurkakoen antzekotasuna* lantzeko; horrek ere bide ematen du analogiak lan egin dezan.

8.3. METAFORA ETA ARRAZOIKETA

Erretorika klasikoaren ikuspuntutik begiratuta, metafora *tropo* bat da, alegia, hitz baten nahiz lokuzio baten zentzu-aldaketa bat; autore batzuentzat, gainera, troporik biribilena da, goren-gorengoa.

> *Metafora* deitzen diot bere esangura aldatzen duen hitzari; dela beste nozio batekin duen antzekotasunagatik, dela edertasunaren arrazoiez, dela berezko esangura duen beste hitz hobeagorik ez dagoelako; eta *tropo* esaten diot bere esangura duen hitz bat ordezteari, gauza bera adierazten duen beste batekin, bien artean kausaltasun-harreman bat dagoela-eta (Zizeron, *Hizlaria*, III, 92).


Berez, termino baten esangura posible bat beste bati ematen zaio metaforaren bidez; konparaketa moduko bat da, baina erkaketa-lotura eliptikoa da diskurtsoan, eta gure buruan baino ez da. Inoiz, analogia dago metaforaren oinarrian. Hona, erkaketatik abiatuta, analogia jorratu nahi lukeen adibidea:

> Giza bizitza burdinaren antzerakoa baita. Arituaren arituaz higatu egiten da eta aritu ezean ordea ugerrak jaten du. Orobat gizakiak aritzen direnean higatzen ikusten ditugu eta aritu ezean kalte handiagoa egiten diote nagikeriak eta gelditasunak ariketak baino (Katon, *Ohiturei buruzko poema*, 3).

Baina erkaketa eta analogia baino zerbait gehiago ere bada metafora. Izan ere, erkaketa arruntetik harago, metafora zerbait bizia da, bere bizitza propioa duena. Metaforari esker, aldatu egiten da termino baten eduki semantikoa; eta igorleak hartzailearen atentzioa eskuratzen du *eskandalu semantiko txiki* (μ taldea, 1987: 177-178) dei litezkeenei esker. Katonen iruzkinetik aurrera eginda, esan genezake ezen bizi-modu nagia dela bizitzaren ugerra. Metaforara hurbildu gara.


Bi termino harreman metaforikoan jartzeko, lehendabizi beharrezkotzat jotzen da zerbait izatea komunean, eta abiapuntu komun horretatik aurrera eginda, termino biek gorputz bakarra egiten dute. Hor sortzen da metafora.

Zirkulu birekin irudikatuta, honela gutxi gora behera:



Hasieran, termino biek komunean dutena euren ebakidura besterik ez da, "A" gisa erakusten dena.

Eskandalu semantiko txiki bati esker, baldin eta tarte komun hori nahikoa baldin bada nolabaiteko batasun bat igurikatzeko eta irudikatzeko, metaforak zabaldu egiten du, bi entitateen osotasunera, abiaburuko kontaktu minimo hori. Honetara:



non "A" delakoa termino bien espazio osora zabaldu baita.

Behin baino gehiagotan esan izan denez, metaforak *antzekotasunen* bat du oinarrian. Baina, antzekotasun hori zer izan litekeen zehaztean, autore guztiak ez datoz bat. Kontu nagusia da ez hartzea antzekotasun hori modu inozoan, zeren ustezko eta balizko antzekotasunak oro oso baitira kulturalak eta nolabait ikasiak.

> Onartuta ezen 'txakur' sememak eta 'fraide' sememak badutela biek batetik 'fideltasun' marka bat (kontuan hartu barik euren Ugazaba eta Jaun direlakoen nortasuna zein den) eta, bestetik, 'defentsa' litekeen marka bat (txakurrek nagusiak babesten dituzte eta fraideek erlijioaren oinarriak), XII. mendean erraz sortu zen 'domini canes' delako metafora (Eco, 1988: 396).

Eta galdera bat: metafora hori ulertuko al da gure kulturatik at? Bada, ez. Goiko adibide horretan, antzekotasunak ez du harreman zuzenik erakusten, ez behintzat adierazlearen eta adierazitako objektuaren artean. Lorpen bakarra (eta handia) da nolabaiteko *antzekotasun semantiko* bat badagoela horren guztiaren azpian eta oinarrian.

Analogiaren esparrutik begiratuta, metaforak ezkondu egiten ditu foroaren osagai bat eta temaren osagai bat. Aristotelesen honako aipu honetan, argi ikusten da metaforaren oinarri analogikoa:

> arratsa egunari begira dagoen modu berean dago zahartzaroa bizitzari begira; hartara, arratsari dei dakioke "egunaren zahartzaroa", eta zahartzaroari "bizitzaren arratsa".

Aipu horretan, analogia batetik abiatzen da Aristoteles: arratsa/eguna lerroa alde batetik (foroa: A eta B), eta, bestetik, zahartzaroa/bizitza lerroa (tema: C eta D); eta metafora bi planteatzen ditu azkenean:

egunaren zahartzaroa eta

bizitzaren arratsa

Edozein modutan ere, metaforarik preziatuenak dira analogia argitik ez datozen horiek, ezpada hasiera-hasieratik metafora moduan planteatzen direnak argi eta garbi. Alegia, planteatu beharrean AB eta CD bikoteak, zuzenean jotzen da forotik eta tematik osagai bana hautatzera, harreman-sarean kokatzeko, identifikatzeko.

Arrunt bilakatu diren adibideak erraz topa daitezke:

loaldi bat da bizitza, edo

faltsukeriaren ozeano bat da zientzia

Bai eta klasikoago direnak ere:

> Gorputzarentzat den dena, erreka da; arimarena dena, amets eta lurrun (Marko Aurelio, *Gogoetak*, II, 17).

Zenbait kasutan, metaforak (ausartak edo berri-berriak direnean batez ere) tentuz txertatu behar dira diskurtsoan, aldez aurretik iragarriz metafora bat erabiliko dela: *bestela esateko*, edo *barkatu honela esatea baina…* formulak erabil daitezke. Horrela eginez, tropoa ulertzen laguntzen da, bai eta diskurtsoan balizko ulertze-etenak saihesten ere.

Tropo nagusiaren irakurketa berriagoetan, modernoagoetan, metafora aztertu da komunikazio inplizituaren barruan, testu-estrategia legez, indeterminazio-mekanismo gisa, hizkuntza bera aberasteko. Hara:

> Komunikazio idor eta pobrea besterik posibilitatzen ez duen hizkuntza estereotipatuaren antzutasunaren arazoan ere laguntzera datoz metaforok, zeren komunikatzeko gaitasuna berreskuratzea eta komunikazioa aberastea erdiesten baitute (Azkorbebeitia, 1996: 141).

Azkorbebeitiaren lan horretan, Atxagaren eta Sarrionandiaren metafora ederrak biltzen dira, tropo nagusia komunikazio-fenomeno gisa ulertzera garamatzatenak. Hitzaldia, artikulua edo entsegua idatzi gura lukeenak ondo aztertu beharko luke fenomeno honen adierazkortasun zabala eta ederra.

Hona hemen aipaturiko lan txukun eta argian Azkorbebeitiak bildutako zenbait adibide:

> *Ixiltasun tonelada pare bat etorri zen kostako trenean, bagoietan izerditan blai* (Atxaga, 1988: 85). Atxagak modu argian egiten dio gonbidapena balizko irakurleari testuaren interpretazioan esku hartu dezan.

Esperantza altzairuzko orratza da / hamaikagarren atean (Sarrionandia, 1992: 70) idatzi zuen behinola Sarrionandiak, sufrimenduak ematen zion itxaropenaren atakatik.

Zure bihotza, ene aingura (Sarrionandia, 1981: 24) eder eta paregabea, maitasunaren deskripzio irekia proposatuta.

Bihotz, buztinezko Bihotz / Etxe ttiki bat zara / Ahula, hauskorra, lau gelatako (Atxaga, 1991: 70) ahaztezin eta kantatu eder hura gogoratu liteke sentimenduen indarraz hitz egitean.

Eta euskal letren altxorra astinduz gero (Lizardiren *Bihotz-begietan*, Leteren *Nafarroa, arragoa*, Arestiren *Harrizko Herri Hau*, Sarasua anaien *Canis fidelis*, Amurizaren *Akelarretik Josapatera*…), zerrendak luze joko liguke. Oro har, testu irekiak dira metaforikoak, eta halaxe dira horiek guztiak: informazioa erdizka ematen dute, baina erdizka emateagatik oso-osoan ematen dute, igorlea eta hartzailea biltzen baitituzte espiritu komun baten itsasoan. Informaziorik ezak edo informazio-etenak ez du, berez, metafora egiten; soilik irakurlea ametsezko gurutzegrametara daraman horrek. Horixe da jokoa. Hizkuntza- eta pentsamendu-jokoa. Horixe metafora modernoaren zerua.

Antzekotasunaren jokoaren barruan funtzionatzen duen lan-tresna da metafora. Eta, antzekotasunaren joko horretan, erretorika klasikoaren zenbait tratatutan, metaforarekin batera, hiperbolea, sinestesia, ironia eta alegoria aztertu ohi dira (Mayoral, 1994).

Ezer izatekotan, esanguraren transferentzia da metafora. Metafora egiten dugu, «antzekoa den ezaugarriren bat dela medio, gauza batetik beste batera igarotzen dugunean» (Nebrija, *apud* Mayoral, 1984). Metafora edo translazioa da «berezko esanguratik alde egiten duen zerbait, beste zerbaiti ezartzeko» (Jiménez Patón, *apud* Mayoral, 1994). Eta, esanguren transferentzia horretan, metaforarekin bat egiten dute zenbait literatura-baliabidek: hiperboleak, sinestesiak, ironiak eta alegoriak, esan berri dugunez.

Erreparatu honako adibide hauei. Metafora eta hiperbolea hurbil dira testuetan.

Bat:

Jaime da agian nire kutuna, nahiz eta berarekin ia inoiz ezin dudan elkar ulertu. Sentibera iruditzen zait, burutsua iruditzen zait, baina ez zait batere zintzoa iruditzen. Argi dago bera eta bion artean **hesi**[5] bat dagoela (Benedetti, 2004: 11).

Bi:

Arratsaldeko lauretan, bat-batean, zeharo huts sentitu nintzen. Lustrinazko zakua eseki behar izan nuen eta Pertsonalean ohartu ezen Banco Republikatik pasatu behar

5. Distantzia gaindiezina eta ulertezintasun besarkagaitza irudikatu nahi lituzke hesiak.

> nuela, gutunaren kontu zahar hura konpontzeko. Gezurra. Eraman ezin nezakeena zen nire lan-mahaiaren aurreko horma **erabat irentsia**[6] edukitzea egunkari-almanakak (Benedetti, 2004: 12).

Hiperbolea gehiegikeria semantiko bat da, hitzez-hitz hartuta erreala deformatzen duena (Lázaro Carreter & Correa Calderón, 1980).

Hona beste adibide bat:

> Bi hanka zituen, argal-argalak, hain argalak, bakarra ematen baitzuten (Marías, 2001: 19).

Kasu horietan, metafora ala hiperbole baten aurrean gaude?

Hiperboleaz gain, metaforaren munduaren baitan, sinestesia, ironia eta alegoria aipatu dira arestian. Sinestesia da zentzumen-transferentzia lantzen duen literatura-baliabidea: gizakiak belarritik jaso lezakeena begien esku jartzea da sinestesia egitea; edo, begien bidez barnera genezakeena, ukimenaren esku uztea da sinestesia egitea. *Isilune iluna*, edo *kolore ozenak* dira sinestesiaren ardatzaren baitako klasikoak: belarriek ikusi egiten dute eta begiek entzun.

Aldiz, ironia da gauza bat esatea kontrakoa adierazteko: ironia, metaforaren antzera, pentsamendu-figura bat da, partzialtasun bat lantzen duena (Lausberg, 1991: 85). Eztabaida batean, ironiak arerioaren hitzak erabiltzen ditu, haien faltsukeria nabarmentzeko. Konfrontamenduan, batzuetan, ironia erabiltzen da inor gaitzesteko, iraintzeko edo laidoz betetzeko; eta, beste batzuetan, ironia erabilgarria da inor goratzeko, famatzeko edo loriaz janzteko. Ironiaz jada hitz egin da lehenago gure testuan, kontraesana, bateraezintasuna eta absurdua mintzagai hartu izan direnean.

Ironia sarritan erabiltzen dugun figura da. Esan dugunaren kontrakoa ari gara adierazten. Demagun irakasleak diotsola suspentsoa izan duen ikasleari: *asko ikasi duzu, agerian da!* Esan duenaren kontrako zuzena adierazi nahi izan du irakasleak arestiko esaldi horretan. Testuingurua ezagutu beharra dago baieztapenaren zentzu sakona ulertzeko.

Bukatzeko, esan dezagun ezen metaforak eta bere munduak euren indar erretorikoa eta arrazoizkoa gal ditzaketela, beste edozein tropok bezala, gehiegikeriaren bidetik. Gehiegizko erabilerak indarra kentzen dio denari, zeren azkenean iruditzen baitzaigu ezen pentsamendu, esaldi nahiz termino *arrunt* eta *berezien* artean dagoen harremana ohikoa dela. Zerbait arrunta bilakatu bada termino bien arteko harremanean, indarra galdu du metaforak, eta berdin sinestesiak, ironiak, hiperboleak nahiz alegoriak. Kasu horietan, onena da oinarrizko analogia bere

6. Batetik, almanakak jan egiten du horma, ezinezko bat; eta bestetik jan ez eze irentsi egiten du horma.

osotasunean eraikitzea, eta ondoren metafora bera edo beste edozein figura metaforiko gogora ekartzea, balizko *arruntasunari* aitor dakion benetako *berezitasuna*.

Analogiaren eta metaforaren aurkakoek beti erabiltzen dute formula bera bai bata bai bestea desaktibatzeko eta desarmatzeko: figura ilunak direla esatea. Hala ere, ilunak dira, batez ere, ulertzen ez dituztenentzat.

9. Logika eta silogismoaren egitura

Jakina denez, hizkuntzari erabat lotuta dago pentsamendua; hizkuntzaren ezaupideak berak bideratzen du pertsonak pentsatu ahal izatea, pentsamendua egituratzea eta hura plazaratzea. Iritziaren eta pentsamenduaren munduan, argudioen sorkuntzan eta sozializazioan, lan-tresna egokiak eskaintzen dizkie gizarteari oro har eta kazetariari berari bereziki hizkuntzari lotutako logikak.

Hezkuntza-sistemaren baitan, filosofiaren atal klasiko moduan ikusi ohi da logika, eta haren ardura nagusitzat jo izan da argudioa onargarria eta zuzena bihurtzen duten erregelen azterketa (Miranda, 2002).

Gure ikuspuntutik begiratuta, logikaren ardatz nagusia honako hau da: bereiztea, salatzea eta apartatzea, silogismo kategorikoaren arabera, argudio onargarriak eta onargarri ez direnak (Capaldi, 2000).

Testuinguru espezialduetatik at, *entimema* klasikoak erabiltzen ditugu egunerokotasun handiarekin, alegia osagarrietako baten faltan izan ohi den silogismo laburtua. Arrunta da, eta oso erabilia; uste baino gehiago, agian. Descartesek berak erabili zuen bere *cogito ergo sum* horretan, *pentsatzen dut, beraz banaiz* zioenean. Silogismo hori ez da bere osotasunean eman; *pentsatzea da izatea, beraz nik pentsatu egiten dudanez, ni ere banaiz, izan* esatea litzateke argudioa bere osotasunean erakustea.

Baina, esan dugunez, entimema da ohikoena. Hona hemen beste adibide bat (Baylon & Mignot, 1996: 138):

> Inork ez du esaten: ‘gaixo dagoenak ez du lanik egiten, ni gaixo nago, beraz ez dut lanik egiten’; nahikoa da esatea: ‘gaixo nago eta ez noa beharrera’. Ez da erabateko entimema bat, zeren, bere garapenean, enuntziatua ez bailitzateke silogismo-tankerakoa izango. Honen moduko zerbait litzateke: ‘ez naiz beharrera joan, gaixo nago-eta’. Holakoetan ez da beharrezkoa esatea legeak onartzen duela norbait lanera ez joatea, baldin eta gaixo badago.
>
> Bestelakoa litzateke esatea: ‘ez naiz beharrera joan auzokoak eskatu didalako mesede bat egitea’.

9.1. ARGUDIO LOGIKOAREN ESTATUTUA

Pentsamendu edo argudio logiko bat azaltzen denean, diskurtso horrek dituen propietate sintaktikoak eta semantikoak aztertzea izaten da ardura nagusia. Sistema logiko bati eska dakiokeen propietate garrantzitsuenen artean bi aipa litezke: formaren zuzentasun sintaktikoa eta edukiaren osotasun semantikoa (Carrascal & Urbieta, 2004).

Behin baino gehiagotan entzun eta irakurri ahal izan denez, honako adibide honetan aurkitzen dugu silogismo klasikoaren paradigma:

1. premisa: *hilkorrak dira gizaki guztiak*

2. premisa: *gizakia da Sokrates*

3. ondorioa: *hilkorra da Sokrates bera*

Argudio hori onargarria da, logikaren ikuspuntutik. Biribila da, formari begiratuta nahiz edukiari begiratuta. Berez, egitura errazeko argudioa da logikoa; hala ere sarritan da oker erabilia. Hala gertatzen denean, testu bitxiekin egin daiteke topo.

Argudio logikoen analisi formala

Oinarrizko ikuspuntu arautzaile batetik begiratuta, argudioak formaren eta edukiaren arabera sailka litezke, honetara: formari begiratuta, argudio batzuk *onargarriak (baliozkoak)* dira, eta beste batzuk *ez*; edukiaren egiazkotasunari begiratuta, argudio batzuk *sendoak* dira, eta beste batzuk *ahulak*.

Sailkapen horretako lau ardatzak honela defini litezke:

- *Argudio baliozkoa*: formazko arauak apurtzen ez dituen silogismoa.
- *Argudio baliogabea*: formazko arauak apurtzen dituen silogismoa.
- *Argudio sendoa:* formalki *onargarria* den argudio bat, haren premisa guztiak *egiazkoak* direnean.
- *Argudio ahula:* formalki *onargarria* den argudio bat, haren premisetako bat *faltsua* denean.

Silogismoa

Ikus dezagun logikak ze argudio-bide onartzen duen. Logikaren oinarria ezerk bermatzekotan, hori silogismoa da. Hiru enuntziatu, hiru proposamen sinple dituen testua da silogismoa. Proposizio horietako bat (ondorioa deitua), beste bietatik (premisak) da eratorria. Premisa bien artean termino bat dute komun. Era berean, premisek termino bat partekatzen dute ondorioarekin (Plantin, 2002).

Hona hemen silogismo egokia:

Hilkorrak dira animaliak / Animalia da gizakia / Beraz, hilkorra da gizakia

Aldiz, honako hau ez da egokia:

Animaliak dira gizakiak / Animaliak dira zaldiak / Beraz, zaldiak dira gizakiak

Azken horretan, silogismo baten itxura du diskurtsoak, baina ondorioa ez da zuzena. *Falazia* deitu izan zaio horrela argudiatzearen ariketari, bai eta *parasilogismo* ere. Hainbat parasilogismo mota daude, eta askok izena dute: sofisma, argudio anbiguoa, dedukzio okerra… Kapituluaren amaieran aurki daitezke horietako batzuk.

9.2. SILOGISMO KATEGORIKOA

Silogismo kategorikotzat jotzen da baieztapen guztiak (bai premisak bai ondorioa) kategorikoak dituena. Eta baieztapen bat kategorikotzat joko da, baldin eta subjektu bat eta predikatu bat badu (Capaldi, 2000).

Eskuartean dugun silogismo kategorikoaren azalpen honetan, honako urrats hauek egingo dira:

- azalpenerako, oinarrizko osagaien eta formulazioen taula orokorra eskainiko da,
- hedaketaren ardatz berezia azalduko da,
- premisa eta terminoen jokoa azalduko da, eta
- oinarrizko araudia azalduko da.

Silogismoaren osagaien eta formulazioen oinarrizko azalpena

Silogismo kategorikoaren baitan, abiapuntu moduan, lau osagai jakin aurkeztuko dira orain: subjektua, kuantifikatzailea, lotura eta predikatua.

Lau osagai horiek osatzen duten konbinazio-lerro bakoitzari kode bat emango zaio, ondorengo azalpenetan erreferentzia moduan eginkizun nabarmena izango duena.

Honela jokatzen dugu aldaera-sorta antolatzearren:

	Subjektua	Hedaduraren kuantifikatzailea	Lotura	Predikatua	**Kodea**
1	*X*	denak	dira	*Y*	**A**
2	*X*	bat bera ere	ez da	*Y*	**E**
3	*X*	batzuk	dira	*Y*	**I**
4	*X*	batzuk	ez dira	*Y*	**O**

Capaldi 2000tik hartu eta moldatua.

Lerro bakoitza irakurri. Honelako zerbait aterako zaizu lehenean: *X denak dira Y*, eta kodea *A*. Bigarrenean, honen modukoren bat: *X bat bera ere ez da Y*, eta kodea *E*…

Baieztapen batek *ezaugarri unibertsala* du, baldin subjektuak kontuan hartzen badu aipatzen dituen objektu guztien multzoa, klasea. Goiko lauki horretan, ezaugarri unibertsala dute lehen lerro biek (1.ak eta 2.ak). Kasu horietan bietan, X subjektuak oro har hartzen du bere baitan izendatzen dituenen multzoa: *denak* (1. lerroan), eta *ezta bat bera ere* (2. lerroan). Beraz, ezaugarri unibertsala da multzoa bere osotasunean izendatzen denean.

Horietaz gain, kontuan izan behar da ezen *baieztapena singularra* ere izan daitekeela. Baieztapen batek *ezaugarri partikularra* du subjektuak ez dituenean bere baitan hartzen aipatzen dituen objektu guztiak, haietako bakar batzuk baino. Arestiko lauki horretan, ezaugarri partikularra dute azken lerro biek (3.ak eta 4.ak). Kasu horietan bietan, X subjektuak aipa litezkeenen arteko bakar batzuk bakarrik ditu gogoan; batzuk bakarrik.

Bestalde, baieztapen batek *ezaugarri singularra* du termino bakarra baitaratzen duenean subjektuak. Esaterako: *filosofo izan zen Aristoteles*.

Beraz, arestiko laukian aurreratutako kodeei gagozkielarik, esan genezake ezen

- **A** baieztapen unibertsalari dagokiola,
- **E** ezeztapen unibertsalari dagokiola,
- **I** baieztapen partikularrari dagokiola, eta
- **O** ezeztapen partikularrari dagokiola.

Horrenbestez, esaten ari garena da silogismo guztiak ez direla unibertsalak, batzuk mugatuak baitira; era berean, esaten ari gara silogismoak positiboak (baieztapenak) nahiz negatiboak (ezeztapenak) izan daitezkeela.

Hedaduraren ardatza

Silogismo kategorikoaren estatutua definitzerakoan, ezinbesteko aipamena zor zaio *hedaketa* delakoari. Subjektuaren eta kuantifikatzailearen arteko harremanetik jaiotzen den kontzeptua da hedaketa. Termino bat, subjektua izan nahiz predikatua izan, *hedatuta* (banatuta) dago, baldin eta izendatzen duen klase osoari egiten badio erreferentzia; eta aldiz, *ez da hedatua izango*, baldin eta, klase osoari barik, zati bati baino ez badio erreferentzia egiten.

Hedaketa, subjektuetan nahiz predikatuetan

Hasteko, har ditzagun gogoan arestiko laukian erakutsi ditugun balizko *subjektuak*:

A eta **E** ereduko adierazpenetan, **subjektua** *hedatuta* dago. **A** ereduan, X guztiak hartzen dira kontuan. **E** ereduan, X bat bera ere ez da sartzen baiezko multzoan; beraz, den-denak sartzen dira ezezkoan.

I eta **O** ereduko adierazpenetan, **subjektua** ez dago *hedatuta*. **I** ereduan, X batzuk hartzen dira kontuan, baiezko adierazpena egiteko. **O** ereduan, X batzuk hartu dira kontuan, ezezko multzoan sartzeko.

Ikus dezagun orain *predikatuen jokoa*:

A ereduko adierazpen batean, **predikatua** ez dago *hedatuta*: ez gara ari Y guztiei buruz hitz egiten, bakar bati buruz baino.

E ereduko adierazpen batean, **predikatua** *hedatuta* dago, zeren esaten ari garena baita ez dagoela X delakorik Y talde osoan.

I ereduko baieztapen batean, **predikatua** ez dago *hedatuta*, ez gara ari Y guztiei buruz hitz egiten.

O ereduko baieztapen batean, **predikatua** *hedatuta* dago, zeren dioguna baita X batzuk baino ez direla baztertu Y multzo osotik.

Beraz, taula batera ekarrita, hedaketaren ardatza honetara labur liteke:

	Subjektua	Predikatua
A eredua	Hedatuta	EZ hedatuta
E eredua	Hedatuta	Hedatuta
I eredua	EZ hedatuta	EZ hedatuta
O eredua	EZ hedatuta	Hedatuta

Capaldi 2000tik hartu eta moldatua.

Premisa eta terminoen jokoa

Orain arte ikusi ditugu, batetik, silogismoaren osagaiak euren oinarrizko kodifikazioarekin, eta, bestetik, hedaketaren ardatza. Egin dezagun aurrera; horretarako, abia gaitezen adibide bat jarrita:

- *berdel guztiak dira arrain*
- *arrain guztiak bizi dira uretan*
- *beraz, berdel guztiak bizi dira uretan*

Ikusten denez, *arrain* birritan agertzen da, *berdel* beste bitan, eta *bizi dira uretan* beste bitan. Ardura gaitezen orain silogismoaren premisa eta terminoen arteko jokoaz.

Silogismo batean, *termino nagusia* da ondorioaren predikatu gisa agertzen dena; gure kasu honetan, *bizi dira uretan*. Termino nagusitzat jo dugun hori beste behin ere aipatzen da silogismoan, eta agertzen den beste aipamen horri deitzen zaio *premisa nagusia*; gure kasu honetan, *arrain guztiak bizi dira uretan*.

Bestalde, silogismo batean, *termino txikia* da ondorioaren subjektu gisa agertzen dena; gure kasu honetan, *berdelak*. Eta, termino txikitzat jo dugun hori ere beste behin agertzen da silogismoan; beste aipamen horri deitzen zaio *premisa txikia*; gure kasu honetan, *berdel guztiak dira arrain*.

Azkenik, esan dezagun ezen silogismo kategoriko orok baduela bere baitan *tarteko terminoa* deitutakoa: premisa bietan agertzen dena, hain zuzen ere; gure kasu honetan, *arrain*.

Hartara, jokoa ulertzeko, adibidea honetara idatz liteke:

- *berdel guztiak* (premisa txikia) *dira arrain* (tarteko terminoa)
- *arrain guztiak* (tarteko terminoa) *bizi dira uretan* (premisa nagusia)
- *beraz, berdel guztiak* (termino txikia) *bizi dira uretan* (termino nagusia)

Urrezko araudia

Eta heldu gara, heldu, logikaren muinera. Aurreko azalpenak hemen biribildu gura dira. Silogismo batek ondo funtzionatzeko, erabat aintzakotzat hartu ahal izateko, gutxieneko baldintza batzuk bete behar ditu; atalaren hasieran esana dugu. Baldintza horietako edozein hautsita, silogismoa indargabetzen da, ezin da aintzakotzat hartua izan. Beraz:

Bat. Silogismo batean, gutxienez, *behin hedatu* behar da **tarteko terminoa**.

- *komunista guztiak daude "estatutu berria" delakoaren alde*
- *liberal guztiak daude "estatutu berria" delakoaren alde*
- *beraz, liberal guztiak dira komunista*

Tarteko terminoa (*estatutu berriaren alde*), A ereduko baieztapenetan agertzen da (baieztapen unibertsala). Arestian esandakoaren arabera (kontsultatu koadroa), badakigu ezen A ereduko baieztapenaren predikatua ez dela egoten hedatuta. Beraz, hemen, tarteko terminoa ez dago hedatuta, eta silogismoa ezin da aintzakotzat hartu. Ez du zentzurik ondorioak.

Bi. Silogismo batean, *ondorioan hedatuta* dagoen **termino** batek *premisetan ere* egon behar du hedatuta.

- *komunista guztiak daude ekologiaren alde* (A ereduko premisa)
- *liberal bat bera ere ez da erradikal*
- *beraz, liberal bat ere ez dago ekologiaren alde* (E ereduko premisa)

Diogunez, E eredukoa da ondorioa. Beraz, bai subjektua baita predikatua ere hedatuta daude. Premisa handian (komunista guztiak daude ekologiaren alde), predikatua ezin da hedatu, A eredukoa baita (ikus koadroa). Horiek horrela, termino bat (ekologiaren alde) ondorioan hedatuta dagoen arren, ez dago hala premisaren batean. Hartara, silogismoa ez da zuzena.

Hiru. *Ezezko premisen* **kopuruak** eta *ezezko ondorioen* kopuruak bat etorri behar dute. Beraz, baldin eta ondorioa ezezkoa bada, premisetako batek (bakar batek) izan behar du ezezkoa; baldin bi ezezko premisa badaude, silogismoa ezin da aintzakotzat hartu. Eta, ondorioa baiezkoa bada, ezin da ezezko premisarik onartu.

- *ingurunea errespetatzen duen herri oro da herri kapitalista*
- *halako herria ez da garbia*
- *beraz, herri horrek ingurunea errespetatzen du*

(Ezin da onartu)

Baiezko ondorio bat eraiki gura baldin bada, premisek ere baiezkoak izan beharko dute:

- *produkzio-sistema antikapitalista guztiek errespetatzen dituzte langileak*
- *halako produkzio-sistema antikapitalista da*
- *beraz, halako produkzio-sistemak errespetatu egiten ditu langileak*

(Beste kontu bat da jakitea egia ote den lehen premisa: *produkzio-sistema antikapitalista guztiek errespetatzen dituzte langileak.*)

Oinarrizko araudi honek ondokoa jartzen digu begien aurrean:

Batetik, hedatu barik gelditzen den terminoa kontuan hartuta, zentzu batean berdinak diren gauzek agian ez dute zertan berdinak izan behar besteren batean.

Bestetik, ondorioaren hedadura kontuan hartuta, ondorioaren baliozkotasunak ezin du gainditu premisek mugatzen duten joko-zelaia.

Hirugarrenik, ezezko abiapuntuetatik ezin da baiezko ondoriorik eraiki. Zerbaitek ezaugarriren bat ez izateak ez du esan gura besteren bat izan behar duenik.

Silogismo egokia eraikitzen

Kasu zehatzetik abiatuko gara silogismo egokiaren bila. Kasuistikak emango digu logikaren legea eraikitzeko bidea. Horretarako, argudioak eta multzo-irudiak erabiliko ditugu metodologia jakin bati jarraituz (Miranda, 2002).

Hona hemen abiapunturako argudio bat:


- *Bilbotar guztiak dira euskal herritar*
- *Euskal herritar guztiak dira europar*
- *Beraz, bilbotar guztiak dira europar*

Ondorioa (beraz, *bilbotar guztiak dira euskal herritar*) premisetatik ondorioztatzen da, argi eta garbi. Argudio hau, egia esan, frogapen bat da, hiru terminoren gainean eraiki da: termino nagusia da ondorioaren predikatuan agertzen dena (*dira europar*), termino txikia da ondorioaren subjektua (*bilbotarrak*), eta bitarteko terminoa da premisa bietan errepikatzen dena (*euskal herritar*).

Egin dezagun aurrera. Gogoan izan, oro har, silogismoa erabiltzen duten epaiak lau eratakoak izan ohi direla: unibertsal baiezkoa, unibertsal ezezkoa, partikular baiezkoa eta partikular ezezkoa.

Unibertsal baiezkoa


Bilbotar guztiak dira euskal herritar baieztapena honela marraz genezake:



➢ Euskal herritarren baitan daude bilbotarrak.

Unibertsal ezezkoa


Errusiarrak ez dira alemaniarrak honela marraz genezake:



- Errusiarrek eta alemaniarrek multzo berezituak osatzen dituzte.

Partikular baiezkoa


Mediku dira azpeitiar batzuk honela marraz genezake:



- Medikuen multzoaren baitan, batzuk azpeitiarrak dira.

Partikular ezezkoa


Azkoitiar batzuk ez dira mediku honela marraz genezake:



- Azkoitiarrak ez daude medikuen multzoaren baitan.

Diagrama horien bidez ikus genezake silogismoaren funtzionamendua: batetik, premisen funtsa ikusten da; eta, bestetik, ikusten da ondorioak zein leku irabazten duen marrazkiaren baitan edo haren inguruan.


Bilbotarren europartasuna adierazten duen hasierako silogismoa erakusten du diagrama honek:



Hor ikusten dugunez, ondorioa (*Bilbotar guztiak dira europar*) marrazkiaren baitan ondo kokatuta geratzen da, premisak irudikatzen dituzten zirkulu handiagoen baitan.

Baina azter dezagun beste baieztapen hau: *Andaluziar guztiak dira espainiar / Sevillar guztiak dira espainiar / Beraz, sevillar guztiak dira andaluziar.*

Egia den zerbait esan arren, ondorioa ez da sortzen premisetatik; ondorioa ez da logikoa, ez da silogismo zuzen batetik aterea. Ikus dezagun diagrama batean argiago:



Silogismo faltsu horretan, ondorio moduan aurkeztu duguna (*Beraz, sevillar guztiak dira andaluziar*) ez dago premisak irudikatzen dituzten zirkulu handiago bien barruan. Silogismo faltsu horretan, premisak egiazkoak dira, bai eta ondorioa bera ere. Hala ere, silogismoa ez da zuzena, bere egitura ez da zuzena eta ondorioa ez da ateratzen premisetatik.

Pentsamenduaren eta argudioen eraikuntzan silogismo logikoa erabili nahi baldin bada, honako araudi zehatz honi jarraitu behar zaio (Miranda, 2002):

1. Silogismoak hiru termino besterik ez du izan behar: termino handia, txikia eta tartekoa.
2. Ondorioetan terminoek ezin dute izan hedadura handiagoa premisetan baino.
3. Tarteko terminoa duen hedadura oso-osoan hartu behar da, gutxienez premisetako batean.
4. Tarteko terminoa ez da ondorioan sartu behar.
5. Ezezko premisa bitatik, ezin da baiezko ondoriorik atera.
6. Baiezko premisa bitatik, ezin da ezezko ondoriorik atera.
7. Ondorioak bere egin behar du beti arlorik gaiztoena: partikularra arlo gaiztoagoa da unibertsala baino, ezezkoa gaiztoagoa baiezkoa baino.
8. Premisa partikular bitatik, ez da ezer ondorioztatzen.

Hona *Elio* bertsolariaren erokeria deduktibo bat:

Erromeria txarrik ez dago munduan
Oiartzundik hasita Epelerrekara
Epelerrekatikan Astigarragaraino
Astigarragatikan Pardiolaraino.
Zer arraiotan habil, sudur handi hori? (Lete, 2001).

9.3. FALAZIA, HUTSA ARGUDIOAN

Logika-liburuetan, falaziatzat hartzen da itxura zuzena duen argudioa, nahiz eta argudioa benetan ez den balekoa. Zenbait autorek egiten duten sailkapenaren arabera, mota nagusi bitakoak izan daitezke falaziak: nahita eta apropos egiten diren falaziak, *sofisma* deituak; eta, aldiz, ustekabean egiten direnak, *paralogismo* dei litezkeenak (Miranda, 2002).

Logikaren ikuspuntutik begiratuta, falazien basoa, sofismen eta paralogismoen basoa, nahikoa trinkoa izan daiteke, eta hona hemen zenbait adibide paradigmatiko[7].

Ad ignorantiam argudioa

Argudio mota honen estrategia da esatea ezen inork ez badu frogatu enunziatu bat egiazkoa dela, onartu beharra dagoela enuntziatua faltsua dela. Eta, kontrara, baldin eta frogatu ez bada gezurrezkoa dela, onartu beharra dagoela egiazkoa dela.

7. Liburuaren lehen ataleko 4.2. puntua ere kontsulta daiteke, gaia biribiltzeko.

Baina ez jakiteak ez du ezer frogatzen.

Argudio mota honetakoa litzateke honako hau: *Inork ezin izan du frogatu Jainkoa ez dela existitzen, beraz Jainkoa existitzen da*.

Hala ere, kasu batzuetan, *ad ignorantiam* argudioa justifikaturik dago, justifikaturik dago horrela jardutea. Adibidez, epaiketa batean, baldin eta frogatzerik izan ez baldin bada norbaiten balizko errua, hura errugabea dela onartu beharko da.

Nolanahi ere, logikaren esparru zehatzetik at, diskurtsoan, *ad ignorantiam* argudioa onargarria denean ere, eredu ahula da, indargea gehienetan, eztabaidaren testuinguruaren arabera funtzionatzera derrigortuta dagoena.

Ez jakiteak ez gaitu-eta asebetetzen, normalean.

Argudio zirkularra

Argudio mota honen bidez enuntziatu bat babesteko erabiltzen diren arrazoiek frogatu nahi den hura berbera baino ez dute eskaintzen. Ezer berririk frogatu gabe, argudioa bere buruari begira jartzen da behin eta berriro. Alegia, frogatu beharrekoa frogatu barik uzten da, nahiz eta, itxuraz, zerbait berria esan den.

Demagun norbaitek indeterminismoaren alde hitz egin nahi duela, indeterminismoa defendatu nahi duela, eta, arrazoi moduan, honako hauxe baieztatzen duela: *indeterminismoaren alde nago, izan ere gizakia librea baita*; ez da konturatzen horixe frogatu behar duela, hain zuzen ere.

Demagun Mexikoko Golkoan gaudela, haize handia dabilela, eta norbaitek galdetzen duela: *zergatik jotzen du haizeak hain gogor, 200 kilometro orduko abiadura-indarrez?* Lagunak erantzuten dio: *urakana delako*. Bada, ez da erantzun egokia, zeren erantzunak egin duen gauza bakarra izan baita gertakari bati izena eman, eta ez dago azalpenik; galdera ez da erantzun, beraz.

Ad hominem argudioa

Iritzi baten kontra egin ordez, eredu honetako argudioetan pertsonaren kontra jotzen da. Ez da iritzia borrokatzen, iritziaren jabea baizik, horren aurka egiten da, haren argudioa indargabetzeko. Holako kasuetan, eztabaidak ez du gaiaren mamia aztertzen, ezpada igorlearen deskalifikazioa.

Adibidez: *Nola onartuko dugu erabaki hori? ez al duzue ikusten nondik datorren? Iturria ez da fidagarria; beraz, ez dezagun harengandik ezer onartu*. Hauteskunde-kanpainaren batean baino gehiagotan entzungo zenuen horrelakorik.

Ad autoritatem argudioa

Holakoetan, iritzi baten alde egiten da ezelako arrazoirik eskaini gabe, autoritate baten iritzia berme bakartzat hartuta.

Eredu honetako argudioak ez dira beti baztergarriak, batez ere hobesten den iritzia dena delako gai jakinean autoritate edo benetako jakintsu batena denean. Baina autoritatea ez denean espezifikoa eta haren iritzia hobesten denean beste batenaren gainetik, orduan planteatzen da arazoa.

Ad baculum argudioa

Presioa eta mehatxua daude argudio mota honen baitan eta oinarrian. Aurkaria mehatxatu egiten da, gure proposamena onar dezan. Argudio honek ez du konbentzitzen, bai ordea beldurtzen. Hona adibide bat:

> Migrazio-mugimenduen aurrean, autore batek dio gizarte hartzailearen nortasun identitarioa arriskuan dagoela. Ez du arrazoirik hori frogatzeko, baina beldurra sortzen du: *laster, arabiarren buru-oihala jantzi beharko dugu; azkenean, gure aberria eskura jarri beharko diegu-eta.*

Ad populum argudioa

Argudio-eredu honen bidez, hizlariak ez du entzulea konbentzitu gura; haren asmo bakarra entzulearen sentipenak piztea da, proposamen bat edo beste onar dadin. Tankera horretakoak dira honako esaldi hauek:

> mundu osoak onartzen du / normalena hauxe litzateke / gehiengoak horren alde egiten du / naturak halaxe agintzen du

Hona hemen balizko adibide bat:

> Literatura-lan handia da jende gehienari gustatzen zaion liburua.
>
> Jende gehienari gustatzen zaio *Love Story*.
>
> Beraz, literatura-lan handia da *Love Story*.

Argudio hori goitik behera botatzeko, premisa nagusia (*literatura-lan handia da jende gehienari gustatzen zaion liburua*) faltsua dela argudiatzea besterik ez dago. Hori horrela, argudioa baliorik gabe geratzen da.

Ad misericordiam argudioa

Alegia, errukia aldarrikatzen du argudioak, tratu berezia eskatzeko.

Adibidez: *badakit ez dudala gainditu azterketa, baina, ikasturtea gainditzen ez badut, udan errepikatu beharko dut; aprobatzen utzi behar didazu*.

Probintzialkeria delakoaren argudioa

Alegia, unibertsala bailitzan eskaintzea lokala den zerbait, argudioaren oinarritzat.

Argudio anbiguoa

Termino anbiguo batek ondorioztatze zuzena oztopa dezake. Premisa egokietatik abiatzen da argudioa, itxuraz ondorioztatze-lan zuzena egiten du, baina ondorio faltsu batera hel daiteke. Honako hauxe da formula: 1 da 2, 2 da 3, beraz 1 da 3. Baina, argudio anbiguoaren kasuan, igarotze-legea oinarritzen duen terminoa ahula da, anbiguoa.

- metala da brontzea
- gorputz puruak dira metalak
- gorputz purua da brontzea

Denok dakigu aleazio bat dela brontzea: kobrearena eta eztainuarena. Non dago errakuntza? *Metal* terminoaren erabilera anbiguoan. Lehen premisan, metal hitza *adiera arruntean* hartzen da: beste batzuen artean, *metalak* dira brontzea, burdina eta altzairua. Bigarren premisan, aldiz, *zentzu teknikoan* hartzen da *metal* hitza: metalak *zer puruak* dira. Parasilogismo horretan esparru desberdineko esangura desberdin bi biltzen dira adierazle beraren inguruan, eta horretan datza errakuntza.

Bibliografia[8]

1. BIBLIOGRAFIA MODERNOA

Azkorbebeitia, A. (1996): "B. Atxaga eta J. Sarrionandiaren metaforetan barrena bidaiatuz", *Uztaro,* **17**, 109-149, UEU, Bilbo.

Azurmendi, J. (1999): "Sokrates: krisialdiko pentsalaria" in Platon, *Sokratesen defentsa,* Jakin, Donostia.

Baylon, Ch. eta Mignot, X. (1996): *La comunicación,* Cátedra, Madril.

Bernabé, A. (2002): "Introducción" in Aristoteles, (2002): *Retórica*, Alianza Editoria, Madril.

Capaldi, N. (2000): *Cómo ganar una discusión,* Gedisa, Bartzelona.

Carrascal, B. eta Urbieta, L. (2004): "Logika" in Azurmendi et al. (ed.), *Filosofiako Gida*, 139-154, UEU, Bilbo.

Eco, U. (1988): *Tratado de semiótica general,* Lumen, Bartzelona.

Kristeva, J. (1981): *Semiótica,* Fundamentos, Madril.

Lausberg, H. (1991): *Manual de retórica literaria,* Gredos, Madril.

Lázaro Carreter, F. eta Correa Calderón, E. (1980): *Cómo se comenta un texto literario,* Cátedra, Madril.

µ taldea, (1987): *Retórica general,* Paidós, Bartzelona.

Mayoral, J. A. (1994): *Figuras retóricas,* Síntesis, Madril.

Miranda, T. (2002): *Argumentos*, Universitat de Valencia, Valentzia.

Perelman, Ch. eta Olbrechts-Tyteca, L. (1989): *Tratado de la Argumentación,* Gredos, Madril.

Plantin, Ch. (2002): *La argumentación,* Ariel, Bartzelona.

Weston, A. (2004): *Las claves de la argumentación*, Ariel, Bartzelona.

8. Bibliografia modernoaz eta iturri zahar eta klasikoen zerrendaz gain, irakurgaien zerrenda ere eskaini dugu hemen, liburu horietatik hartu baitira adibide eta aipu gehienak. Aipu guztiak eman dira euskaraz; euskarazko itzulpena dagoenean, hori da bibliografian bildu duguna, eta hortik hartu ditugu aipuak; euskarazkorik ez dagoenean, geuk euskaratu dugu bibliografian bildu dugun bertsiotik. Latin-literaturako autore klasikoen kasuan, Bilbao 2002tik hartu dira itzulpen gehienak (Marko Aurelioренak eta Senekarenak izan ezik).

2. ITURRI ZAHARRAK ETA KLASIKOAK

Aristoteles, (2001): *Nikomakorentzako etika*, Pentsamenduaren Klasikoak, Bilbo.
————, (2002): *Retórica,* Alianza Editorial, Madril.
Cicerón, (2000): *Bruto,* Alianza Editorial, Madril.
————, (2001): *El orador*, Alianza Editorial, Madril.
Gottfried Herder, J. (1995): *Hizkuntzaren jatorriari buruzko tratatua,* Pentsamenduaren Klasikoak, Bilbo.
Habermas, J. (2003): *La ética del discurso y la cuestión de la verdad,* Paidós, Bartzelona.
Kant, I. (1999): *Arrazoimen hutsaren kritika,* Pentsamenduaren Klasikoak, Bilbo.
Izengabea, (1990): *Rhetorica ad Herennium - Retórica a Herenio*, Bosch, Bartzelona.
Leibniz, G. W. (1996): *Giza adimenari buruzko entsegu berriak,* Pentsamenduaren Klasikoak, Bilbo.
Locke, (1998): *Giza adimenari buruzko entseiuak,* Pentsamenduaren Klasikoak, Bilbo.
Platon, (1977): *Gorgia,* Euskaltzaindia, Bilbo.
————, (1999): *Sokratesen defentsa,* Jakin, Donostia.
Quintiliano de Calahorra, (1996): *Sobre la formación del orador. Obra completa*, Publicaciones Universidad Pontificia, Salamanca.

3. IRAKURGAIAK

Agirre, L. (2004): *Gezurra ari du,* AISE liburuak.
Aristi, P. (2003): *Libreta horiko poemak,* Susa, Zarautz.
Atxaga, B. (1988): *Etiopia,* Erein, Donostia.
————, (1991): *Poemas híbridos,* Visor, Madril.
————, (2000): *Obabakoak,* Erein, Donostia.
————, (2003): *Soinujolearen semea,* Pamiela, Iruñea.
Barthes, R. (1993): *Idazkuntzaren zero gradua,* Pentsamenduaren Klasikoak, Bilbo.
Benedetti, M. (2004): *La tregua*, Alianza Editorial, Madril.
Bilbao, G. (2002): *Latin-literaturarako sarbidea,* UEU, Bilbo.
Descartes, (1997): *Metodoari buruzko diskurtsoa eta meditazio metafisikoak,* Pentsamenduaren Klasikoak, Bilbo.
Lertxundi, A. (2004): *Konpainia noblean,* Alberdania, Irun.
Lete, X. (2001): *Berrehun urtez bertsotan*, Elkarlanean, Donostia.
Marco Aurelio, (2003): *Meditaciones,* Alianza Aditorial, Madril.
Marías, J. (2001): *Cuando fui mortal,* Santillana, Madril.
Odriozola, J. M. (2004): *Euskalgintzaren lekukoak,* Elkarlanean, Donostia.

San Agustin, (2003): *San Agustinen hainbat idazlan,* Pentsamenduaren Klasikoak, Bilbo.
Saramago, J. (2004): *Ensayo sobre la lucidez,* Alfaguara, Madril.
Sarrionandia, J. (1981): *Izuen gordelekuetan barrena,* BAK, Bilbo.
————, (1992): *Gartzelako poemak,* Susa, Iruñea.
Schopenhauer, (1999): *Mundua errepresentazio gisa,* Pentsamenduaren Klasikoak, Bilbo.
Spinoza, (1997): *Etika,* Pentsamenduaren Klasikoak, Bilbo.
Seneka, (1993): *Bizitzaren laburtasunaz,* Pentsamenduaren Klasikoak, Bilbo.
Zarate, M. (2004): *Etorriaren zorabioz,* Ikeritz, Bilbo.